

puntu 100

Erreportajea: 'Puntu'-ren 100 zenbakietan barrena

Elkarrizketa Kirmen Uribe idazle ondarrutarrari



Badator!

20. Korrika atzo, eguena, abiatu zen, Otxandiotik / 2 eta 'Herriak' saila

Aramaioarrak Legution, Korrikaren 7. kilometroan, lekukoarekin. XABI URZELAI

1,9 milioi UNED berritzeko

Udan egingo dute obraren faserik astunena, unibertsitatearen jarduera akademikoa eteten denean / 32

SINADURAK	
	MAIALEN MADARIAGA / 30
	PATXI OLABARRIA IRIZAR / 8
	JON SAGARAZU / 36
	PAULA AMILBURU / 17
	IDOIA ETXEBERRIA / 48

Goiena Klubera apirilaren 1etik 30era bitartean bazkidetuz gero, prezio berezia egingo dizugu: **10 EURO BAKARRIK!**
www.goienakluba.com

LEHEN ~~40€~~ ORAIN **10€**

Eta bazkidetzen zareten lehendabiziko 100ak 100 euroko erosketa txartel baten zozketan sartuko zarete.



goienakluba
 Euskara irabazle, denok irabazle!





Korrikaren hasierako kilometroak, Otxandiotik Legutiora bidean. XABI URZELAI



Amaia Txintxurreta Goienako lankidea saio berezian Korta elkarrizketatzen. A. BODES

Ubane Madera DEBAGOIENA

Abiatu da Korrika. Otxandiotik, abiatu ere, atzo, eguena, Joseba Kanpori, Korrikaren sortzaile otxandiarra zenari, hasierako kilometroa eskainita.

Korrikarekin izan ohi den moduan, herritarren babes eta zirrarak bultzatuta egin zituen hasierako kilometroak; hain justu, 7.a Legution aramaioarrena izan zen; bertako Udalak eskuratu eta aramaioar talde handi batek udalerriaren izenean lekukoa eramanda. Hortik aurrera, Gasteizerako bidea hartu eta hamar egunotan, 20. aldiz zeharkatuko ditu Euskal Herriko udalerrri eta txokoak euskararen aldeko lasterketak, uneoro, lekuoro, herritarren babesak eta grinak lagunduta.

Debagoienari dagokionez, apirilaren 7an, barikua, sartuko da, Osintxutik, eta Antzuolatik irten. Zapatuan atzera ere izan-

Etorri badator 20. Korrika

Atzo, eguena, Otxandion abiatu zen Korrikaren 20. edizioa, debagoiendar ugariren babesarekin, aramaioarrak tarteko; apirilaren 7an eta 8an zeharkatuko du Debagoiena, Elgeta eta Aramaio izan ezik, gainontzeko herri guztietatik pasatuta

go da eskualdean, Udanatik sartuta eta Leintz Gatzagatik irten da -ibilbidea, taulan-.

Autobuserako izen ematea

Amaitu, berriz, Iruñean amaituko da, domekan. Bertaratzeko bi autobus antolatu ditu Debagoieneko AEK-k. Bata Elorregitik aterako da, 08:45ean; Bergarara egingo du ondoren, 09:00etarako, eta, Bergaratik Deskargara doala, Antzuolan geratuko da, 09:15ean. Bigarren autobusa, berriz, Leintz aldera bideratuko dute. Arrasatik aterako da hori, 08:30ean, Aretxabaletara joango da gero,

08:45ean, eta Eskoriatzan du azken geldialdia, 09:00etan. Buelta, berriz, 20:30erako Arrasaten. Izena apirilaren 5a aurretik eman behar da, 10 euro izena ematen denean ordainduta; toki hauetan eman daiteke izena: Eskoriatzan, Inker-nun eta kultura etxean; Aretxabaletan, Loramendin; Arrasaten, Jai-Zalen eta AEKn; Bergaran, Jardun elkartean; Oñatin, Izarraitz tabernan; Elgetan eta Leintz Gatzagan, bertako udaletxeetan; eta Antzuolan, Aitzgarbi tabernan. Aramaioarrei dagokienez, haiek Gorbeialdeko Kuadrillakoen autobusean joango dira.

Zuzeneko jarraipena, Goienan

Guztiok biltzen gaituen ekitaldi horren garrantzia aintzat hartuta, euskarazko hedabideek, Goiena Komunikazio Taldea tarteko, Korrikaren irteeran eta amaieran elkarlanean telebista saio bateratu bana egitea erabaki dute. Iruñeko apirilaren 9an emitituko da, hedabide bakoitzaren webgunean, eta, besteak beste, Goiena telebistan ere ikusi ahaliko da, zuzenean. Horrez gainera, zapatuan, Goienak programa berezia emitituko du Korrikak eskualdean utzitako irudi eta bizipenekin, 22:00etan.



UBANE MADERA

"Kilometro guztiek dute korrikalaria"

AITOR JUARISTI
KORRIKAKO KOORDINATZAILEA

Eskualdean 46 kilometro egingo ditu Korrikak. Izendatuta daude dagoeneko.

Banatuta daude, beraz? Eskualdeko kilometro guztiek badute korrikalaria. Orain, kilometroak banatzen gabiltza. Lehenasuna Korrika batzordeetan parte hartzen direnei ematen zaie; ondorioz, bertako kideek herri barruetan egingo dute korrika; gainontzeko kilometroak zozketa bitartez banatzen ditugu. Mezua bidaliko dugu jakinarazteko bakoitzari non tokatu zaion korrika egitea, nora joan beharko duen dortsaldun petoa hartzera... Herri bakoitzean toki bat dago zehaztuta peto hori banatzeko. Bergaran, Arrasaten eta Oñatin, hasi gara banatzen. Gainontzeko herrietan, datozen egunotan egingo dugu.

Ibilbidea

Apirilak 7

Osintxu - Mekolalde - Bergara - San Lorentzo - Masterreka - Barrenkalea - plaza - Espoloia - Urteaga - Antzuola - lehen sarreratik herria zeharkatu - Deskarga.

Apirilak 8

Udana - Oñati - Bidaurreta - Foruen plaza - Kale Zaharra - Otadui-Zuhaiztia - Zubillaga - Elorregi- Arrasate - Musakola - Gipuzkoa etorbidea - Maala - plaza - Arbolapeta - Muxibar - Takola - Aretxabaleta - Oñalora - Durana - Araba ibilbidea - Eskoriatza - Jose Arana - Leintz Gatzaga barrutik - Arabara.

Parte hartzeko dei egin du EH Bilduk

Debagoieneko EH Bilduko ordezkariak Korrikari ongietorria emateko eta debagoiendarrei Korrikan parte hartzeko dei egiteko agerraldia egin zuten Oñatin, eguaztenean. Adierazi zuten, besteak beste, euskara tresna komunikatibo naturala izan dadin egindako lana "handia" izan arren, oraindik badagoela zer egina.



EH Bilduko ordezkariak Oñatin. AMAIA TXINTXURRETA

Udaberriko oporretarako aisialdi eskaintza berezia

Debagoieneko hainbat herritako ludoteka eta gaztelekuek egitarau mardulak prestatu dituzte datorren oporraldirako. Hartara, ume, nerabe eta gazteek ez dute aspertzeko betarik izango. Denetarik ekintzak izango dira: tailerrak, irteerak, txapelketak...



Iazko Gaztekonkis-eko irudi bat. GOIENA

Maite Txintxurreta BERGARA

Debagoieneko udalek haur, nerabe eta gazteei zuzendutako egitarau bereziak prestatu dituzte datozen oporretarako. Helburua, antolatzaileen esanetan, "opor egunetan ere aisialdia modu aberasgarrian igarotzeko aukera eskaintzea" da. Apirilaren 1etik 23ra bitartean denetarik ekintzak izango dira: irteerak, tailerrak, txapelketak...

Arrasate

Arrasaten bi egitarau prestatu dituzte, bata ludotekak eta beste gazte txokoak. Lehenengo kasuan, nabarmenezkoa da apirilaren 19tik 21era Oriora egingo duten irteera, 10-12 urtekoendako -izen ematea itxita-. Arrasaten geratzen direnendako ere izango dira ekintzak.

Erdiguneko gazte txokoa egunero egongo da zabalik (17:00-21:00), eta hainbat ekintza izango dira: *Vince Pong*, Kurtzetxikira, *Umore horiya*...

Bergara

Bergaran ere gaztetxoei izango dute zer egin apirilaren 10etik 22ra. Nabarmenezkoa da azken egunean kart autoetan ibiltzeko egingo duten irteera.

Oñati

Oñatin ere egitarau mardula prestatu dute. Bihar, apirilak 1, kuboko ping-pong txapelketa izango da, eta hilaren 7tik aurrera ia egunero denetarik ekintzak izango dira, ludotekan zein gaztelekuan: antzerkia, Oñati Cup, antzinako jolasak...

Aretxabaleta-Eskoriatza

Aretxabaletako eta Eskoriatzako gazte txokoek egitarau bate-ratua prestatu dute, eta, urtero legez, *Gaztekonkis* egingo dute.

Haurrei dagokienez, sukaldaritza, eskulanak, birziklapena... mota askotariko jarduerak bilduko dituzten egitasmoak egingo dituzte herri bietan. Plazaren bat edo beste badago oraindik.



BERGARAKO SORTU

Independentzia berbagai

Sortuko Kontseilu Nazionalako Pello Otxandianok independentziaren bidean Bizimodu Onaren Filosofiaren berri eman zuen Bergaran. Bestalde, Som Energia Gara-ko Txetxu Ezkurak Garoña bultzatzen duten multinazionalekin kontratuak nola eten azaldu zuen. Era berean, apirilaren 4an, Rebeka Uberak hitzaldia egingo du Aretxabaletako EH Bilgunean.

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

#erronkarakoprest



Garazi Artoia

Usurbil.
Ingeniaritza Biomedikoa,
4. maila.

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE · APIRILAK 27
OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ORONA IDEO · APIRILAK 29
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI · MAIATZAK 4
OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · APIRILAK 1
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI · APIRILAK 6
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

BILBAO · APIRILAK 29
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA
ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · APIRILAK 6
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · APIRILAK 6
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MAIATZAK 13
LARUNBATA, 10:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZARELA
JAKINARAZI!

www.mondragon.edu/prest

902 110 436



23 edizio digitalen edukiak eskura jarriko ditu *Gurean.eus* webgune berriak. XABI GOROSTIDI

'Gurean.eus': euskarazko komunikabide berria

Tokikom osatzen duten 60 toki komunikabideen 23 edizio digitaletako edukiak batu eta gaika antolatuta eskaintzen ditu 'Gurean.eus'-ek. Gertuko errealitatearen leiho globala izan gura du, gizarte, ekonomia, kultura, kirol eta eguneroko gaien bitartez

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

"Euskaraz pentsatu, sentitu eta bizi zara, Gurean zara". Horrela aurkeztu da *Gurean.eus*, euskal errealitate lokalaren leiho globala izatea helburu duen hedabide berria. Hala azaldu du Alaitz Artolazabalek, Tokikomeko zuzendariak, webgune berri hori sortzean eskaini nahi izan duten zerbitzua: "Gertuko informazioa kontsumitzen duten horiei tresna eraginkor bat eskaini nahi genien, era antolatuan Tokikomeko edizio guztiak ikusi ahal izateko. Tokian tokiko egiten den gaien lanketa hori jostea eta saretzea, eta angelu ezberdinetatik gai antzerakoak nola lantzen diren erakustea izan da *Gurean.eus* sortzearen arrazoia".

23 edizio digital bateratuta

Gurean.eus Tokikom osatzen duten 60 komunikabideen 23 edizio digitaletako sortutako albiste guztiak bateratzen ditu, ohiko sailetan antolatuta: gizartea,

ekonomia, kultura, kirolak, politika, ekitaldiak, euskara...

Gainera, sarean dagoen elkarlanerako gune irekia ere izan nahi du, gai berberaren gainean hainbat komunikabide sortutako kronikei eta analisisiei eta Tokikom osatzen duten komunikabideen 250.000 ohiko irakurleen eta erabiltzaileen iritziei eta ekarpenei esker.

Sareko komunikabidea

Sarerako pentsatutako komunikabidea da *Gurean.eus*, bereziki mugikorretatik kontsultatua izateko, baina tableta edo ordenagailu bidez irakurtzeko ere prestatuta dago. Eta informazio lokala emateko orduan izan daitekeen hutsune garrantzitsua

MUGIKORRETATIK ERA ERRAZEAN IKUSTEKO DISEINATU DA, INFORMATZEKO BIDE OHIKOENETAKOA BAITA

betetzera dator. "Webgune honek jario jarraitua izatea du helburu. Mugikorrek hori ahalbidetzen dute, beti gainean darabiltzagun gailuak direlako. Edukiak unean-unean jasotzeko aukera ematen du, eta gaur egun era horretako kontsumoak gorantza doaz. Gertutik informatzeko ahalegin horretan, gertuan dagoen gailua erabilgarria dela iruditzen zaigu".

Jada erabilgarri

Gurean.eus aktibo dago jada eta bazkideak diren komunikabideetako zein Tokikomekin erlazioa duten hainbat webgune-tatik sartzeko aukera izango da, horretarako sortutako *widget* batzuen bitartez.

"23 hedabide horien edizio digitaletan *Gurean.eus* leiho bat egongo da. Horren bitartez, irakurleek salto egin dezakete sortu berri den orrialdera, eta klik bakarrarekin gai horren inguruan gainontzeko hedabideetan zer landu den ikusi dezakete".

Ordainduren eta Eskuraturen manifestazioa

Bihar, zapatua, Gasteiz aldera joango dira, bertan izango baita Laboral Kutxaren batzar orokorra.

Hitzordua 11:00etan da Europa jauregiko kanpoaldean, eta bi elkarre horietako kideek euren aurrezkiak itzultzeko aldarrikapenak egingo dituzte banku kooperatiboko bazkideen aurrean.

Besteak beste, euren arazoa negoziazio bidez konpontzea eskatuko dute; izan ere, akordiora heldu ezean, bide judiziala azken muturrera eraman nahi dute 50 milioi euroko kalte-ordainak eskatzeko. Kopuru hori euskal auzitegieta egin den demandarik handiena litzateke.

Negozioak Interneten egotearen garrantzia lantzeko hitzaldia

Merkatariei, ekintzaileei, enpresa txikiei eta mikroenpresei zuzenduta, *Jarri Internet zure negozioaren zerbitzura* hitzaldia antolatu du Debagoieneko Mankomunitateak Arrasaten datorren apirilaren 5erako, asteazkena.

Esperientzia errealak landuz

14:30etik 16:30era egingo dute, Nafarroa etorbideko 17. zenbakiko bigarren solairuko Udalaiz aretoan. Hispavista Labs enpresako garapen zuzendari Iker Barrenak hitz egingo du, hasteko, eta ondoren, Sadhana Yoga eta Camdem Town Dance Academy enpresen esperientziak landuko dituzte bertaratzen direnek.

'Debagoieneko pastoriek' argazki lehiaketa prest dute

Eskualdeko gazta ekoizleek osatzen dute Debagoieneko Pastoriek Taldea eta hirugarrenez deitu dute argazki digital lehiaketa. Aurtengo gaia *Debagoieneko artzainak* da, eta aurkezteko azken eguna apirilaren 24a.

Edonork parte hartu ahal izango du -lehiaketaren antolaketa-rekin harreman zuzena dutenek izan ezik- eta partaide bakoitzak,

gehienez, Debagoiengan ateratako hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu. Argazkiak aurkezteko www.turismodebagoiena.com webgunean dagoen formularioa bete behar da eta ondorengo helbide elektronikora bidali: debagoienekopastoriek@gmail.com.

Gustukoeneraren alde egiteko argazki galeria bat argitaratuko da Facebooken apirilaren 25etik maiatzaren 11 arte, eta atsegite gehien pilatzen dituen izango da aurtengo irabazlea.



EMAUS

Aniztasunaren murala definitzen

Hamaika lagun batu ziren, eguaztenean, Emausek Arrasaten duen egoitzan, bertan hutsik dagoen paretan egin nahi duten irudiari buruz hausnartzeko. Bakoitzak *aniztasuna* kontzeptuaren esanahia partekatu zuen gainontzekoekin, eta horien guztien batura Mural Art taldeko margolarien esku utzi dute, ondoren eurek zirriborro bat planteatu dezaten.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA



GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Ate Irekiak

Apirilak 5 18:00
Maiatzak 27 11:00

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industriala
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industriala

www.mondragon.edu/gmhz gmhz.mgep@mondragon.edu 943 71 21 91 • 664 277 592



Paziente Bizia ekimenak badu euskarazko taldea

Paziente Bizia gaixo daudenei laguntzeko hezkuntza programa bat da. Bailarako hainbat herritan egin dituzte horren baitako tailerrak, baina denak gazteleraz. Bada, lehen aldiz, euskaraz egiteko 13 laguneko taldea bildu da Debagoieneko ESI

J.G./M.T. DEBAGOIENA

Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuak Paziente Bizia izeneko programa berezia dauka martxan, gaixo dauden pertsonen laguntza ematea helburu duena. Egunerokoan lagunduko dieten ezagutzak eta trebetasunak eskaintzea da ikastaro horiekin lortu nahi dutena, euren osasun-egoerak hobera egin dezan.

Debagoieneko eskualdean, orain arte, Eskoriatzan, Bergaran, Aretxabaletan eta Arrasaten egin dituzte programa honen baitako hainbat tailer, baina horiek guztiak gazteleraz izan dira. Bada, orain, lehen aldiz,

euskaraz egiteko hamahiru laguneko talde bat bildu da Debagoieneko ESI.

Egunerokoan lagungarri

Gaixotasun kronikoren bat edo gaitz zehatzen bat dutenentzat pentsatuta daude Paziente Bizia programako tailerrak, eta, horietan, beraien eguneroko bizitzan aplikatu dezaketen zenbait teknika lantzen dituzte, taldean bilduta: ariketa fisikoa sustatzeko bideak, elikadurarekin lotutako heziketa, sendagaiak era egokian nola erabili, emozioak nola kudeatu, komunikazioa eraginkorra izan dadin bilatzen duten teknikak eta nork bere

gaixotasunari buruzko oinarriko ezagutza, besteak beste.

Euskararen normalizaziorako

Larraitz Iturbe eta Elena Landaluze arituko dira monitore lanetan. Euren iritziz, "euskararen normalizazio prozesuan garrantzitsua da horrelako ekimenak ere euskaraz egitea".

Talde barruko parte-hartze aktiboa da programa horren berezitasunetako bat, eta, horretarako, "jendea eroso sentitzea garrantzitsua da. Bere ama hizkuntzan egiteak erosotasun hori lortzen laguntzen du". Lortutako emaitzarekin pozik daudela gaineratu dute bi monitoreek.



EROSKI

Gasolindegia berria Bergaran

Bergaran, Leizeaga kaleko Eroski supermerkatuaren alboan, gasolindegia berria ireki dute. Hain zuzen, supermerkatuen kateak berak jarri du martxan zerbitzugune hori, eta 700.000 euro inguruko kostua izan du. Herriko hirugarren gasolindegia da eta bi lanpostu sortu ditu. Bertatik urtean 83.000 auto inguru pasatuko direla espero dute.

20. korrika *aek*



www.korrika.eus

2017ko martxoaren 30etik apirilaren 9ra OTXANDIOTIK IRUÑERA

BADATOR!

BAT
ZUK



Sekulako diru pila tokatu da bailaran

JONE IRIBECAMPOS, JULEN ROMARATEZABALA, JONE OJEA ETA GOIZANE GABILONDO

DEBAGOIENA ZUTIK-EN IZENEAN
DEBAGOIENA

Ba, bai, albisteak ez du oihartzun handirik izan eta inor gutxi enteratu da. Debagoien inguruan, zehazki, 87.827.628 euro tokatu dira. Ondo banatuta herri guztietan. Leintz Gatzagan 341.197 euro, Oñatin 15 milioi, Aretxabaletan 9 milioi pasa, Bergaran, berriz, 20tik gora, Elgetan 1 eta erdi, Antzuolan 3 milioi, Eskoriatzan 5,7 milioi eta txapelduna Arrasate, ia 31 milioi euro, *toma ya!* Eta hauxe da denon galdera: nortzuk dira, ba, zorte hori izan dutenak? Ba, gu guztiok gara zortedunak, denoi tokatu zaigu milioi mordo hori ordaintzea. Bai, bai... zorte txarra izan dugu. Herritarrok ez dugu dirua

poltsikoratuko, ordaindu baizik, eta 35 urte izango ditugu horretarako.

Ia 88 milioi euro ez da gutxiesteko moduko zifra; oraindik eta gutxiago, herriari ezkutatzekoa. Eta zor hori gutxi balitz, sinatuko den kontratuak ere baditu hamaika arantza; izan ere, ordaindu beharreko zor horrek lehenasuna izango du beste guztien artean, aurrekontuak ez dira onartuko zor hori kitatzeko dirurik ez badago...

Kontratu hori onartzeko asmoa duen Debagoieneko Mankomunitateko zein herrietako arduradunek jakinarazi al dituzte datu horiek? Eman al dute publikoki horren berri? Eztabaida kaleratu al dute? Egin behar lukete, baldin eta hitzeko pertsonak badira. Kalte gehiegi bailekarke, zaborra behar bezala kudeatuz gero, beharko ez genukeen erraustegi bat egiteak.

Eskerrik asko

EUGENIO ETA ITSASO ERRASTI
ARRASATE

Lerro hauen bidez, orain egun batzuk hil den Kontxi Herizen familiak eskerrak eman nahi dizkizue momentu zail hauetan zuen babesa eman diguzuen guztioi.

Bereziki, Debagoieneko Ospitaleko langile guztioi, zuen lana itzela izan delako, eta, batez ere, senide eta lagun guztiei, zuen besarkada eta gertutasunak errazago egin duelako dena (bidea)...

Inork

MANEX AGIRRE

[HTTPS://LABUR.EUS/Z01BH](https://labur.eus/z01bh)

Zer ez diogu egotzi, itsatsi, esleitu, euskarari, gure tradizio deskriptiboan. Polita, berezia, altxorra, altxor gurea; birusa, txoria, iratxoa; garbia, kutsatua, gehiago zikindu beharrekoa; zaharra, mendetan iraun duena,

harrigarriki bizirik dagoena; superboterea, materia ahalduztailea; ez indoeuroparra, berezia, bitxia; gutxitua, zapaldua, menostua; aberatsa, noranahikoa, modernoa; seduzitzailea, erakargarria, produktu salgarria; estrategikoa, etorkizun-emailea, bizi-arnasa, mundu-ikuskerak.

Hitz multzo arautu bat besterik ez, eta ze pisu eman diogun. Eta, zoritxarrez, gehienetan, adjektibazio –eta ezaugarritze– lanak auto-justifikaziorako eta eman behar ez genituen esplikazioak emateko bakarrik balio izan digu. Nik ere hortik edan dut, hori naiz, baina asko kostata, arrazoiari ematen diot bidea eta lehenasuna: hizkuntza bat da, besterik ez, nire hizkuntza, eta nirea izan arren nire jabetzakoa ez dena. Afektiboa, sentimenduzkoa, biszerala da euskararekiko dudana harremana? Zaila da ezetz esatea, baina ez. Bizitzeko

ezinbesteko dudana tresna bat da. Nire pentsamenduei forma ematen die. Lanbide eta langai dut. Sormenerako erreminta. "Maite dut euskara" esatea "maite dut musika" esatearen parekoa da. Ez du ezer esan nahi.

Gero iristen da furgoneta, bi urtean behin, eta musika, eta egur puska hori, eta azala pinportaz betetzen zait, eta barrua nahasi, hasten bainaiz pentsatzen "itxaron, nire hizkuntzagatik ari naiz honela jartzen? Euskarak hunkitu egiten nau?". Bada, ez. Ez da horrela, ez da hitz multzo arautu bat asaldatzen nauena, ez: jendea da, bai, jendea, jendearen aurpegiak, keinuak, jantzita daramatzaten petoak, ideia bat(zuk) bere egin, korrika hasi, eta gauzak aldatzeko gogoia duen jende hori (ez jende guztia, baina ez naiz aukeratzen hasiko); nire jendea, baina nire jabetzakoa ez dena. Ezerk baino, inork hunkitzen nau ni.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA /

NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe industrialdea F-0-10
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.eus

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otolara Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asejim.com

GARRILAN

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe industrialdea F-0-10
Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.eus
zenbaki@zenbaki.eus

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behe
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behe
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es



ZABALIK

PATXI OLABARRIA IRIZAR

Deskonkista

Atxorrotzeko gaztelua. Denboraren talaiatik dokumentala ezinbesteko testigantza da gure eskualdearen historia ezagutu eta gaur egungo egoera ulertzeko.

Gipuzkoa oraindik existitzen ez zeneko garaia islatzen da bertan. Nafarroa zen hau eta Deba ibaiaren inguruko lurraldea tenentzia bat zen, Aizorrotzeko tenentzia, eta Atxorrotzeko gaztelutik zaintzen zen Arabako lautadatik itsasorako pasabidea.

Garai hartan gure eskualdea elizaurretan zegoen egituratuta, adibidez Oxirondokoa eta Ariznoakoa gaur egungo Bergaran, eta Uzarragakoa gaur egungo Antzuolan. Elizaurre hauetako herritarrak asanbladan elkartzen ziren elizpe edo eliza aurretan; hortik dator *elizaurre* izena.

Baina, 1200. urtean Gaztelako Alfonso VIII.aren tropek armen bidez konkistatu zuten eskualdea eta indarkeria horren arrastoak aurkitu dira Atxorrotzeko gazteluan.

Orduetik konkistatuak gara, gelditzeko etorri zen herri arrotz baten menpe.

GUK EZ DAUKAGU BERAIEKIKO DEPENDENTZARIK, BERAIEK DAUKATE GURE BEHARRA

Arma erabiltzeaz gain, Gaztelako Alfonso X.ak hiribilduak sortu zituen konkistatutako lurra lotzeko: 1260an

Arressateko elizaurrea *Montdragon* hiribildu izendatu zuen eta 1268an Ariznoakoa *Villanueva de Vergara*.

Hiribildu hauek zerga gutxiago ordaintzea bezalako pribilegioak zituzten eta inguruko elizaurreei hiribildu hauetara batzeko eskaintza egin zitzaizkionen batu ziren *Villanueva de Vergara* Oxirondokoa (1348) eta Uzarragakoa (1391), eta *Montdragonera* Uribarri, Garagartza, Udala eta Gesalibarkoa (1353).

Hau da konkistatzaileen estrategia, armekin zapaldu eta diruarekin jendea erosi.

Hala ere, konkistatuak bai, baina ez menderatuak. Guk ez daukagu beraiekiko dependentziarik, beraiek daukate gure beharra.

Gallardonek ministro zela garbi esan zuen: "Kataluniarik eta Euskal Herririk gabe ez gara ezer". Ondorioz, dependentziarik ez badugu, *independentzia* eskatetik pasa gaituzen *deskonkista* lortzera.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Marrazki bizidunak

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

[HTTPS://LABUR.EUS/2F4D1](https://labur.eus/2f4d1)

Betizu Klubari kexa gutun bat idatzi omen nion behin, txikia nintzelarik, Lapurdiko herritar gisa jasaten nuen injustizia baten berri emateko. BT Show-aren belaunaldikoa naiz ni. [...] Orduan ez zegoen ETB3rik, eta ETB1en goizean botatzen zituzten marrazki bizidunekin gosaltzen genuen haur euskaldunok, ikastolara joan aurretik.

Hego Euskal Herrian oporrak zirenean, ordea, aldatu egiten zuten *Doraemon* eta *Shin Chan*-en hasiera ordutegia, beranduago esnatuko ziren Bidasoaz

mendebalderako umeentzat egokituta. Ipar Euskal Herriko bakantzetan, aldiz, ernatzen ginenerako helduentzako tertulia aspergarri horietako bat egonen zen, agian. Zeren eta, bai: oporrak ez baitira berak Pirinioen bi aldeetan. Aste Santurik ez da existitzen Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan, baina bi hilean behin bi asteko atsedenez gozatzeko aukera bai. [...]

Suposatuko duzuen bezala, erantzun bai, baina ez zioten proposamenari. Uste dut erran zidatela arrazoia nuela, eta saiatuko zirela zer edo zer konpontzen... Aldatu bazuten, marrazki bizidunetatik telesailletara pasatua izanen

nintzen ordurako. Eta orain arazo hori ez dago, umeentzako programazioa eguneko ordu askotan eskaintzen duen kate bat baitago. Txorakeria irudituko zaizue agian anekdotatxoak. Horrelako pasadizo txikietan ikusten da askotan, ordea, zerk bereizten gaituen egunerokotasunean Ipar eta Hego Euskal Herriko biztanleak. Egutegiaren ezberdintasunak, adibidez. Edota afaltzeko ordutegiak, edo... Halako eta bestelakoei buruz solas egiteko astea antolatu dute asteen Seguran, Iparra-Hegoa jardunaldietan. Banatzen gaituena ikusaraziz, batu behar gaituena marrazten hasteko.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Marta Leturia.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber
Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amala Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza, Jokin
Uribeetxeberria.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

PROTAGONISTA

"Punjaberak antzekotasun asko ditu euskararekin"

IMANOL LARREA TESIAREN EGILEA

Mireia Bikuña ANTZUOLA

Imanol Larrea antzuolarrak Punjab eskualdeko hizkuntz jarrerak aintzat hartutako tesia idatzi du: *Punjabtar helduen hizkuntz jarrerak Katalunian* delakoa.

Zergatik aukeratu duzu gai hori?

Katalunian bizi nintzela, etorkinei katalana eta gaztelania irakatsi nien. Hasierako maila irakasten nien, eta konturatu nintzen gehienek gaztelania aukeratzen zutela. Katalana hizkuntza zaila zela esaten zuten gehienek.

Garai hartako nire ikasle asko eta asko punjabtarrek ziren eta punjaberaz egiten zuten, Indiakoak edo Pakistangoak izan. Euren jatorrizko herrialdeen hizkuntz egoeraren konplexutasunak ere asko animatu ninduen.

Ze arlo ikertu dituzu tesia lantzeko?

Hiru arlo. Alde batetik, Katalunian bizi diren etorkin punjabtar helduak,



Imanol Larrea antzuolarra. IMANOL LARREA

Katalunian eskolan ibili gabeak. Horiak jatorrizko hizkuntzen eta Kataluniako hizkuntzen inguruan zer-nolako jarrerak dituzten aztertu dut. Beste alde batetik, katalanak ere aztertu ditut.

Hain zuen ere, punjabtarren hizkuntza jarrerak autoktonoek nola jasotzen dituzten nahi nuen jakin. Izan ere, etorkinen hizkuntza jarrerak oso garrantzitsuak dira, baina hori bezain

garrantzitsua da bertakoen pertzepzioak horren inguruan. Azkenik, Pakistango eta Indiako prentsa aztertu dut. Nire helburua izan da jatorrizko herrialdeetan zeintzuk diren hizkuntza jarrera publikoak detektatzea. **Ikerketa egiten ari zinela, ezustekoren bat topatu duzu?**

Ederra izan da ikustea sekulako aniztasuna dagoela punjabtarren artean. Geure artean bezalaxe. Oso jende desberdina ezagutzeko aukera izan dut: emakume heldu pakistandar abokatu eta feminista, gazte indiar oso sikh erlijiozalea, katalanez primeran egin arren gaztelaniaz ez zekien gazte pakistandarra, musulman erlijiozalea, pakistandar komunista Kataluniako independentziaren aldeko borrokalaria... Azken finean, pertsona bakoitza mundu bat gara, bost axola non jaioa den, han edo hemen.

Ikerketa egiten ari nintzela hainbat ikastaro egin ditut euren hizkuntzak apur bat ikasteko, eta sekulako ezustekoa izan dut. Izan ere, hindiz eta urduz esaldiak euskararen ordena berbera dute. Adibidez, "ni Antzuolan bizi naiz" esan nahi baduzu, hizkuntza horietan, esaldiak osagai berberak ditu.

HAU BE BADOGU!

#Korrika traola, sare sozialetan nagusi



Atzo hasi zen, festa giroan, 20. Korrika Otxandion, baina aurretik, aste osoan zehar, Twitterren, traola erabilien artean egon dira jada **#Korrika**, **#Korrika20** edota **#BatZuk** leloa. Hamar egunez Euskal Herriko txoko gehienak zeharkatuko ditu, eta aurten, traola ezberdinekin, sare sozialetan presentzia handia izatea ere bada helburuetako bat.

Hasier Etxeberria gogoan



Eguaztenean zendu zen, minbiziak jota, 60 urte zituela, Hasier Etxeberria idazle eta kazetaria:

@KikeAmonarriz: "Hasier Etxeberria lankide, adiskide eta euskaltzale handia hil da. Euskalgintzak langile nekaezin bat galdu du".

@annegartiburu: "Beti bihotzean. Goian Bego #HasierEtxeberria #lurrarilotua #elorrizokuenaz #bihotzatraste".

Kartzela-zigorra txio batzuegatik

Cassandra Vera 21 urteko ikasle murtziarrari urtebeteko espetxe-zigorra ezarri dio Espainiako Auzitegi Nazionalak, Carrero Blancoren inguruan umorezko txio batzuk publikatzeagatik. Publikatu zituen 13 txioak "terrorismoaren biktimendako iraingarriak" direla dio epaiak. Txiolarien haserre pizteaz gain, **#Cassandra** traola *trending topic* izan da Europa mailan.

ITURRI ONETIK

Donostiako Aste Nagusiaren sortzailea

Jose Arana Elortza eskoriatzarra (1839-1908) izan zen Donostiako Aste Nagusiaren sortzailea, haren zenezasetasunetik eratorritako, hain justu. Enpresaburua izan zen Arana, eta 1875ean sute batek Donostiako zezen-plaza erre zuenean, hark finantzatu zuen berreraikitzea. Arana izan zen 1876tik 1902ra Atotxako zezen-plazako jabe. Eta XIX. mendean Donostian uda pasatzen zuten kanpotarrei bideratutako zezenketak izan zituzten oinarri bertako jaiek. (Informazio gehiago *Puntua* aldizkarian)

GORA ETA BEHERA



Posterretako irudi guztiak gizonezkoenak

"Agorrosin kirolgunean kirol mota ezberdinetako poster erraldoiak daude sarreran eta barruko pasilloan. Poster horietan agertzen diren kirolari guztiak dira gizonezkoak. Emakumeek ez dute kirolik egiten, ala?", galdegin du Bergarako kirolgunearen erabiltzaile batek. Jakinarazi du gaiaren gaineko ohartarazpenen bat eginda dagoela kirolgunean bertan.



OIHANA ELORTZA

Aprendizen eskola, bataiatzeko prest

Herritarren proposamenak jaso ostean finkatuta geratu da Aprendizen eskolari izen ofiziala jartzeko proposamenen zerrenda. 27 izenez osatuta dago, eta apirilaren 1etik 8ra egongo da gustukoena bozkatzeko aukera BAZen eta udal webgunean

Xabi Gorostidi ARRASATE

Martxoaren 14an eman zuen Arrasateko Udalak Aprendizen eskola zaharrari izena jartzeko parte hartze prozesuaren berri, etorkizunean erabiltzaile izango diren ordezkarien babesarekin. Hala, Arrasate Musikal, Goikobalu Abesbatza eta Ballet Taldearen egoitza berriaren izena proposatzeko aukera ematen zieten herritarrei; udal webgunearen bitartez eta BAZen jarritako eskuorriak betez.

Hala ere, Udal Gobernuak komenigarritzat jo zuen proposatzen ziren izenek hainbat irizpide betetzea. Hala, *Aprendiz* erroa errespetatzeaz gain, euskal aho-kerara ondo moldatzea, erraz deklinatzea, bertako leku izenekin lotura egitea, hitz bakarrean asko esatea eta beste hitz batzuekin lotzeko erraza izatea jarri zituzten bete beharreko baldintza moduan. Horrez gain, bi proposamen jarri zituzten adibide gisa: *Aprendizbarri* eta *Aprendizola*.

Nahasmena eskuorrian

Martxoaren 25ean amaitu zen izenak proposatzeko epea eta guztira 46 herritar edo talderen ekarpenak jaso ziren. Izen asko errepikatu egin ziren, eta beste askok, aldiz, ez zituzten bete



Aprendizen eskola zaharrak izen berria izango du laster. XABI GOROSTIDI

beharreko baldintzak errespetatu. Horien artean zegoen, adibidez, *Juanito Arzamendi Musika Eskola* proposamena, Arrasateko Musika Eskolaren bultzatzailea eta urte luzez herriko musika bandako zuzendari izandakoa omentzeko asmoa zuena.

Proposamenak aztertzerakoan, udal ordezkariak "deigarria" egin zitzaizkien baldintzak kontuan izan gabe hamabi proposamen jaso izana. "Kopuru handia iruditu zitzaigun, eta ostean konturatu ginen BAZeko eskuorrietan sei

baldintza horiek gomendagarri bezala agertzen zirela, eta ez beharrezko bezala. Hori dela eta, erabaki dugu baldintzak bete ez dituzten proposamenei ere aukera ematea eta hautagaien barruan sartzea", azaldu du Udal Gobernuak.

AZeren erreakzioa

Aprendizen eraikinari izen ofiziala jartzeko egitasmoa azaldu eta gutxira, Arrasate Zientzia Elkarteko prentsaurrekoa egin zuten, euren iritzia helarazteko. "Izenak gure memoria-

ren parte dira, eta neologismoen bitartez hori galtzeko arriskua dago. Kulturolarekin eta Kulturarekin bezala, jatorrizko izena galdu egiten da", azaldu zuen Xabier Bengoak, Arrasate Zientzia Elkarteko kideak.

Baina Udalak mahai gainean jarritako baldintzak kritikatzear gain, eurentzako egokiak ziren bi izen proposatu zituzten; *Aprendizes Eskola* eta *Aprendizak Musika Etxea*.

'Aprendizena'-ren aldekoak

Zientzia Elkarteko kideez gainera, beste hainbat herritarrek ere plazaratu dute iritzia. Ana Ugalde eta Jon Azkoaga arrasatearrek eskutitza helarazi zuten. Euren ustez, *Aprendizen Eskola* izen aproposa litzateke, baina kontuan izanda berba bakarra erabili beharra zegoela, *Aprendizena* aukeraren egoitasuna defendatu dute. Euskaldunok eraikinei izena jartzeko orduan tradizio luzea dugula azaldu ostean, baserriek izena jartzeko erabilitako irizpidea jarri zuten adibide gisa: Arruena, Makatzena, Arretxena, Baxabena, edo Boleroena izan ziren erabilitako batzuk. Beste bide batetik, Estepan Plazaola Bergarako Udaleko Euskara teknikariak eskutitza bidali zuen aukera beraren alde egiteko, eta erabilitako adibideen artean Zigorrolako Maxuena baserria aipatu zuen, *aprendiz* eta *maisua* hitzen arteko joko eginda.

Bozketa apirilaren 1etik 8ra

Ondoko taulan ageri diren 27 izenek osatzen dute aukeragai daudenen zerrenda. Udal webgunean eta BAZen boto gehien jasotzen dituen izango da eraikin berriari izena emango diona.

Aukeragai geratu diren izenak

Gomendioak jarraitu dituztenak

- Aprendizena
- Aprendizena
- Aprendizate
- Aprendiz
- Aprendizak
- Aprendizario
- Aprendizbarri
- Aprendizberri
- Aprendizenea
- Aprendizetxe
- Aprendizgune
- Aprendizleku
- Aprendizola
- Aprendiztegi
- Aprendiztoki

Gomendioak jarraitu ez dituztenak

- Aprendices
- Aprendices Dantzan
- Aprendices Musika gunea
- Aprendices Musiketxie
- Aprendizak Musika Etxea
- Aprendizen Eskola
- Aprendizes Eskola
- Arteak
- Escuela de Aprendices
- Juanito Arzamendi Musika Eskola
- Musikale
- Musikastun (Aprendices)

46 HERRITARREK HARTU DUTE PARTE, ETA 27 IZENEN ARTEAN EGINGO DA AUKERAKETA

Mugikortasun Planerako alegazio epea zabalik

Urriaren 20an egin zuen Udalak datozen 10 urteetarako Mugikortasun Plana osatzeko prozesuaren aurkezpena. Egun indarrean dagoen plana 2005eko da eta hori garai berrietara egokitzeko ardura Bartzelonako Intra enpresak hartu du.

Txostena Arrasateko Udalaren eskuetan dago duela aste batzuk, eta aste honetan bertan udal

webgunean jarri dute, herritarrek irakurri eta alegazioak aurkeztu ditzaten. Apirilaren 16ra arte izango da horretarako aukera, eta ostean, Mugikortasun Mahaiari azalduko dituzte jasotako ekarpenak.

Parte hartzeko deia

Herritarrek prozesuan inplikatzeko asmoz, bilera horietan parte hartzeko deia egin du Udalak, era horretan plan berriak arrasatearren egungo beharrei erantzun diezaien.

Iturbideko langileen duintasuna eskatzeko kontzentrazioa atzo

Euskadiko CCOO sindikatuak kontzentrazioa egin zuen atzo arratsaldean Iturbide egoitzaren kanpoaldean.

Bertako komitea Aita Menni-ko zerbiztu sozialek kudeatzen dute, eta duela bi urte daramate lan egutegi justua eskatzen, lana eta bizitza pertsonala ondo partekatzeke. Salatzen dutenez, ezberdintasun handiak daude,

zentzu horretan, erdi mailako arduradunen eta langileen artean.

Sindikatuak jakinarazi duenez, erdi mailako arduradunek komitearen lana oztokatzen dihardute, langileei tentsio egoera "jasanezinean" lan eginarazita. Horren adibide gisa, martxoaren 23an gertatutako istilu baten berri eman dute, non arduradunen isekak jaso ondoren, komiteko presidenteak larrialdi zerbizuetan amaitu zuen antsietate krisi baten eraginez.

Udalekuetarako hezitzaile bila dabil Txatxilipurdi

Txatxilipurdik antolatutako udalekuetan lan egin nahi dutenek apirilaren 28a baino lehen eman beharko dute izena, egoitzan edo haurrak@txatxilipurdi.com helbidera idatziz.

Beharrezkoa izango da euskara jakitea, adinez nagusia izatea, bailaran erroldatua egotea eta ekainaren 10ean egingo den prestatuntza saiora joatea.

%50erainoko laguntzak gazteen alokairuarentzat

2017rako diru laguntza irekiak aurkeztu ditu Udalak, bi berritasun nagusirekin: gazteen alokairuak diruz laguntzekoa eta Lanbide Heziketako ikasketak finantzatzekoa. Lehenaren kasuan, alokairuaren %50era hel daitezke, 250 euroko mugarekin

Xabi Gorostidi ARRASATE

Aurtengo diru laguntza irekiak aurkezteko agerraldia egin zuten martitzenean Maria Ubarretxena alkateak eta Ander Garai Gazteria arloko zinegotziak. Guztira 24 diru laguntza lerro izango dira, 10 sailetan banatuta, eta horiek finantzatzeko aurrekontua 780.224 euro da.

Aurkezpenean, ordea, aurtengo bi berritasun nabarmendu zituzten: gazteei etxetik joaten laguntzeko diru laguntzak eta lanbide heziketako ikasketak finantzatzeko diru laguntzak. Bakoitzarentzako, hasiera baten, 30.000 euroko partida aurreikusitena da, nahiz eta beharren arabera handitu egin daitekeen.

Alokairuak finantzatu

Aurrekontu zirriborroaren aurkezpenean aurreratu bezala, Udalak diruz lagunduko ditu alokairuan bizi nahi duten gazteak. 2017ra mugatzen da laguntza, eta hainbat baldintza bete beharko dira horretarako. Kasurik hoberenean, alokairuaren %50era iritsi daitezke, nahiz eta portzentajea diru-sarreraren arabera izango den, eta 250 euro jasoko dira gehienez.

Plan hori aurkeztu aurretik alokairuan dauden arrasatearrek bi hilabeteko epea izango dute urtarriletik ordaindutako kuotei dagokien laguntza jasotzeko. Hori egin ezean, eskaera egiten duten momentutik urte amaiera arte jasoko dute.

Ander Garaik azaldu duenez, helburu nagusia gazteei "etxetik joateko" bultzada ematea da. Baina horrez gain, merkatu beltzean kontraturik gabe dauden alokairuak gutxitzea ere lortu nahi da, eta, era berean, etxean jabeek 600 eurotik beherako prezioak jarri ditzaten bultzatu.

Udaleko Gazteria Sailean lau hilabetez aritu dira plan hori diseinatzen, eta, horretarako, Oñatiko, Durangoko eta Legaz-



Ander Garai eta Maria Ubarretxena diru laguntzak aurkezteko agerraldian. X. G.

piko ereduak jarraitu dituzte. Horrez gain, Arrasaten alokairuan dauden etxebizitzaren merkatua aztertu dute, horren arabera zifrak ezartzeko. "Diru laguntza honen zenbatekoa zehazteko orduan, Arrasaten

alokairuan dauden etxebizitzaren kopurua izan dugu oinarrian", adierazi du Garaik.

Lanbide Heziketarako laguntza

Aurtengo beste berritasun bat Lanbide Heziketako ikasketak arautu eta ez arautuak finantzatzeko sortutako laguntza lerroa da. Horretarako, beharrezkoa izango da Lanbiden langabe bezala izena emanda egotea, 25 urtetik gora izatea eta 2016ko urtarriletik aurrera Arrasaten errolatuta izatea. Adin tarte horretatik gora dauden langabeen formazioa hobetzea eta etorkizunean lana topatzeko izan ditzaketen aukerak handitzea dira lerro berri hori sortzearen helburuak.

Hala, era horretako ikasketak egitea erabakiz gero, laguntzak izango dituzte matrikulak ordaintzeko, liburu eta bestelako ikas materialak erosteko eta garraioarekin lotutako gastuei aurre egiteko. %75eko diru laguntzak izango dira, 1.000 euroko mugarekin. Kurtsoa amaitzerakoan ordainduko lirateke, betiere, eskolak %80ko asistentzia mailarekin jarraitu diren kasuetan.

Alokairurako laguntza

Hauek dira bete beharreko baldintza nagusiak:

- 18 eta 35 urte bitartean izatea.
- Alokairu kontratua izatea.
- 600 eurotik beherako alokairua izatea.
- 3.000 eta 28.000 euro arteko diru sarrerak izatea.
- Guztira Arrasaten 10 urtez errolatuta egon izana, azken biak jarraian.
- Etxebizitarik propietatean ez izatea.
- Udal zergen eta tasen ordainketak eguneratuta izatea.

Euskal Herriko baratzearen berezitasunak jorrazteko saioa

Jakoba Errekondok 'Bizi baratza; garaian garaikoa, garaiz' liburuaren mamia partekatu zuen entzuleekin

X.G. ARRASATE

Zuztarrak Errotuz-ek antolatutako udaberriko hitzaldi zikloaren bigarren hitzordua izan zen eguaztenekoa.

Jakoba Errekondok *Bizi baratza; garaian garaikoa, garaiz* liburuaren ildo nagusiak landu zituen Kulturaten batu ziren ikusleekin. "Liburuaren filosofia azaltzeko eta, batez ere, Euskal Herriko baratzearen berezitasunak azpimarratzeko saioa izan zen", adierazi du Errekondok. Klimatologia berezia edukitzeak euskal baratzeek egutegi berezia

izatea eragiten duela azaldu zuen.

Horrez gain, euskal baratzearen produktu aniztasuna ere aipatu zuen. "Ez ditugu soilik barazkiak landatzen. Loreak eta sendabelarrak ere sartzen ditugu barazkiekin batera, eta hori oso lagungarria da elkarri lagunduz izurriteak saihesteko".

Bi orduetik gora iraun zuen berrogei lagundik gora batu zituen hitzaldiak, eta Errekondo pozik geratu zen jende kopurugatik eta, batez ere, haiek izandako jarrera aktiboagatik.



Lorea Kortarena gero eta aurpegi ezagunagoa da euskal gazteen artean. L.K.

'Goazen!' saioan aritutako Lorea Korta 'gutarra', 'Galdegazte'-n

Aizarnazabalgo aktore eta dantzariak Arizmendiko Gaztelupe guneko ikasleen galderak erantzungo ditu

X.G. ARRASATE

Lorea Korta izango da Jokin Bereziartuak gidatzen duen Galdegazte saioeko gonbidatu berria.

Euskal gazteei zuzendutako telebista saioetan ibilbidetxo eginga du, 18 urte dituen arren. Lehenik eta behin, *Goazen!* saio arrakastatsuan aritu zen Nora pertsonaiari bizia ematen. Bizitza pribatuan dantza irakaslea ere bada, eta dantzarako eta aktore izateko grinak aldi berean uztartzeko aukera izan zuen.

Ikastetxe askotatik jaso dira *Goazen!*-eko aktoreak elkarriketatzeko eskariak, eta Korta

izango da guztien artean lehena Debagoieneko ikasleen galderei erantzuten.

Goazen!-en ondoren *Gu Ta Gutarrak* saioan ere aritu da, eta alai eta dibertigarria bezala definitzen du bere burua. Begetarianoa da, eta bere etxeko edo amamaren etxeko arrautzak bakarrik jaten ditu. Horrez gain, aurtengo urte sabatikoa hartu du eleberri bat idazteko.

Emisioa, apirilaren 5ean

Saioa ikusi nahi dutenek apirilaren 5ean, 21:30ean, piztu beharko dute Goiena telebista.



lazko AGAKO eguneko bazkari jendetsuko irudia. Aurtengoa Gaztetxean egingo dute MIRARI ALTUBE

26. urteurreneko festan ilunak argitzera

Mende laurdena irudikatzen dizuten tximeletak egin du bere hegaldia, eta beste urtebetetze bat ospatuko du bihar, zapatua, Arrasateko Gazte Alternatiboan Kofradia Organizatuak. Askotariko osagaiekin kozinatutako egitaraua prest dago

Xabi Gorostidi ARRASATE

AGAKO eguna ospatuko da bihar, eta gaztetxean zein herriko bazterretan igarriko da Arrasateko Gaztetxeko kideek jarriko duten festa giroa.

Lehen ekintza 10:30ean hasiko den artisauen azoka izango da. Herriko zein Euskal Herriko bazterretatik etorritako dozena bat artisauk euren produktuak jarriko dituzte Seber Altuben. "Aurreko urteko AGAKO eguna etorritako artisauarekin jarri ginen kontaktuan, baina horietako askok ezin zuten aurten errepikatu. Hala ere, beste artisau batzuei luzatu zieten gonbidapena, eta gu apenas mugitu gabe lortu dugu artisauen dozena ekartzea", azaldu du Gaztetxeko kide Ainhoa Aranak.

Leku berean, ordu erdi geroago, Txatxilipurdiko kideek umeentzako tailerrak jarriko dituzte, haur txikiek primeran pasa dezaten. Bazkalurreko azken ekintza *Bizipoz poteua* izango da, eta honela azaldu du

Aranak zer ekintza berri hau: "Guk asmatutako zerbait da. Berez, otxoteak girotutako poteoa egitea zen asmoa, baina grabaketa bat daukate zapatuan, eta beste zerbait pentsatu behar izan dugu. Gaztetxeko kide batek euskal mitologiako bi protagonistaren laguntzarekin moztarok jantzi, eta poteoa egitea proposatu zuen, eta hori egitea erabaki genuen".

Bazkaria menu bereziarekin

Nekazari gazteen produktuekin egindako menua izango dute ondoren dastagai, Gaztetxean bertan egingo den bazkarian. Menua, hauxe: porru finak egosita ozpin-olio saltsarekin, arroz egosia, barazki-pistoa, patata-purea eta, azkenburukorako, intxaurreak.

Bazkaria musikatua izango da; izan ere, tripa bapo bete ostean, Legazpiko Erein eta Arrasateko eta Aretxabaletako kidez osatutako Jusus Kraist taldeek joko dute. Bazkarirako txartelak

eskuratu ez dituztenek salgai izango dituzte Basati, Jai Zale eta Iluntz tabernetan.

Musika, musika eta musika

18:30ean *Karro poteua* egingo dute herrian zehar, Ziribulio Sound taldeko Martin Arakamak aukeratutako musikarekin, eta 22:30ean hasiko dira eguna borobiltzeko kontzertuak. Oholtza gainera igoko direnak aurrez aipatutako Ziribulio Sound, Bad Sound System eta DJ Miau izango dira. "Parekidetasuna bilatu nahi izan dugu, eta, hori dela eta, Kata abeslaria arituko da Bad Sound Systemekin batera, eta DJ Miau eta Erein emakumeek osatutako taldeak dira", azaldu du Aranak.

Asanblada berritzen

"Orain 15 lagun inguru elkartzen gara egubakoitzero asanbladetan, 21 eta 27 urte bitartekoak. Duela bi urte, lehengo kide asko joan ziren, baina gazteok hartu diegu lekukoa".

ARRASATE IRRATIA

Korrika eta Mondraitz

Datorren asteko *Igo autobusera!* saioan Korrika izango da protagonistetako bat, domekako Mondraitz lasterketarekin batera.

Sarrerak

Cabezafuegok Koolturren eta apirilaren 8an Whitney Rosek Amaia antzokiko *hall*-ean egingo dituzten kontzertuetarako sarrerak zozketatutako ditugu.

Ludoteka ibiltariak azken geltokia egingo du San Andres auzoan

San Andresen hiru asteburuz egon ondoren, biharkoa izango da ludoteka ibiltariak bertan egingo duen azken geltokia. Aurreko astean ez zen biharko gairik zehaztu, baina, azken eguna izanik, jende asko inguratzea espero dute antolatzaileek. Lagunak egin eta euskaraz ondo pasatu nahi dutenek hitzordua dute Bedoñaben 10:30ean.



IMANOL GALLEGO

Lapurreta AC Moviles dendan

Zapatutik domekara bitartean sartu ziren lapurrak Maala kaleko 9. zenbakian dagoen AC Moviles denda. Erakusleihoan zuloa eginda sartu ziren eta han zeuden smartwatchak eta bozgorailuak eraman zituzten. Dendak bi erakusleho ditu, eta horietako batean sartu ziren; hain zuzen ere, produkturik garestienak zituen horretan.



XABI GOROSTIDI

Sutea Biterin, baina zauriturik ez

Martitzen arratsaldean sute bat piztu zen Biteri kaleko 11. zenbakiko azken solairuan. Barruan adingabe bat egon zitekeelakoan, Ertzaintza, Udaltzaingoa eta suhiltzaileen lau kamioi bertaratu ziren; zirkulazioa etenda egon zen une batez. Sute txikia izan zen, balkoian zegoen kartoi batek eragin baitzuen, eta ez zen zauriturik egon.

Antzerkigintza sustatzeko jardunaldiak

Hezkuntza Saila Kultura Sailarekin elkarlanean aritu da ikasleen artean antzerki zaletasuna hezkuntza adierazpen gisa lantzeko asmoz. Horretarako, xede hori lortzea sustatzen duten 27. eskola-antzerki jardunaldiak martxan jarri dira

Ane Vitoria ARRASATE

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleei dago zuzenduta jardura eta lau fase izango ditu. Lehenengoa DBHko ikasleen eskutik prestatutako antzezlanak taularatzear datza eta atzo ekin zioten fase honi. Izan ere, gazteak atzo eskaini zituzten antzezlanak Amaia antzokian. Emanaldiak bi izan ziren: bata, 10:00etan; eta bestea, 14:45ean. Arizmendi Ikastolako Gaztelupeko eta Arrasate Institutuko 75 antzele izan ziren, hiru taldetan banatuta. Ikusizuna LMHko bosgarren eta seigarren mailetak 469 ikasleei eskaini zitzaizkien. Bada, antzezpena taularatu aurretik, ikasleek bi entsegu egin zituzten Amaia antzokiko arduradun teknikoarekin. Bigarren fasean, LMHko seigarren mailako ikasleak Amaia antzokira gerturatu dira bertako instalazioak modu didaktikoan ezagutzeko asmotan. Horretarako, antzoki-

ko arduradun teknikoaren laguntzaile Andoni Zubiagarekin izango dira. Jardura hori apirilaren 4tik 6ra izango da. Hirugarren fasean, HHko, LMHko eta DBHko antzerki talde profesionalen emanaldiak izango dira; guztira, zazpi emanaldi. Eta horiek guztiak apirilaren 25ean, maiatzaren 3an, maiatzaren 9an eta maiatzaren 25an izango dira. Azkenik, laugarren fasean, Jon Zubiaga eta Olatz Pagaldai aktoreak DBHko eskolara joango dira antzerkia jakintzagai bezala duten ikasleekin beraien antzerki eskarmen-tua partekatu eta ikasleen galderari erantzutera. Fase hori maiatzaren 16an eta 18an izango da.

Jardunaldien helburuak

Ikasleak antzokira eraman eta aktibitate horren alderdi hezgarri zein ludikoak ezagutzera eman nahi dituzte. Horrez gain, antzokiaren agertokiaren atzeal-

dea nolakoa den erakutsi gura diete ikasleei. Xede nagusietako bat kultur transmisio eta aisia ere bada, baita balioetan oinarritutako hezkuntza helaraztea ere.

Jasotako laguntza

Hainbat dira jardunaldi horiek ahalbidetu dituzten eragileak.



Ikasleak Amaia antzokiko agertokian. GOIENA


Batetik, Udalaren Kultura Sailako azpiegitura den Amaia antzokia. Eta, bestetik, antzokiko arduradun tekniko zein kultur laguntzaileen parte hartzea.

Haiei esker posible izan da entseguak egitea, obraren muntatzea, soinua definitzea eta bisita didaktikoaren gaineko arduramateria.

DEBAGOIENEN LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK



MAIALEN IARZAREN IBILBIDEA



Maialen larza arrasatearrak ibilgailuen Elektromekanika erdi-mailako zikloa bukatu eta goi-mailako Automozio zikloa ikasten hasi da, Aretxabaleta Lanbide Eskolan. Egun, tailer mekaniko baten lanean ari da, ikasketak eta lana uztartuta.

Oraindik ere badira maskulinizatutako sektore batzuk, eta horietako bat ibilgailuen arloa da. Nolatan ikasi duzu Ibilgailuen Elektromekanika?

Betidanik gustuko izan dut ibilgailuen mundua, eta lehenago ikasi ez banuen, lotsagatik izan da. Ikasgelako neska bakarra izan naiz urteetan, baina oso gustura egon naiz.

Zein izan da zure ibilbidea?

DBH amaituta, Batxilergoan hasi nintzen, baina, gustuko ez nuen, erdi-mailako beste ziklo bat ikasteari ekin nion. Aukeraturako ikasketekin ere ez nuen asmatu, eta, azkenik, benetan gustuko nuenari heldu nion. Hau da, ibilgailuen munduari.

Erdi-mailako zikloa amaituta, goi-mailakoarekin jarraitzea erabaki zenuen... Bai, ikasten jarraitzearen, baina, egun, jardunaldi osoz lanean ari naiz tailer mekaniko batean, eta ez da erraza izaten ari ikasketak eta lana bateratzea.

Lanbide Heziketari buruz zer esango zenuke?

Lanerako prestatzen zaituen ikasketak dira, gerora beharko dituzun gauzak erakusten dira. Teoria eta praktika tartekatzen dira. Teoria nahiko ezagutu behar da, oinarri bat ematen dizute, praktiketara joan aurretik.

Praktiketan, zer moduz?

Oñatiko tailer batean egin nituen praktikak, autoak konpontzen, piezak aldatzen... Praktikak bukatzean, pena hartu nuen. Asko ikasten da.

Lana nola aurkitu duzu?

Eskolako lan-poltsara hainbat lan eskaintza heltzen dira, eta bertatik aukeratu ninduten. Izugarriko suertea izan dut: gustuko ikasketak egin eta, gainera, lanean hasi!

'Zuk merezi duzulako' erosketa txartelak apirilaren 30era arte

Aurtengo maiatzaren 31ra arte Arrasateko saltokietan trukatu ahal izango diren 40 euro arteko erosketa txartelak jarriko ditu zirkulazioan laster Ibai-Arte, apirilaren 30era arte. Bezeroek erosketa egiterakoan jakingo dute sarituak izan diren edo ez, datafonoek inprimatutako tiketari bitartez. Izan ere, horietan, *Zuk merezi duzulako Ibai-Arte Erosketa Txartelak* mezua agertuko da. Erosketa txartelen banaketa, maiatzaren 6an, zapatua, izango da Seber Altube plazan, 13:30ean, eta ezinbestekoa da saria jasotzeko bertara joatea eta jaso den zigilutako erosketa-tiketa banaketa-gunean aurkeztea.

San Felipe Apostoleko ohiko batzar orokorra apirilean

San Felipe Apostol Elkarlaguntza Elkartek apirilaren 30ean egingo du ohiko batzar orokorra. Atzerapenaren arrazoia txosten aktuarialak izan dira; izan ere, Eusko Jaurlaritzarekin probisio teknikoak ebaluatzeko irizpideak zehaztea falta zaie. Eta horien zain daude. Txosten barik egoera-balantzea ezin dutela itxi diote bazkideek, ezta auditoretza osatu ere. Batzar orokorra egin eta bertan aurrekontua onartu ondoren, maiatzaren 2017ko kuotak pasako direla esan dute. Informazio eguneratua jasotzeko euren webgunea bisitatzeko gonbita egin dute elkarteko bazkideek: www.sanfelipeapostol.com.



GOIAZ! 2017
Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 26an eta 27an
Kulturaten, Arrasaten

[f](https://www.facebook.com/goiazdebagoiena) [i](https://www.instagram.com/goiazdebagoiena) [y](https://www.youtube.com/goiazdebagoiena) [goiazdebagoiena](http://goiazdebagoiena.com)



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA





Txikiak Eskolarteko Abesbatzen Topaketan. ARIZMENDI IKASTOLA

Eskolarteko Abesbatzen Topaketa izango da bihar

Eskolarteko Abesbatzen Topaketaren 29. aldian, bakea izango da ildo nagusia, eta, beraz, gaiarekin lotutako abestiak eskainiko dituzte hainbat eskolako haur eta gaztetxoek. Ekitaldia bihar izango da, arratsaldeko bostetan, Amaia Udal Antzokian

Ane Vitoria ARRASATE

Amaia Udal Antzokian elkartuko dira aurten ere Abesbatzen Topaketan parte hartuko duten sei taldeak. Horietako lau ikastolakoak bertakoak izango dira eta gainerako biak, Oñatikoak. Arizmendi Ikastolako Umezaintza, Gazteluondo, Almen eta Gaztelupeko gaztetxoak izango dira eta Oñatitik, Urgan Eskola eta Txantxiku Ikastola.

Bi abesti eskolako

Guztira, 12 kanta entzuteko aukera izango da biharko topaketan; izan ere, eskola bakoitzak bi kanta eskainiko ditu. Eta horiek guztiak ikus-entzule guztiei egongo dira zuzenduta. 250 haur inguruk parte hartuko dute topaketa horretan eta hasiera emango diotenak txikiak izango dira. Hala ere, adin guztietako haurrak ikusi eta entzun ahal izango dira; txikiak 4 urte eta nagusiak 15 urte dituzte; hau da, Haur Hezkuntzatik hasi eta

DBHko ikaslez osatutako taldeak taularatuko dira.

Bakea gai nagusi

Eskolarteko abesbatzen helburuak asko dira. Batetik, kantu zaletasuna bultzatzea; hots, haurra edota gaztea oholtzaren gainean talde baten kide sentitzea eta, era berean, bere ahotsa musika tresna berezi baten parte dela jakitea. Bestetik, musikaren bitartez balioak sustatu daitezkeela ohartzea; batez ere, bizikidetzeta eta elkartasuna. Urtero, balio baten inguruko hausnarketa egiten da topaketa horretan eta, aurtengoa bakea da. Hori horrela, zapatuan haur eta gaztetxoek abestuko dituzten kantak gai horrekin lotura du-

SARREREN PORTZENTAJE BAT CHRYSALLIS ELKARTEARENTZAT IZANGO DA

tenak izango dira, hala nola elkartasuna eta berdintasuna lantzen dutenak, hain zuzen. Besteak beste, entzungai izango diren abestiak honako hauek dira: *Agur bat, lagun maite!*, *Amigos para siempre*, *We are the Children*, *Xalbadorren Heriotza*, eta abar. Gainera, giro alai eta politarekin amaitzeko, topaketa bukaeran Mikel Laboaren *Txoria txori* abestuko dute topaketa horretako parte hartzaile guztiak.

Aurtengo laguntza

Sarrerak hiru euroren truke lortu ahal izango dira egunean bertan Amaia Udal Antzokiko leihatilan. Urtero bezala, sarrekin jasotako %25 elkarte batera bideratuko da, eta aurten, adingabe transexualen familiei laguntza eskaintzen dien Chrysalis Elkarteari eskainiko zaio. Horregatik, elkarte ordezkariek batek zapatuko topaketan oholta gainean jasoko du ikastolaren diru laguntza hori.

"Gure fantasiei hegoak jartzea gustatzen zaigu"

MAIDER ALZELAI IPUIN KONTALARIA

Doke antzerki taldeko aktorea eta ipuin kontalaria da

Ane Vitoria ARRASATE

Ordizian jokatu zen V. Ipuinen Ahozko Narrazio Lehiaketako finalean izan zen Maider Alzelai, eta hirugarren postua lortu zuen arrasatearrak.

Nolako esperientzia bizi izan zenuen leihaketan?

Esperientzia berria izan da, lehiaketa batera aurkezten naizen lehenengo aldia baita hau. Hala ere, oso ondo sentitu nintzen. Lehiatzeko garaian ez hainbeste, intentzioa ez zelako honetan izena ematea. Baina Numanzia Rojar txiletar narratzaile profesionalaren ikastaroan izan nintzen eta izena ematera animatu ninduten.

Noiztik zabilta ipuin kontalari?

Nire semea jaio zenean hasi nintzen honetan, eta orduan ikusi nuen ipuinek duten indarra. Politikak direla ohartu nintzen eta momentu hartan hasi nintzen ipuin kontaketa. Geroago, lagun batekin elkartu eta ipuin antzeztuak kontatzen hasi ginen. Geroztik, boluntario bezala ipuin asko kontatu ditut ikastolatan zein jailetako saio ezberdinetan.

Nola ematen dizkiezu zure ukitua ipuinei?

Ipuina gustatu egin behar zaizu, hori da funtsezkoena. Gero, hura landu behar da, sentitu eta zurea egin; ipuin barruan sartu behar zara. Gainera, ipuin guztiak egitura bat daukate eta horiek identifikatu egin behar dira, forma eman behar zaie; behintzat, hori da nik egiten dudana. Hala ere, horren guztiorren



Maider Alzelai. MAIDER ALZELAI

atzean lan handia dago, ipuina barneratu eta entseguak egin behar dira eta.

Zein da ipuinen erakargarritasuna?

Denoi gustatzen zaigu amestea, gure fantasiei hegoak jartzea, eta ipuinek hori egiteko gaitasuna dute. Ipuin bat entzun edota kontatzerakoan, gure errealitatean onartuta ez dauden gauza asko onartzen dira. Amestu, pentsatzen duzuna esan, pertsonaia batekin identifikatu... asko dira ipuinek dituzten gaitasunak. Magia horretan datza, eta, gainera, bakoitzak era ezberdinean sentitzen du ipuinek duten mezua. Hori da, nire ustez, alderdirik politena.

Ipuin kontalari bezala, zein da zure hurrengo urratsa?

Nire ipuin saioak liburutegi ezberdinetan eskaintzea gustatuko litzaidake. Poliki-poliki nire bidea egitea, hain zuzen.

Liburuaren Egunaren harira, hainbat motatako ekitaldiak

Liburuaren Eguna apirilaren 23an izango da, eta, egun horren ospakizuna luzatu nahian, Arrasateko Udal Liburutegiak hainbat ekitaldi prestatu ditu martxoetik maiatzera bitartean. Horiek era ezberdinetakoak izango dira, hala nola umeentzako ipuin kontaketa, ikusizunak, liburu aurkezpenak, txotxongilo ikastaroak, eta abar.

Egitasmo horiei ipuin kontaketa batek eman die hasiera, Xabier Olasoren eskutik atzo 18:30ean eskaini zena eta 3 eta 8 urte bitarteko familiei zuzenduta zegoena. Hala ere, gutxi falta da bigarren egitasmorako; horretan, Juan Kruz Igerabidek idatzi berri duen *Ez Lemaio: Arrasateren erreketak* liburuaren aurkezpena egingo da. Ekitaldi hori Arrasateko Udal Liburutegiko Jokin Zaitegi gelan izango da apirilaren 6an, osteguna, arratsaldeko zazpitan.

Zaldibarko Txapelketari eusteko ahalegina

Zabalik dago Zaldibarko Txapelketako "aro berrirako" izen-emate epea. Betiko formatuari eusteko talde nahikoa ez izateak eragin du aurten txapelketarik egon ez izana, baina antolatzaileak formatu laburragoko lehiaketa egiteko gogoz daude

X.U. ARRASATE

Aurtengo Zaldibarko Txapelketa ez da, urtero moduan, udazkenean hasiko –duela hamarkada batzuk ohitura zen torneoa Maritxu Kajoiko asteburuan hastea; eta zapatu goizeko partiduak ikustekoak izaten ziren-. Oraingoa, berriz, apirilaren 22an hasiko dute, baldin eta talde

nahikoez izena ematen badute. Eta izena ematen duen talde kopuruaren arabera erabakiko dute ze formatu izango duen.

Izena, apirilaren 10era arte

Txapelketan izena emateko hirlaren 10era arte egongo da aukera. Horretarako, taldearen izena eta kontakturako telefono

bat ematearekin batera, 150 euro jarri beharko dira talde bakoitzeko. "Izen-ematea hiru erataraino egin daiteke: mezua idatzita zaldibarkofutbitotxapelketa@gmail.com helbidera; Facebook bidez txapelketako orrian, edota antolatzaileetako bati zuzenean komentatuta", adierazi dute. Behin txapelketa hasita, anto-



Artxibo erretratuan, bi jokalarik Zaldibarko futbolaren. IMANOL SORIANO

latzaileek aurreikusitako partiduak astebururo jokatuak dituztela, salbuespen batekin, San Juan jaieran ez dute partidurik

programatuko. Eta argitu dute: "Taldea nahikoa izena ematen ez badu ez da torneorik egongo; horrenbestez, animatu!".

Lider jarraitzen du Mondratek, hiru jardunaldiren faltan

Mondrateren joan den asteko garaipena oso garrantzitsua izan zen -3-1 Euskaldunaren kontra-. Izan ere, aurreko bi jardunaldietan galdu eta gero, bigarren dagoen Iurre puntu batera gerturatuta zegoen. Bolada txar hori etenda, Mondratek hiru jardunaldi ditu lehenengo postu horri eusteko. Gaur (21:30) Lezon jokatu dute Jaixkiren kontra.

Ford Mugarrik azken sailkatu Tolosa hartuko du Iturripen

Bost partidu jarraian irabazi ostean, Ford Mugarri Arrasate eskubaloitzaile taldeak hirugarren posturaino egin du salto. Hala, geratzen diren bi partiduetan hori izango da helburua, txapelketa postu horretan amaitzea, Corazonistas atzean utzita. Asteburuan, azken sailkatu Tolosaren bisita izango dute Iturripen (Zapatua, 18:00).



ARRASATE PILOTA TALDEA

Udaberri txapelketan irabazle!

Udaberri Txapelketako finalean garaipen ederra lortuta (22-21 Lazkaoren kontra), kadete mailako pilotariek Arrasatera ekarri zituzten txapelak. Infantilak, berriz, oraingo zapatuan Antzuolan jokatu dituzten Eskola Arteko Txapelketako finalerako sailkatu dira.

III. ARRASATE - UDALATX MENDI LASTERKETA

21 km + 1250 m
 Irteera: 10:00
 2017/04/02
www.mondraitz.eus

Babesleak:

Languntzaileak:

2.000.000 euro pasako aurrekontu proposamena

laz egindako parte-hartze prozesuan ezarri ziren lehentasunak eta beharrak kontuan hartuta, 2.021.586,85 euroko aurrekontu proposamena egin du Aramaioko Udal Gobernuak, "funtzionatzen duten gauzak" mantendu ahal izateko, alkatearen arabera

Eneko Azurmendi ARAMAIO

"Herritarren lehentasunak eta beharrak" kontuan hartzen dituen parte-hartze prozesu bat egin zuen iaz Aramaioko Udal Gobernuak, eta prozesu horren emaitzak kontuan hartuta landu du 2017rako jardunerako udal aurrekontu proposamena, Lierni Altuna alkatearen esanetan. "Iaz egin genuen parte-hartze prozesu bat, herriko beharrak zeintzuk diren jakiteko, eta lehentasunak ezartzeko. Hori kontuan hartu dugu, baita diru laguntzak eskatzeko orduan ere", azaldu du.

Zentzu horretan, prozesua bera parte-hartzailea izan dela azpimarratu du alkateak. Izan ere, "aurrekontuak parte-hartzaileak izatea nahiko zaila da, aurretik eskatzen diren diru laguntzek markatzen dutelako asko. Beraz, egin duguna da herrian dauden beharrak kontuan hartu". Hala, alkateak adierazi du herritarren nahiak eta beharrak jasota ditzutela dagoeneko. "Orain, exekutatzeko gelditzen da".

Askotariko eskaerak

Behar edo lehentasun horiei dagokienez, herrian mota guztietako eskaerak daudela ohar-tarazi du Altunak: "Baso munduan eskaerak ditugu, ganaduzaleek ere euren eskaerak egiten dizkigute, eta horiei guztiei erantzuten saiatu gara, gure txikitasunetik; izan ere, ezin dugu nahi dugun beste eta nahi dugun erritmoan egin".

Gureia auzoko lanak

Kontuak kontu, aurtengo aurrekontu proposamena, iazkoarekin alderatuta, txikiagoa da -iaz 2.033.107,87 euroko aurrekontuan onartu zen-.

Kopuru osoa txikitzeko arrazoia da Gureia auzoan egiten dabiltzan lanen finantzaketari dagokion zati handiena 2016ko aurrekontuetan inputatu zela,



Gureiako lanak. ENEKO AZURMENDI

alkatearen esanetan. "Lan hauen finantziarioan egon den aldaketak markatu du kopurua".

Izan ere, iaz, 2016an, Arabako Foru Aldundiak 435.171,67 euroko laguntza onartu zuen Gureia auzoan euri urak bereizten dituen saneamendu sarea, elektrizitatea, kale argiteria, telefono kanalizazioak eta zoladura proiektuari dagozkien obrak egiteko. Laguntza hori, ordea, bi fasetan jasoko du Aramaioko Udal Gobernuak: 2016an 224.331 euro jaso zituen eta 2017rako, berriz, 210.840,67 euro jasoko dituela dago aurreikusita.

Lanok Excavaciones Arrasate SL enpresari esleitzea aho batez onartu zuten udalbatzako bi alderdiek -EH Bildu eta EAJ-, abenduko osoko bilkuran. Hala, abenduaren 26an sinatu zuten lanen kontratua Udalak eta enpresak eta hilabete geroago, urtarrilaren 26an, hasi zituzten

"HERRITARREN BEHARRAK JASOTA DITUGU, ORAIN EXEKUTATZEA GERATZEN ZAIGU"

obrak. Bestalde, 2017ko auzolanerako eta obra txikietarako diru laguntzak eskatzea ere onartu zuten abenduko osoko bilkura hartan.

Orain, esandako moduan, lanen bigarren eta azkeneko fasea gauzatzea da Aramaioko Udalaren asmoa, eta, nahiz eta aurtengoa egin beharreko inbertsioa iazkoa baino txikiagoa izan, Udal Gobernuak 2017rako aurreikusitako inbertsio nagusia Gureiako lanek jarraituko dute izaten.

Ezustekorik ezean

Azken ordukorik ezean, Aramaioko Udal Gobernuaren proposamena atzo, eguena, lantzekoa zen, martxoko osoko bilkuran, eta, ezustekorik egon ez bazen, behintzat, onartu ere onartu zuten, EH Bilduk udalbatzuan daukan gehiengoa kontuan hartuta.

"INBERTSIO NAGUSIA GUREIA AUZOKO LANEK JARRAITUKO DUTE IZATEN 2017. URTEAN ERE"



Aramaioarrak Legutio Korrika ailegatzeko gertu. XABI URZELAI

Aramaioarrek jada egin diote ekarpena aurtengo Korrikari

Atzo, eguena, abiatu zen 20. edizioa, eta zazpigarren kilometroa izan zen aramaioarrek parte hartu zutena

E.A. ARAMAIO

Korrikaren 20. edizioa ez da Aramaiotik pasatuko aurtengoa. Udalak, baina, zazpigarren kilometroa erosi du -Otxandio eta Legutio artean-, herritarren izenean. Hala, Legutiora autoz abiatu ziren hainbat herritar eta aipatutako kilometroa egin zuten. "Legutiora autoz iritsi ginen, eta, ondoren, oinez joan ginen elkarrekin, trikitilariz lagunduta, kilometroa hasi behar genuen lekura", adierazi du Rosa Mondragonek, Euskara teknikariak. "Korrikalari batzuk aseguratuta egin genituen, normalean korrika egiten dutenak, eta petoa haiek eraman zuten", dio.

Korrikaren aldarrikapena orokorra dela adierazi du Mondragonek. "Korrika da modu bat herritarrok euskararen inguruan biltzeko, euskara kalera ateratzeko eta, nolabait, gogora ekartzeko euskara presente dagoela,

bai Aramaion, baita gure egunerokotasunean ere", dio. Hala ere, azpimarratu du Aramaion euskararen egoera ez dela bate-re txarra. "Ezagutza %80tik gorakoa da, eta, nahiz eta dakigun guztiok ez dugun behar beste egiten euskaraz, erabilera ere %60tik gorakoa da".

Gaur, Korrika Jaialdia

Korrika Txikiarekin hasiko dute gaurko eguna. "Aurtengoan ere ez dute huts egingo San Martin eskolakoek, eta bazkalostean Korrika Txikia egingo dute", azaldu du Mondragonek.

Arratsaldean, berriz, Korrika Jaialdia egingo dute frontoian, 18:30ean hasita. "Herriko hainbat taldek hartuko dute parte ekitaldian, eta nork bere ikusizuna eskainiko du".

Domekan, 18:30ean, Korrika eta Gutik zura dokumental proiektatuko dira, kultura etxean.

Lagun Artean dantza taldekoak Zuraide herrian egon dira

Lagun Artean dantza taldeko zortzi pertsona Lapurdiko Zuraide herrian izan ziren pasa den asteburuan eta Ezpeleta herria ere ezagutu zuten.

Bi herrien arteko harremana orain dela hiruzpalau urte sortu zen eta orduz geroztik aramaioarrak pare bat aldiz izan dira Zuraiden, eta hangoak ere izan dira hemen.

Egonaldiaren helburu nagusia hango dantzak ikastea izan zen, batik batik. Zapatuan eta domekan entseguak egin zituzten hango zein hango dantza ikasleek, Amadeo Arretxea irakasleak zuzenduta.

Esperientzia polita izan dela adierazi dute bertan izan diren dantzariak. "Asko disfrutatu dugu hango dantzak ikasten. Gainera, Zuraideko euskal komunitateak oso ondo hartu gaitu eta biziki eskerrak ematen dizkiegu guztiagatik".



Astelehenean egin zuten finalaren prentsurrekoa, Gasteizko Printzipal antzokian bertan. ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Urduritasunak airean, biharko finalaren atarian

Bihar, zapatua, 17:30ean izango da Arabako Bertsolari Txapelketako final nagusia, Gasteizko Printzipal antzokian, eta bertan parte hartuko duten bi aramaiorak egun handia iristeko irrikaz daude, maila ona eman eta saio txukuna egiteko gogoz

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Serapio Lopez, Asier Otamendi, Oihane Perea, Iñaki Viñaspre, Manex Agirre eta Xabi Igoa. Horiek dira biharko finalean parte hartuko duten sei bertsolariak, azken biak aramaiorak.

Ez Manex Agirre, ezta Xabi Igoa ere. Bietako bat ere ez da gutziz gustura gelditu egindako txapelketarekin. "Lehenengo saioko potoak eta puntuazio baxuak asko markatu nau eta ordutik hona ez naiz gustura sentitu", dio Agirrek, eta Igoak ere antzeko sentazioak ditu. "Lehen finalerdian, estu ikusi nuen nire burua, nahiz eta kantuan nahiko ondo egin. Bigarren saioan, nire burua aurkitu ezin ibili nintzen", dio.

Kontuak kontu, finalerako txartela lortu dute biek ala biek eta orain arte egindakoak ez die askorik balioko. Benetan inporta duena biharko saioa izango da eta aramaiorak gogotsu daude eguna iristeko. "Orain bi urte izugarritzko plazera izan

zen finalean bertsotan egin ahal izatea eta aurten plazer hori errepikatzeko aukera izango dut", dio Igoak. Agirrek, berriz, final handia iristeko "irrikaz" dagoela aitortu du.

Finalistek nabarmendu dute seikotean izan den transmisioa. Izan ere, belaunaldi ezberdinetakoak dira eta batzuk besteen irakasleak izan dira. Agirre, adibidez, Igoaren irakasle izandakoa da eta elkarrekin abesteko aukera izango dute bihar.

13 bertso puntuagarri

Hamahiru saio puntuagarri egin beharko dituzte finalistek: binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko nagusian; binaka, gaia emanda, hiruna bertso ha-

marreko txikian; bakarka, hasierako puntua emanda, bina bertso zortziko txikian; binaka, gaia emanda, hiruna bertso seiko motzean; bakarka, gaiari bina bertso doinu eta neurri librean; buruz burukoan sei bertso puntuagarri; binaka, gaia emanda, hiruna bertso *Iparragirre abila dela* doinu eta, bukatzeko, kartzelako lana. Azken horretan, bakarka, gaia emanda, hiru bertso nahi duten doinu eta neurrian abesteko dituzte bertsolariek.

Sarrerak Printzipal antzokiko leihatilan, webgunean edota telefonoz lortu ahal izango dira: bazkideek hamar euro, 16 urte-tik beherakoek bost eta gainerakoek hamabost.

Bertsokatu Txapelketa

Bestalde, eguaztenez, Paula Amilburuk eta Peru Abarrategik Bertsokatu Txapelketako finala jokatu zuten, Gasteizen, bakoitza bere bikotearekin –bikoteka da txapelketa hau–. Bietako inork ezin izan zuen irabazi.

AGIRRE IGOAREN IRAKASLE IZANDAKOA DA ETA ELKARREKIN ABESTEKO AUKERA IZANGO DUTE BIHAR



NIRE USTEZ

PAULA AMILBURU

Kontzientzia

Aurreko batean, momentu umiliagarri bat bizi izan nuen. Pisura bi saltzaile etorri zitzaizkidan, izena jarriko ez diodan gas konpainia batekoak. Hasieratik jarrera defentsibo bat hartu izanak ez zidan ezertarako balio izan. Badakit zer esango edo egingo zuten askok: atea muturren aurrean itxi. Baina nik ezin. Ia konturatu gabe –nahiz eta ni konturatu– etxe barruan neuzkan, eskusa kutre bat medio. Total, bata eta bestearen hitz jarioarekin kontratu bat sinatzen bukatu nuela.

Zein gogorra den zu *timatzen* daudela argi izan eta ezin duzula ezer egin jakitea. Bata ea mutila neukan galdezka, ea ez nintzen Mondrako batez fidatuko, etab. Bestea, bitartean, kontratua betetzen, ni ohartzera, dena prest izateko. Ni kontziente nintzen estratagemak erabiltzen zebiltzala, baina nire *ontasunak*-edo ez zidan utzi atzera egiten. Etxetik alde egin zuten momentuan buruan neukan: "Ai, ama! Eta orain zer? Nola ostia aterako naiz honetatik?". Bueno, bizitzan denetatik ikasi behar da, eta hori egin dut: jada ez diot inori atea zabalduko.



SAN MARTIN ESKOLA

Herri Curriculumuma landuz

Duela urtebete inguru sortu zen Aramaioko Herri Curriculumuma lantzeko taldea, Aramaioko Eskolak, Udalak eta hainbat familiak osatua. Testuinguru horretan, San Martin eskolako Haur Hezkuntzako bost urteko gelan lan berezia egin dute aurten gai honekin lotuta, eta pasa den egubakoitzean antzerki batekin aurkeztu zituzten emaitzak, kultura etxean.

Herriko hiru pilotarik finalak jokatu dituzte asteburuan

Batetik, Arabako infantil A mailako finala jokatu du bihar Markel Arriolabengok, Gasteizko Ogeta pilotalekuan, 11:00etan. Arkaitz Eskuzaren kontra. Bestalde, Udaberri Txapelketan, Jon Herrartek –gazte maila– eta Ander Axpek –senior maila– binakako finalak jokatu dituzte gaur, egubakoitzea, 18:30ean, Ogeta pilotalekuan haiek ere.

CHC enpresako bezeroek doan izango dute aseguru

Lasaitasunaren aseguru izenekoak 750 eurorainoko elektrizitate fakturak ordaintzen lagunduko die bezeroei, egoera haueko batean egonez gero: langabezia, aldi baterako ezintasuna, ospitaleratzea eta ustekabeko beste egoera batzuk, istripu baten ondoriozko heriotza eta ezintasun iraunkor absolutua, hain zuzen ere.



Korrika batzordeko kideak, petoak jantzita, gertu, lekukoa Aretxabaletara datorrenetako. MIRARI ALTUBE

Ekitaldi asko Korrikaren etorrera girotzeko

Korrika batzordeak egitarau dotorea gertatu du lekukoa iritsi aurreko egunak girotzeko. Gaur eta bihar hainbat ekitaldi izango dira; besteak beste, kantu poteoa, mendi irteera eta bertso emanaldia. Era berean, gogorarazi du bazkarirako izena eman behar dela

Mirari Altube ARETXABALETA

20. Korrikak atzo hasi zuen ibilbidea, Otxandion, eta hurrengo zapatuan, apirilaren 8an, iritsiko da Aretxabaletara. Herriko ikastetxe, elkarte eta erakunde askok eskuratu dituzte kilometroak, hamabost inguruk, eta noiz etorriko zain daude. Etorrera hori girotzeko ekitaldi mordoak izango dira egunotan.

Orkatzategira mendi irteera

Lan eta lan jardun dute azken asteotan Korrika batzordeko kideak, eta orain, etorrerarako gogotsu daude: "Herritarrak ere gogotsu egon daitezten gura dugu, eta, horretarako, herria girotuko dugu hemendik eta datorren zapatara artean", jakinarazi dute. Gaur arratsaldean materiala saltzeko denda jarriko dute, eta ondoren kantu-poteoa izango da. Gauean, osteran, Ane Labak eta Beatriz Egizabalek *Erradikalak gara* bertso-antzerkia eskainiko dute.

Bihar, zapatua, Orkatzategira mendi irteera egingo dute; Urkuluko aparkalekuan (iturri alboan) elkartuko dira 09:00etan irteteko, eta 11:30ean, talde argazkia aterako dute tontorrean,

txalapartariak girotuta. 19:00etan, osteran, Korrikaren aldeko pintxo-potea izango da.

Bazkarirako izen-ematea

Lehenengo, Korrika Txikiaren txanda izango da; hurrengo egubakoitzean, apirilaren 7an, 10:30ean egingo dute ikastetxetako neska-mutikoen Pausoka haur eskolatik abiatuta. Eta arratsaldean, kontzertuekin girotuko dute herria.

Apirilaren 8a izango da egun handia, eta goizean goiz hasiko dituzte ekitaldiak dianarekin, buruhandiekin, dokean jokatu eta beste hainbat konturekin. Korrika 13:30 inguruan pasatuko da eta ostean, bazkaltzeko elkartuko dira herritarrak. *Zuk ekarri zuk jan* bazkaria antolatu dute; antolatzaileek sagardo kupela, mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte eta norberak eroango du bazkaria. Horretarako, baina, aurretik izena eman beharra dago udaletxe zaharrean edo euskara@loramendielkartea.eus helbidean; azken eguna apirilaren 6a da. Bazkalostean jaiak jarraitu egingo du; erromeria izango da lehenengo eta gero kontzertuak Pagaldaixenean.

Egitaraua

Martxoak 31

- 18:30 Korrika denda udaletxe zaharrean.
- 19:30 Kantu-poteoa.
- 22:00 *Erradikalak gara* bertso emanaldia, udaletxe zaharrean.

Apirilak 1

- 09:00 Orkatzategira mendi irteera Urkuluko aparkalekutik.
- 19:00 Pintxo-poteoa.

Apirilak 7

- 10:30 Korrika Txikia.
- 19:00 Kontzertuak Pagaldaixenean: Ihara&Alberdi eta Trigger.

Apirilak 8

- 10:00 Diana, dokea, dantza, buruhandiak, argazki erraldoia...
- 13:45 Korrika badator!
- 14:30 Bazkaria eta erromeria
- 19:00 Musika Pagaldaixenean: Jasan, D-skarga, AZ Gaubelak...

"Edozein izan daiteke biktima eta edozein erasotzailea"

ELI MORENO PSIKOLOGOA, FAMILIA BITARTEKARIA ETA SEXOLOGOA

T. Madina/M. Altube ARETXABALETA

Guraso Foroak gonbidatuta, Eli Moreno izan da astean *bullying*-aren gainean argibideak ematen. Datorren martitzenean, hilaren 4an, bigarren saioa egingo du Arkupen, 18:00etan.

Bullying berba asko zabaldu da, halako egoerak gero eta sarriago gertatzen direlako?

Batez ere da halako egoerak errazago identifikatzen direlako eta gehiago salatzen direlako.

Nola jakin bullying kasu bat den edo nerabeen arteko liskar bat?

Bullying kasuan, botere desoreka dago, denboran luzatzen den menpekotasun egoera bat izaten da. Bigarren kasuan, momentuko kontu bat da eta biek dute erantzuteko gaitasun berbera. Bata zein bestea izan, esku-hartze bat egin beharra dago, arazo bat dagoelako.

Gurasoek samur identifikatzen dute?

Gurasook onena nahi dugu gure seme-alabendako, eta kasu batzuetan asko larritzen gara. Zelan jakin *bullying*-a den? Adi egonda: seme-alaben jokabidea aldatu egin bada, aurretik izaten ez zuen jarrerak baditu... Zer gertatzen den aztertu beharko genuke eta horren arabera erantzun. *Bullying*-a dela esatea ez da ona, ez gure umearendako, biktima bihurtuko genukeela, ezta erasotzailea dela esaten dugun ume horrentzat ere.

Zerk sortzen du bullying egoera bat?

Gure gizartea asko aldatu da, komunitatearen indarra galdu egin da: "Ni nirearekin eta bes-



Eli Moreno Aretxabaletan. M.A.

teari gertatutakoak bost". Bestetik, teknologia berri asko dugu eta informazio mordoak jasotzen dugu, baina ez dakigu zelan kudeatu hori. Irakasleen autoritate galtzea ere izan da, eta rola asko aldatu dira azken urteotan. Hortaz, egoera konplexuan bizi gara eta zaila da ondo bideratzea. **Edozein izan daiteke biktima eta edozein erasotzailea?** Bai; egia da hainbat ikerketak esaten dutela erasotzaileek jorkaera agresiboak izaten dituztela, baina, orokorrean, edozein izan daiteke. Gainera, aurreiritzietatik eta estereotipoetatik ihes egin behar da.

Zein izaten da gurasoen kezka nagusia?

Nola moztu egoera, baina beti biktimaren ikuspegitik. Eta seme-alaba erasotzailea izanez gero zer gertatzen da? Hori oso gutxitan pentsatu ohi da.

Rebeka Ubera legebiltzarkidearen hitzaldia martitzenean

EH Bilduko legebiltzarkide Rebeka Ubera izango da datorren martitzenean, apirilak 4, 18:30ean, EHBilgunean.

Bizitza aktiboa, osasuna eta herrigintza leloarekin hainbat gai landuko ditu elgetarrak; egungo bizimoduaren gaineko kontuak, esaterako: "Gizartea eraldatzeko gure bizimodua ere eraldatu beharra dugu; bizitza

aktiboko eredua bultzatuz, betiko eta mugatutako kirol ikuspegitik harantzago joanez", diote Aretxabaletako EH Bilduko ordezkariak, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte.

Hitzaldi honekin, bukaera emango diote *Atx* komunitateko kideek abian jarritako hitzaldi zikloari. Aurretik landu dituzte hirigintzaren gaineko kontuak eta hezkuntza proiektuen gaineko hausnarketak. EH Bildukoek iragarri dute gai eta ideia berriekin bueltatuko direla.

26. Literatura Astea poesiari eskainitakoa

Eguaztenean hasi ziren lantzen olerkia Kurtzebarri eskolako ikasleak, eta Pello Añorga idazlearen bisita izan zuten orduan. Apirilaren 5ean, ostera, Irakur Maratoia egingo dute, urtero lez, eta, ekimena bukatzeko, hainbat hizkuntzatan irakurriko dituzte poesiak

Mirari Altube ARETXABALETA

Olerki loreak, abanikoak eta arbolak egiten dabilta egunotan Kurtzebarri eskolako ikasleak, baita euskal olerkigileen biografiak eta obrak lantzen ere. Izan ere, eguaztenaz geroztik, poesia ardatz duen 26. Literatura Astearen sartuta daude buru-belarri.

Pello Añorga idazlearen bisita izan zuten eguaztenean, eta Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bosgarren mailetakoekin elkartu zen kontu-kontari jarduteko. Aretoan txoko berezia eskaini diote, hain zuzen, Oiarzungo idazleari. Truke azoka ere egin dute astean, eta ikasleek zein gurasoek trukatu dituzte han liburuak.

Irakur Maratoia

Urtero egiten duten Irakur Maratoia datorren eguaztenean izango da, apirilaren 5ean. Aretoa irakurketarako txoko bihur-



Pello Añorga lehenengo mailako ikasleekin eguaztenean. MIRARI ALTUBE

tuko dute eta han elkartuko dira ikasleak, irakasleak, gurasoak, eskolako langileak eta herritarrrak. "Ekintza berezi bat egiten dugu urtero egun horretan, eta aurten, poesiak hainbat hizkun-

tzatan irakurritu emango diogu amaiera Literatura Asteari. Hizkuntza mordoa daude herrian eta gure ikastetxean, eta ilusio handia egiten digu ekitaldiak", adierazi du Gurutze Urrutiak.

"Oso olerki politak dituzte umeentzat poesia egiten duten idazleak"

GURUTZE URRUTIA IKASKETABURUA

Literatura Astearen antolatze lanetan dihardu Urrutiak.

Eskolan ondo errotutako astea da, ezta?

Bai; ilusio handiarekin hartzen dugu eta beti apirilean egin Liburuaren Nazioarteko Egunaren bueltan.

Eta gai bat hautatzen duzue lantzeko.

Bai, ardatz bat hartzen dugu eta ikastetxe guztiak hori lantzen du astebetean; autorea, generoa edo obra bat izan ohi dira.

Aurten poesia hartu duzue ardatz, zergatik?

Gutxitan lantzen den generoa da, zaila den fama ere badu eta.



M.A.

Orain dela urte batzuk landu genuen Karmele Igartua omenduaz, eta orain berriro heltzea horri erabaki dugu. Umeendako poesia idazten duten idazleak egon badaude, oso olerki politak egiten dituzte

eta umeengana iritsi egiten dira, gainera, horien bidez.

Pello Añorga idazlea gonbidatu duzue...

Bai, orain dela lau bat urte ere egon zen eta harekin izan ziren neska-mutikoez oraindik gogoan dute Añorgarekin egindako saioa.

Garrantzitsua da idazle eta umeen arteko hartu-emanak?

Bai. Lehen Hezkuntzan asko irakurtzen dute eta garrantzitsua da umeek ikustea liburu horren atzean pertsona bat dagoela, hurbilekoa.

Irakurzaletasuna osasuntsu dagoela esango zenuke?

Bai. *Bularretik mintzora* egitasmoarekin gabiltza gu Haur Hezkuntzan eta familian lantzen da. Lehen Hezkuntzan, ostera, astero egiten da dinamizazio bat eta horrek asko laguntzen du.

Garazi Estebezek Gipuzkoako Txapelketa irabazi du

Txirindulari txapelketa Deban jokatu zuten joan den zapatuan eta Xubane Garai hirugarrena izan zen

M.A. ARETXABALETA

Lehen urteko kadete diren Garazi Estebez eta Xubane Garai aretxabaletarrek Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten joan den zapatuan Deban. Ogiberri taldeko Estebez lehenengo geratu zen eta Eroski-Dorletako Amako Garai hirugarren. Lasterketa xelebreia izan bazen ere, aretxabaletarrek bikain ibili ziren, Arritxu Iribar kirol kazetariaren esanetan.

Estebezen ibilbidearen berri eman du haiei jarraipena egin dien Iribarrek: "Pistan hasi zuten denboraldia azaroan, eta, maila

oso ona eman ondoren, Espainiako kopa ere lehiatzen ari da Euskadiko selekzioarekin. Errepidean Ibaetako kriteriumean korritu zuen mutilekin, baina beste lasterketa guztiak neskekin egin ditu eta erakutsi du erreferente izango dela kadete mailan".

Garaik, ostera, beste ibilbide bat izan du: "Mutilekin ari da lehiatzen, eta lehenengoz Tafallan korritu zuen nesken lasterketa; mutilen eta nesken lasterketak oso ezberdinak dira, baita mailak ere, adin berekoak izan arren fisikoki ezberdinak direlako".



DESOREKA

Kattalin Linazisoro bigarrena

Desoreka judo klubeko Kattalin Linazisorok bigarren postua lortu zuen zapatuan Hernanin jokaturako Gipuzkoako eskolarteko txapelketan: "Denboraldi txukuna egin du", jakinarazi du haren entrenatzaile Markel Urrutiak. Datorren domekan Euskal Herriko txapelketan hartuko du parte, 48 kiloz azpiko kategorian.

Valleko kondearen gainerako erakusketa eguaztenean hasita

Valleko kondea, modernitatea eta tradizioa; garai aldaketa baten isla erakusketa zabalduko dute Arkupeko aretoan datorren eguaztenean, apirilaren 5ean. Ignacio Murua Alzolaren, Valleko kondearen, argazkien erakusketa da, hain zuzen ere. Argazkiek XIX. zein XX. mendeetako eguneroko bizitza erakusten dute.

Nesken futbol topaketa egingo dute bi egunetan

Neskei bideratutako futbol topaketa antolatu du Arizmendi Ikastolak, UDAREN, Real Sociedad fundazioaren eta Udaleren laguntzarekin. Apirilaren 10ean eta 11n izango da, Ibarra futbol zelaian, Realeko entrenatzaileek gidatuta, eta 3. eta 6. maila arteko neskek elkartu gura dituzte. Izena emateko epea zabalik dago (arizmendi.eus).



Iazko Gaztekonkisen gaztetxo parte-hartzaileak bazkaria prestatzen. GOIENA

Gaztekonkis egitasmoa nerabeen gozamenerako

Hirugarren urtez egingo da udaberriko Gaztekonkis, Aste Santuko lehen egunetan; naturaz eta sukaldaritzaz disfrutatu ahal izango dute parte hartzen duten 12 eta 17 urte bitarteko gaztetxoek eta etzi, domeka, da bertan izena emateko azken eguna

Amaia Txintxurreta ARETXABALETA
Aretxabaleto eta Eskoriatzako gaztetxoek Aste Santuko lehen egunetan izango dute zertaz gozatu herrian. Izan ere, hirugarren urtez, udaberriko Gaztekonkis aisialdi egitasmoa egingo da, eta, lagun artean, primeran pasatzeko aukera izango dute izena ematen duten 12 eta 17 urte bitarteko nerabeek.

Mendian eta sukaldean

Apirilaren 10ean, Gaztekonkis mendian egingo dute egun osoan zehar (10:00-18:00). Mendi irteera bat antolatu dute Urkulun zehar, eta, ibilbidean, hainbat proba gainditu beharko dituzte parte-hartzaileek.

Hurrengo egunean, apirilaren 11n, 11:00etatik 17:00etara bitartean, ekintza nagusia ginkana bat izango da, eta, proba ugari bitartez, bazkarirako osagaiak eta tresnak lortu beharko dituzte parte-hartzaileek. Ondoren, Iturrigorri frontoian prestatuko dute bazkaria eta han jango dute.

Gero, argazki emanaldia eginda bukatuko da lehiaketa.

Taldeetan banatuta

Gaztekonkisen parte hartzeko, gutxienez, bost eta gehienez sei laguneko taldeak osatu beharko dira, eta, talde horiek mistoak baldin badira, puntuazio handiagoa emango zaie.

Hiru sari banatuko dira

Hiru sari egongo dira: talde irabazleak Hontza Extrem abentura parkera joateko sarrerak eta afaria eskuratuko ditu; bigarren postua lortzen dutenek Baskonia ikustera joateko sarrerak jasoko dituzte; eta talde eredugarriena izaten denak, berriz, afaria irabaziko du.

Izena emateko epea

Apirilaren 2a, domeka, izango da izena emateko azken eguna; interesa duten gaztetxoek Gaztekonkisan eman behar dute izena, eta Internet bitartez ere egin daiteke izen-ematea.

Begiraleak udalekuetarako

Goiena komunitatea

Loramendi / ARETXABALETA

Uztailaren 3tik 21era bitartean egingo ditugun udalekuetarako begirale taldea osatzen gabiltza, Loramendin, beraz, nahi izanez gero, curriculumak eta ziurtagiriak algara ludotekan edo Loramendi elkartearen bitartez, edo aisia@loramendielkartea.eus helbidera bidali apirilak 3 eta 12 bitartean. Derrigorra da, euskara eta bertako euskalkia ezagutu eta erabiltzea eta 18 urtetik gora edukitzea. Horretaz gain, kontuan hartuko da, hurrekin aisialdian esperientzia izatea, begirale titulua...



Aretxabaletan eskainiko duten Drag-e antzezlaren une bat. LOGELA MULTIMEDIA

Logela Multimediaren 'Drag-e' antzezlana zapatuan ikusgai

Antzerkia, dantza-koreografiak, bideo-animazioak, musika eta robotika tartekatzen ditu ikuskizunak

A.T. ARETXABALETA

Bilbon estreinatu zen hilaren 19an, arrakasta handiz, *Drag-e*, familia guztiari zuzendutako antzezlana multimedia, eta Aretxabaletan bihar, zapatua, egingo dena bigarren izango da.


Hainbat diziplina tartekatzen dira ikuskizunean; besteak beste, antzerkia, dantza-koreografiak, bideo-animazioak, musika eta robotika. Ikuskizunean parte hartzen dantzaria eta aktorea ikusi ahal izango dira, baita manipulatuzaileek zuzenean telegidatuko dituzten bi robot ere. Erronka teknologiko berri horiei

aurre egiteaz gain, Logela Multimediaren helburua da antzezlaren dialogoak eta dramaturgia indartzea. Horretarako, Dejabu Panpin Laborategiko kideen laguntza jaso dute.

Zaraia aretoan izango da, zapatuan, 17:00etan, eta sarrerak 3 euro balioko du.

Etorkizuneko istorioa

Mezu ekologista dauka antzezlana eta 2800. urtean kokatzen da. Lurrean azken mendeetan gertatutako aldaketan oinarrituta, bizitza desagertzeko zorian egongo dela ikusi ahal izango da.



UDA

Lasagabaster eta Zugasti nagusi

Udaberri Txapelketa irabazi dute Ibai Lasagabasterrek eta Haritz Zugastik. UDAko pilotarietako partidu dotorea jokatu zuten eta Ordiziako bikotea mendean hartu 22-15. Partidu parekatua izan zen, eta, Jon Etxeberria entrenatzailearen hitzetan, aurkariak "gogorrak" izan ziren. Hala ere, motibatuta kantxaratu ziren UDAkoak eta garaipena lortu zuten.



Izaera arriskutsudun moduan erregistratuta dagoen Iban Martinez herritarraren Morgul txakurra Atxorrotxen. IBAN MARTINEZ

Erregistratu bakoei isunak

Izaera arriskutsudun txakurrak dituzten jabeek erregistratu egin behar dituzte beraien animaliak. Hori ez egitearren, 2016ko azaroan bi isun jarri ziren Eskoriatzan, eta beste bi isun jarriko direla adierazi zen martxoko osoko bilkuran; isuna 300 euro da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Martitzenean martxoko ohiko osoko bilkura izan zen udalbatzan, eta jorratu zituzten galetako bat arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko arau-hauste administratiboengatik zigorrak jartzea izan zen. Herriko bi pertsonak jaso dituzte isunak, eta bakoitzak 300 euro ordaindu beharko ditu. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeko lizentzia ez zutelako abisua jaso zuten; kasurik egin ez, eta horregatik isuna.

Aurrekarie erreparaturik, abenduan egindako ezohiko osoko bilkuran ere arau-hauste berengatik isunak jarri zizkien Udalak bi herritarri, izaera arriskutsuko txakurrak dituzten jabeek beharrezko dokumentuak ez izateagatik. Esan beharra dago kasu bereziak izan zirela.

"Hainbat aldiz abisatuta zeuden, eta atentzioa hainbat bider eman arren, ez zuten kasurik egin", adierazi zuten osoko bilkuren aretoan. Oraingoan ere, berdina gertatu da, txakur-jabeei abisua eman, kasurik ez dute egin, eta 300 euroko isuna jaso dute biek.

Paperak behar bezala

Izaera arriskutsuko txakur-jabeek hainbat agiri aurkeztu behar dituzte udaletxean, udal erroldan inskribatzeko. Horrez gain, izaera horretako txakurrak izateko lizentzia eskaera ere bete behar da, hainbat baldintza beteta.

HERRIAN, IZAERA ARRISKUTSUEN MULTZOKO 17 TXAKUR DAUDE ERREGISTRATUTA

Lizentzia eskuratzeko, aurrekari penalen ziurtagiria aurkeztu behar da, jabeak aurrekaririk ez duela egiaztatzeko, nortasun agiria, eskatzailearen bi argazki berri, eskatzailearen gaitasun fisiko eta psikologikoa egiaztatzeko agiria, erantzukizun zibileko aseguru-poliza eta poliza horren ordainagiria, animalia erroldatu zeneko inprimakia eta zinpeko aitortpena.

Legea betetzeko eskaera

Eskoriatzan, izaera arriskutsuen multzoan sartzen diren 17 txakur daude erregistratuta, eta, Andoni Azkarate udaltzainaren esanetan: "Herrian ez dago arazorik. Halako txakurrak dituzten herritarrei erregistratzeko eskatzen diegu, beste barik. Bi isun izan berri dira, baina, normalean, halako txakurrak ekarri bezain pronto tramitatzen hasten dira...".

"Txakurrak libreki ibiltzeko ez dago gunerik Eskoriatzan"

IBAN MARTINEZ HERRITARRA

Iban Martinez eskoriatzarrak *American bully* motako txakurra dauka, arriskutsuen multzoan sartzen dena. Udal erroldan inskribatuta dauka txakurra, eta lizentziaren jabe da; hala ere, beste hainbat gauzak kezkatzen dute; bereziki, herrian halako txakurrekin aritzeko gune faltak eta txakur-kaken inguruan ikusten duen problematikak. **Arriskutsua izan daitekeen txakurra daukazu; hala da, arriskutsua?**

Bai; uste dut txakur guztiak izan daitezkeela arriskutsuak, multzo batekoak izan edo besteak. Normala da ezagutzen ez diren

txakurren artean istilutxoak...

izatea. Hala ere, txakur-jabeek zer esan asko dute hor; izan ere, txakurra nola dagoen hezita garrantzitsua da.

Jarri al dizute isunik?

Ez, baina edozer gauza gertatuz gero, beharrezkoa da agiriak behar bezala izatea. Beharrezko tramite guztiak eginda dauzkate, noizbait zerbait gertatuz gero...



GOIENA

Herrian ba al dago gune librean txakurrekin aritzeko lekurik?

Ez, lotuta eta muturrekoarekin eraman behar ditugu txakurrak, baina hauek libreki ibil daitezten ez dago gunerik herrian. Egongo balitz, kexa gutxiago izango lirateke.

Txakur-kakak ere arazo al dira herrian?

Nik beti jasotzen ditut txakur-kakak, baina herrian leku guztietan ikusi daitezke, belardietan zein kaleko edozein lekutan. Behin, belardi batean, batekin irrastatu eta txakur-kaka baten gainera erori nintzen. Ez zait justua iruditzen batzuek jasotzea eta beste batzuek ez jasotzea, amorrua ematen dit. Bestalde, txakurrek euren zeregina egiteko bi gune daude herrian, nik dakidala: kanposantuz azpiko bidegorrian bat, eta bestea unibertsitate atzealde inguruan. Bidegorriko zakarrontzia, gainera, hautsita dago. Herrian halako gune gehiago beharko liratekeela uste dut.

Hainbat gai ohiko osoko bilkuran

San Pedro auzoko 16 eta 17. zenbakietako jabeekideek eta Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatzea erabaki zuten osoko bilkuran, etxebizitzetako arkupeetan irisgarritasun obrak egiteko; bestalde, erosketa eta kontratazio berderako udal-politika garatzeko Irabazik sustatutako ekimena aho batez onartu zen.

Galde-eskeen tartean, EH Bilduko Aitor Zubizarreta bozeramaileak errauskailuaren gaia atera zuen mahai gainera, eta horrek eragin zuen Gobernuaren eta oposizioaren arteko eztabaidarik handiena. Erraustegiak Eskoriatzako herriari ekar diezaiokien gastuez arduratuta, EH Bilduk horren gaineko informazioa eskatu zuen; horrez gain, eskoriatzarrek egiten duten esfortzua hondakinen bilketa selektiboan Gipuzkoako beste herriei ere eskatu beharko litzatekeela azpimarratu zuen, hartara zaborren arazoa modu merkeagoan konpondu daitezkeelakoan. EAJko Josu Ezkurdiak erantzun zion, besteak beste, zaborren gestioaren kompetentzia GHK eta Diputazioarena dela: "Beraz, hitz egiteko foroa ez da Mankomunitatea, baizik eta Batzar Nagusiak". Eta zera gaineratu zuen: "Hor ez daukagu problemarik hitz egiteko. Nahi duzunean, han gure ordezkariak daude, beste alderdi politikoen ordezkariak, eta nik uste dut politikoki iritzi guztiak errespetatzekoak direla, baina behin gizarteak eta behin erakunde publikoak hartutako erabakiak errespetatzekoak dira".



Duela bi urte, Eskoriatzatik Aretxabaletara bidean Korrika. GOIENA

Korrikaren bueltan, Atxorrotxera igoera

Apirilaren 8an, zapatua, pasako da Korrika Eskoriatzatik. Motorrak berotzen joateko, hainbat ekintza antolatu dituzte, hala nola Atxorrotxera igoera, Joxe Mari Agirretxeren eta Olatz Altunaren 'Herrigintzaz eta irrigintzaz' hitzaldia, Korrika Txikia...

Imanol Beloki ESKORIATZA

Atzo hasi zen 20. Korrika, Otxandion, eta apirilaren 8an, zapatua, pasako da Eskoriatzatik 14:00 aldera. Egunerako ekintza mordoa prestatu dituzte Eskoriatzako Korrika batzordeko kideek. Hala ere, eguna iritsi aurretik, izango dira motorrak berotzen joateko hainbat ekintza.

Lehen hitzordu nagusia Atxorrotx mendira igotzea izango da. Ederlan Kooperatiba Elkar-teak antolatu du eta animatzen direnek hiru ibilbide ezberdin egin ditzakete: oinez -5,1 kilometro-, arineketan -11,2 kilometro- eta bizikletan -14 kilometro-; ibilbide guztien irteera Ederlanen izango da.

10:00etan hartuko dute parte-hartzaile guztiek Atxorrotxerako bidea. Oinez irtengo direnek Ederlan-Eskoriatza-Atxorrotx bidea egingo dute eta 460 metroko desnibel positiboa egingo dute. Arineketan joango direnek, berriz, Ederlan-Arkarazo-Bolibar-Atxorrotx bidea

egin beharko dute, 777 metroko desnibel positiboa eta 331 metroko desnibel negatiboa aurretik izanda. Azkenik, bizikletan egingo dutenek: Ederlan-Bolibar-Leixargarate-Atxorrotx 768 metroko desnibel positiboa eta 308 metroko desnibel negatiboa egin beharko dute. Amaitzeko, ekitaldia izango da, eta bertan, Korrikaren aldeko mezua irakurriko dute. Horrez gain, musika eta luntxa ere izango da denentzako.

Euskararen erabilera neurtuz

Bestalde, Udalak eskatuta eta Soziolinguistika Klusterrak zuzenduta, Eskoriatzako kaleetan euskaraz zenbat egiten den neurtu dute Ixotu euskara taldekoek,

**ESKORIATZAN
EUSKARAZ ZENBAT
EGITEN DEN
NEURTUTA, EMAITZAK
EMANGO DITUZTE**

eta datorren egunean, apirilaren 6an, emaitzen berri emango dute Zaldibar antzokian, arratsaldeko zapietan.

Datu horiek eman ostean, Joxe Mari Agirretxek -Porrotx- eta Olatz Altunak -Soziolinguistika Klusterreko teknikaria- *Herrigintzaz eta irrigintzaz* emanaldi umoretsua eskainiko dute.

Korrika Txikiarekin ongietorria

Apirilaren 7an, egubakoitzean, Korrikari ongietorria emateko, herriko ikastetxeetako haurrekin Korrika Txikia egingo da. 10:30ean hasita, Haur Hezkuntzako haurrek eliza paretetik Herriko Plazarainoko bidea egingo dute. Ondoren, LHkoek Jose Arana zaharren egoitza, Antsoategiko biribilgunea, Sorautz, Sanjuan kalea, Dorleta auzoa, Aranburuzabala eta Herriko Plaza ibilbidea egingo dute.

22:30ean, berriz, Inkernun Txalainak taldearen kontzertua izango da; Hertzainak taldearen bertsoak egiten dituzte.



Derbian harmailak bete-beteta izan ziren. IMANOL SORIANO

Lehenengo derbia irabazi du Eskoriatzak UDaren aurka

Euskal Ligako taldeen arteko norgehiagoka 3-0 amaitu zen; Eskoriatzak lehen aldiz garaitu zuen Aretxabaleta

I.B ESKORIATZA

Harmailak inoiz baino beteago izan ziren, derbian, Manuel Muñoz kiroldegian. Partidu ederra espero zuten ikusleek, baina lehen gola iritsi arte ez zuten hain joko ona ikusteko aukerarik izan.

Bigarren zatian, berriz, golak iritsi ziren -Ibabe bat eta Urrak bi-, eta, hala, ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten ikusleek lehen golaren ostean. Oraingo asteburuan Erandiotarrak taldearen aurka lehiatu beharko dute, eta, liga amaitzeko lau partiduren faltan, irabazi beha-

rra daukate. Izan ere, aurkariak, bost puntu gehiagorekin, eskoriatzarrak baino postu bat gorago daude sailkapenean.

Emakumeak mailaz igo

Emakumezko seniorrak, berriz, denboraldi bikaina egiten ari dira aurrean, eta hurrengo jardunaldian atsedendia izango dute, indarrak hartzeko. Hala ere, sailkapenean hirugarren postuan daude, eta, lehenengo laurak mailaz igotzen direnez, eginda dute guztia. Hala ere, bi partiduren faltan, biak irabazi nahi dituzte denboraldia borobiltzeko.



MIRARI ALTUBE

Kirmen Uribek Zaldibar bete du

Kirmen Uriberen hirugarren eleberriak -*Elkarrekin esnatzeko ordua*- Karmele Urresti eta Txomin Letamendi senar-emazteen historia kontatzen du. Benetako gertakariak dira eta, hain zuzen, 36ko gerra aurreko belaunaldiaren borroka islatu du bertan. Liburuaren berri eman zuen eguaztenean Zaldibar antzokian. (Puntu-n 24-27 orrialdeetan elkarrizketa irakurgai)

"Nire burua harritzera joango naiz finalera"

OIHANA ARANA BERTSOLARIA

Gipuzkoako Bertso Eskolen Eguna eta Eskolarteko finala jokatu da Azpeitian domeka honetan, eta han izango da Oihana Arana bertsolari eskoriatzarra

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gipuzkoako Bertso Eskolen Eguna eta Eskolarteko finala Azpeitian jokatu da domeka honetan, apirilaren 2an. Zortzi bertsolarik abestuko dute bertan, eta Debagoienetik bi izan dira sailkatu direnak: Urko Arregi oñatiarra eta Oihana Arana eskoriatzarra. 15 urteko bertsolari eskoriatzarra "pozik eta gogotsu" dago finalerako, eta irabazteko gogoz azaldu da.

Eskolarteko finala jokatu duzu domekan; gogotsu?

Gogotsu nago. Espero nuen gauza bat da, baina urduri nago, alde batetik; izan ere, nire lehen finala izate horrek urduritasuna sortzen dit. Bestalde, lagun artean kantako dugunez, lasaitasuna ere ematen dit.

Lehen finala, baina hainbat plaza-tan hainbat bertso kantatutakoa?

Kantatu izan dut plazan, baina txapelketetan inoiz ez naiz gailendu eta aurten finalera noa; beraz, esperientzia berri bat... Taldekako batean izan nintzen, baina bakarka egingo dudan lehenengoa da.

Zure ahizpa Haizea ezin izan da sailkatu; penaz?

Altzon jokatu zen kanporaketan geratu zen, eta pena da, baina azken batean, azken entrenamenduetan asko laguntzen dit,



Oihana Arana. I.S.

eta modu bat izango da bertan ere egon dadin.

Gipuzkoako txapeldunak eta txapeldunordeak ekainaren 10ean Saran jokatu den Euskal Herriko Eskolartekoan kantatzeko aukera izango dute; hori lortzeko helburuarekin?

Nire helburua, txapelketan, nire burua harritzea da, zertarako kapaz naizen jakiteko. Irabazten badut, ondo, eta ez badut irabazten, ere bai. Eskolarteko txapelketa gozatzeko plaza da, presio barik aritzeko eta lagunartean disfrutatuta beharreakoa.

Finalak, beti final; geratu zara inoiz zer esan ez dakizula?

Egia esan, ez daukat oroitzapen txarrik isilik geratu izanarena. Behin edo behin trabatu-eta egin izan naiz, baina beti jarraitu izan dut bertsoarekin. Espero dut oraingoa ez gertatzea...

Zortzi finalista; nor da faborito?

Finala arraro geratu da. Ez genuen inork hala geratuko zela pentsatzen.

Zein ezaugarri behar dira bertsolari ona izateko?

Lasaitasuna da beharrezkoena, eta zure burua kontrolatzea trankil egonda. Izan ere, eserita zaudete, jende askoren aurrean... kontzentrazio puntu batera heldu beharra dago.

Zein arlotan ikusten duzu zure burua ondoen?

Bakarkakoan hobea naizela esango nuke, baina txapelketan, kanporaketa fasean, hobeto aritu naiz ofiziokoa.

Txikitatik bertsoen inguruan mugilduta; hala ere, bertso eskolan aritzea beharrezkoa da?

9 urterekin hasi nintzen bertso-tan Aretxabaletako Lekaixoka bertso-eskolan, eta han segitzen dut. Eskoriatzako Hankamotx bertso-eskolan, berriz, eskolak ematen ditut. Beharrezkoa dela uste dut, eta, bertsoan egiteko, egin egin behar da.

Aritz Zubia txapeldun

Leniz Pilota Eskolako Aritz Zubiak –eskoriatzarra– eta Mikel Etxezarretak –arrasatearra– Gipuzkoako bigarren mailako eskuz binakako txapelketa irabazi zuten pasa den egubakoitzean Oñatin. Hurrengo erronka Gipuzkoako lehen mailara igotzea eta bertan sorpresa ematea dutela helburu adierazi du Aritz Zubia pilotariak –eskuinetik bigarrena–.



ARITZ ZUBIA

LEINTZ GATZAGA 23

Leintz Gatzagako Gatz Museoa, lurraldeko hamabi onenen artean

'TurismoVasco.com' atari espezializatuak argitaratu duen zerrendan agertzen den Debagoieneko bakarra da

Maite Txintxurreta LEINTZ GATZAGA

Turismoan espezializatutako *TurismoVasco.com* atariak asteon kaleratu duen artikulua batean, Leintz Gatzagako Gatz Museoa Gipuzkoako hamabi museorik onenen zerrendan sartu du.

San Telmo museoarekin edota Pasaiaiko Albaola itsas lantegiarekin batera dago zerrenda horretan, hamabigarren postuan. Zerrendako Debagoieneko museo bakarra da. Museoko arduradun Aitor Larrañaga pozik azaldu da aitortzarekin: "Guretzako, horrelako aipamenak lanaren errekonozimendua dira, eta zabalduan laguntzen digute".

Horrez gain, oso-osorik museoari eskainitako beste artikulua luze bat kaleratu dute, baita Jakion janari enpresari buruzko beste bat ere, bertako eta sasoiko produktuen ekoizpena gorapatuta.

Izan ere, Larrañagak azaldu du atari horretako kazetaria Leintz Gatzagan izan zela, herriak eskaintzeko zeukana ezagutzera etorrita. Hala, Gatz Museoa eta Jakion ikusi, bertako produktuen dastaketa egin, herria ezagutu eta Soran jatetxean bazkaldu zuten.

Bertso afariak borobilduko du Korrika apirilaren 8an

Hurrengo zapatuan, apirilaren 8an, igaroko da Korrika Leintz Gatzagatik. Bazkalorduan izango da hori, 14:35 aldera. Leintz bailaratik sartuko dira korrikariak aldapan gora. Lehenago, baina, 12:00etan, neska-mutikoez Korrika Txikia egingo dute, betiko moduan.

Egun osoko egitaraua izango da. Hala, 21:00etan, puntako bertso afaria izango da Soran Etxean. Onintza Enbeita eta Andoni Egaña arituko dira bertsoan, afari gozo baten bueltan. Bada, afari horretara joan nahi dutenek txartelak eros ditzakete dagoeneko. Soran Etxean bertan dauzkate salgai, bakoitza 22 eurotan.

Larrañagak azaldu du herriaren gastronomiaren inguruko turismoa bultzatu nahian dabilzela, eta arlo horretan duten eskaintza ezagutarazten; alegia, jate-txeak, Gatz Museoa eta Jakion. Era berean, nabarmendu du nahi beste denbora igarotzeko moduko herria dela Leintz Gatzaga, denetarik egin daitekeelako bertan: mendi bueltak, bazkariak, bertako landetxeetan edo Gaztainuzketako etxeetan lo... Azken finean, Larrañagak ondo dioen moduan, "aukera bat hiriburuetako eguneroko bizitzatik atera eta Erdi Aroko hiribildu bat ezagutzeko".

Museoko labea salgai

Gatz Museoarekin jarraituz, Udalak salgai jarri du bertan dagoen beheko sua edo labea.

Hasierako salneurria 3.000 euro izango da, eta erosi nahi dutenek prezio hori hobetu ahal izango dute, enkante eran. Eskaintzak apirilaren 12a baino lehen udaletxean aurkeztu beharko dira, kartazal itxi labean. Kartazalean, eskaintzailearen datuak, helbidea, telefono zenbakia eta eskaini gura duen diru kopurua zehaztu beharko dira.

Haurrek ortuan lan egiteko eguna izango da domeka

Domeka goizerako, apirilak 2, Gurel guraso elkarteak baraztean lan egiteko jardura bat antolatu du. 11:00etatik aurrera, neska-mutikoez eta gurasoez Gurelek eta eskolak erabiltzen duten ortu txikian jardungo dute –Jakion enpresaren alboan–, lanean. Udaberria iritsi berri denez, berakatz freskoak jasoko dituzte eta tulipanak, ilarrak eta baba beltzak landutako dituzte. Haurrek baraztean nola lan egin ikastea eta naturak eskainitakoaz gozatzeko da ortuaren eta ekimen horren xedea.

Egun hori aukeratu dute, elkartearen batzarra ere egongo delako, eta, hartara, jende dezentente biltzea espero dute.

65 "Zailena egiten ari da, kalitateari eustea, formatuz eta edukiz."



JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL
Historialaria

70 "Umeekin gauza gutxiarekin ongi pasa daitekeela gogorarazten digu 'Puntua'-k astero"



JON UNAMUNO
Lokatza Ziklismo Eskolako presidentea

75 "Bailarako albisteak gertutasunez, kalitatez eta patxadaz jorratzen dituelako"



OIHAN VITORIA
Kazetaria

80 "Herriak eta herriarentzat egindako aldizkaria delako"



ANDERE ARRIOLABENGOA
Bertsolaria

85 "Beti topatzen da irakurtzeko tartetxoak; ez dauka iraungitze datarik"



OIHANE AGIRRE
Goiena Telebistako zuzendaria

90 "Aukera ematen du aktualitateko gaiak ikuspegi berritzaile batetik euskaraz irakurtzeko"



AMAIA BALDA
Emun-eko presidentea

95 "Aktualitatezko gaiak etxekoan begietatik jasotzea atsegin dut"



AINARA BORDES
Abokatua

66 "Ba, modu batean edo bestean, nire herriarekiko lotura bat sentitzeko"



TXEMI ETXEBARRIA
Orkestra zuzendaria

71 "Tokiko prentsan ohikoa dena baino begiratu patxadatsuagoa dakar 'Puntua'-k"



JON SARASUA
Unibertsitateko irakaslea eta idazlea

76 "Gurea delako, guretzat eta gure eran eginda dagoelako"



LEIRE ARANA
Irakaslea

81 "Gertutasunean oinarritu eta euskarazko albiste biziz elikatua delako"



NEREA MADARIAGA
Xaxau konpartsako kidea

86 "Aisialdirako landua, irakurterraz eta freskua, euskararentzat hauspu, eskura duzu 'Puntua'!"



GOTZON IPARRAGIRRE
Mariaren Lagundia ikastolako zuzendaria

91 "Astialdia gozagarri eta interesgarriago egiteko, inbertsio merkeagorik bada 'Puntua' jasotzea baino?"



ENEKO AZKARATE
Goienako edukien zuzendaria

96 "Tokikoa eta nazioartekoa, xumea eta berritzailea eta geure-geurea"



PELI BELTRAN DE HEREDIA
Bazkidea

67 "Modu atseginean emakumeon eskubideak indartzen laguntzen duelako"



MAITE ARISTEGI
Martxanterak

72 "Gure jarduna aurrera eramaten dugun ingurunea ezagutzeko baliagarria zait"



ONINTZE LONBIDE
Loramendiko koordinatzailea

77 "Bailarako hausnarketa, iritzi kritikoa eta askea saretzen duen puntua delako"



MARTIN JAUREGIARTZO
Elkar Heziko irakaslea

82 "Urrun barik topa daitezke gauza eta leku eder askoak"



JERARDO ELORTZA
Historialaria

87 "Paperean irakurtzeko ohitura bueltatu du gurera; berri askoren kontrapuntua da, 'puntazo' hutsa!"



DORLETA ELKOROBARRUTIA
Gurel guraso elkarteko kidea

92 "Arlo ezberdinak bertako ikuspuntu batetik jorratzen dituelako"



MERITXELL SERRATO
Dendaria

97 "Gertuko en iritzi aniztasunaz gozatuz, eguneroko erritmo bizia jaistea eskaintzen didalako"



NAROA ELORTZA
Puntuako kolaboratzailea

68 "Jendearen bizipenak eta pentsaera hitzetara ekarrita aurkitzen ditut, eta gustura irakurri"



EDORTA ARANA
EHUko irakaslea

73 "Iritzi propioa, euskalduna eta autoeratu izan dezagun aukera ezin hobea"



J. IÑAKI ETXEZARRETA
Arizmendiko zuzendari nagusia

78 "Debagoieneko komunitate osoa osatzen dugunontzat balio handiko aldizkaria da 'Puntua'"



AGURNE JULDAIN
Dendaria

83 "Osasuna ez urratzeko argibideak ematen dituelako"



AMAIA AGIRRE
Elikagaien teknologoa eta nutrizionista

88 "Irakurterraza eta ondo idatzia; istorio interesgarri eta ondo egituratuak eta argazki zainduak"



MIGUEL LAZPIUR
Lazpiur lantegiko gerentea

93 "'Puntua' aldizkari konpletoa da, kanpoko eta bertoko pentsamoldeak azalduz"



MIKEL LEZAMIZ
Soziologo erretiratu

98 "Gai interesgarriak. Kazetari legez, 'arrantzan' egiten dut 'Puntua'-n"



MARIA AGIRRE
Kazetaria

69 "Gertuko jatetxeen errezetak ezagutzeko aukera ematen du 'Puntua'-k"



AMAIA TXINTXURRETA
Kazetaria

74 "Puntuari esker, berdinak garenon hitz ezberdinak esan eta irakur ditzakegulako"



AMAIA ARROYO
Irakaslea

79 "Debagoienarrok munduan zer garen eta mundua gurean zer den ikusteko euskarazko aukera atsegina delako"



OSKAR ELIZBURU
AEKko Artezkaritzakidea

84 "Osasun kultura, kirol kultura eta bizi kalitatea suspertu eta hobetzeko gida"



ALBERTO GARAI
Kirol medikua

89 "Euskal gizartearen errealitatearen testigu eta, datozenei, egungoa ezagutarazteko tresna baliotsua"



ARANTZA OTADUY
Historialaria

94 "Idatzizkoan ideia desberdinak eta espazioak adierazteko erabiltzen den marka"



ALAITZ ARTOLAZABAL
Tokikomeko zuzendaria

99 "Informazioa eta entretenimendua, hemengoa eta hangoa, formatu erakargarrian barikuro, puntu-puntu"



MONIKA BELASTEGI
'Puntua'-ko erredaktore burua

puntua

ALDIZKARIAK
100 ZENBAKI

IRAKURTZEKO
100 ARRAZOI

100
Zeure
arrazoia.

Puntua 4.000 etxe baino gehiagotan jasotzen dute Debagoiengan.
Oraindik jasotzen ez baduzu, eskaintza berezia daukagu zuretako:
jaso astero, urte bukaera arte, 10 euro ordainduta.

LEHEN ~~49€~~ ORAIN **10€**

Eta bazkidetzen zareten lehendabiziko 100ak 100 euroko erosketa txartel baten zozketan sartuko zarete.

943 25 05 05 | goienakluba.com |  |  688 69 00 07

goienakluba[™]
Euskara irabazle, denok irabazle!

Erosoak eta atseginak diren herriak eraikiz

Euskadi Lagunkoia programaren baitan, herriko erretiratuek, Matia Fundazioaren elkarlanarekin, hiru ibilbide osasuntsu aurkeztu dituzte asteon Antzuolan. Eguenero, 10:15ean Torresoroatik abiatuko da taldetxo bat ibilbideren bat egiteko asmoz

Maidar Arregi ANTZUOLA

Landatxope elkarteko kideek bultzatuta, otsailean eta martxoan egindako irteeretan Antzuolako ibilbide osasuntsuak identifikatu dituzte.

Asteon, horietako hiru aurkeztu dituzte eta helburuak jendearekin elkartu, harremanak egin eta ohitura osasuntsuak sustatzea direla azaldu dute. "Ibilbide hauek egin ditugu ahalik eta jende gehiago erakartzeko eta animatzeko. Izan ere, badaude etxean geratzen direnak nagikeriagatik, norbait zaintzen geratu behar dutelako edo ezin dutelako. Horiei aukera eman nahi diegu etxetik irten daitezen ahal dutenean eta ohitura osasuntsuen alde egin dezaten", azaldu du Landatxopeko kide Kontxi Elorzak. "Ordubeteke zein ordu erdiko ibilbideak dira. Lau edo bi kilometrokoak. Hala, nahi duenak nahi duenean egin dezake ibilbidea. Bakoitza bere aukeren arabera".



Erretiratuek, Matia Fundazioko kideekin eta udal ordezkariekin. MAIDAR ARREGI

Herri erosoago baten alde

Antzuolan, badaramatzate zenbait urte herri erosoago baten alde lanean. Hasieran, Ttipi-Ttapa elkarteak oztipo arkitektonikoak identifikatu eta horiei konponbidea ematea bi-

deratu zuen. Orain, Euskadi Lagunkoiaren baitan, herriko erretiratu talde batek, Matia Fundazioaren laguntzarekin, iraupen eta zailtasun ezberdineko hiru ibilbide aurkeztu ditu. Matia Fundazioko osasun

teknikariek azaldu dute onura fisikoak eta psikologikoak dakartzatela horrelako ekimenek. Eta garrantzitsua dela, batez ere, hirugarren adinean une bat hartzea horrelako ekimen batean parte hartzeko.

Udalak ere ekimena positiboki baloratu du. Beñardo Kortabarria alkateak dio laguntzeko konpromisoa hartu zuela Udalak, eta, hain zuzen ere, egindako ibilbidean jasotzen dituzten beharrei erantzuten saiatuko direla. "Gaur egin dugu lehenengoz ibilbidea Euskadi Lagunkoia ekimeneko kideekin. Ibilbidean ikusitako beharrei—seinalazioa, espaloiak, bankuak—erantzuten saiatuko gara", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Eguenero irteera

Aurrerantzean eguenero egin dezakete interesa duten herritarrek ibilbidea. "Eguenetan 10:15ean Torresoroa aurrean elkartzen garenok egingo dugu ibilbidea. Herritar oro animatu gura dugu ibilbide osasuntsuak egitera", gaineratu dute Landatxope elkarteko erretiratuek.

EGUENERO 10:30EAN TORRESOROATIK ABIATUKO DIRA IBILBIDE BAT EGITEKO ASMOZ HERRITARRAK



M.A.

"Onuragarria da ibiltzea"

JANIRE AJURIAGOGESKOA OSASUN TEKNIKARIA

Erretiratuekin elkarlanean, Matia Fundazioko osasun teknikariek Antzuolako ibilbideak zehaztu dituzte.

Zein onura dakartzate horrelako ibilbideek?

Alde fisikotik onura asko dakartzate: mugikortasuna hobetu edo diabetesa ekidin daiteke. Onura psikikoak ere badituzte.

Etxetik irten eta harremanak sustatzeko aukera ona, ezta?

Taldean egiten den zerbitzu da eta etxean geratu beharrean ibiltzera eta elkartzera animatzen dira modu horretan. Lan handia egin dute erretiratuek; guk lagundu diegu eta beste herrietako esperientziak ere elkarbanatu ditugu.

Korrika Txikiari helduenak emango dio jarraipena

Apirilaren 7an, egubakoitza, makina bat ekintzaz gozatzeko aukera izango dute antzuolarrek

M.A. ANTZUOLA

Gogotsu daude antzuolarrak 20. Korrika ospatzeko. Izan ere, orain bi urte, Korrika ez zen igaro Antzuolatik. "Aukerako egun eta orduan pasako da Korrika herritik; ea dena ondo irteten den", azaldu du Euskara zinegotzi Jon Ugarteburuk. Dena prest dute eta herritarrei parte hartzeko dei egin diete antolatzaileek.

Egitarau zabala

Nahi adina ekintza eta festa izango da herritar orendako.

Hala, arratsaldeko lauretan, eskolako umeei Korrika Txikia egingo dute. Ondoren, 17:00 aldera, puzgarriak jarriko dituzte. Arratsaldean, berriz, triki-poteoa egingo dute herriko tabernetan. Eta Korrikari ongiatorria eman aurretik, 21:30ean afari herrikoia eta korrikaraokea egingo da pilotalekuan.

Afarira joateko txartelak salgai daude domekara arte, apirilaren 2ra arte, Aitz Garbin, Martin okindegian eta liburutegian—helduendako 15 euro eta haurrendako 11—.



Zozketatuko den otarra. KORRIKA

Bestalde, Iruñera joan nahi dutenentzako autobusa antolatu da eskualdean. Antzuolako geltokira 09:15ean iritsiko da apirilaren 9an. Izen-ematea Aitz Garbi tabernan izango da, 10 eurotan.

Zozketa

Korrika dela-eta produktuz betetako otarre eder bat zozketatuko dute apirilaren 7an. Gainera, herri kilometro bat ere zozketatuko dute eta lekukoa eramateko aukera eskainiko zaio sarituari.

Oraindik ez dute identifikatu zubia jo zuen kamioia

Hilerrira bidean dagoen zubia zein kamioi jo duen ikertzen ari da oraindik ere Ertzaintza. Izan ere, errepideetako kamerek grabatu zuten Zumarragatik Antzuolara bitartean kamioiak egindako ibilbidea. Irudietan kamioi bat azaltzen dela galibor-argiak jotzen jakinarazi dio Ertzaintzak Udalarari. "Momentuz, ez dakigu zein den kamioia. Ertzaintza ikertzen ari da. Kamioiak errotulazioa daramadan antzeman daitekeela irudietan dio Ertzaintzak, baina oraindik ez dutela argitu diote. Irudiak ondo begiratzeko denborarik ez dutela hartu esan ziguten aste hasieran", argitu du Beñardo Kortabarria alkateak.



Ugaitz Iturbe, Irango Urmia lakuan janaria prestatzen. UGAITZ ITURBE

"Gasolinarik gabeko bidaia egin gura nuen"

UGAITZ ITURBE ABENTURAZALEA

Bizikleta hartu eta Antzuolatik Tajikistanerainoko bidaia egin du Ugaitz Iturbe abenturazale antzuolarrak. 16.000 kilometro egin ditu urtebeteko epean

Maidar Arregi ANTZUOLA

Mendi Astearen barruan, argazki argazki aurkeztu die Iturbek herriarrei bizikleta gainean bitzako esperientzia.

Zergatik erabaki zenuen horrelako abentura batean murgiltzea?

Baneukan bidaia bat egiteko gogo. Abentura bidaia gura nuen egin, eta, aukeran, gasolina gabeko bidaia izatea gura nuen. Aukera ezberdinen artean –oinez, kanoan, zaldian...–, bizikletaz egitea erabaki nuen.

la 16.000 kilometro egin zenituen.

Bai. 15.933 kilometro egin nituen. Ez nuen, baina, biderik zuzena hartu. Italian sartu nintzen eta hiru hilabetez bidaiatu nuen. Urtebeteko bidaia izan da.

Sekulako esperientzia izango zela suposatzen dut.

Bai. Aurkezpenarako argazki guztiak biltzen eta errepasatzen, hunkitu egin naiz berriro. Esperientzia pertsonal oso *potentea* izan da.

Gehientsuenetan bakarrik ibili zara? Bidelagunik topatu duzu?

Topatu ditut bidaiariak. Kroazian mexikar batekin ibili nintzen; Grezian eta Turkian kataluniar batekin. Eta anaiak Tajikistanen zati handiena egiten lagundu zidan.

Zein helmuga zenuen?

Ingurukoentzat, Nepalera nindoan, baina ez neukan ezer itxita. Nahiago nuen ekialderantz jo eta momentuan momentuko erabakiak hartzen joan. Hala, Teheranen Txinako bisatua eskatzeko momentua iritsi zenean, Txinako mugaraino joan eta handik berriz bizikletan etxera itzultzea erabaki nuen, nahiz eta gero ez zen posible izan. Kirgizistanera igarotzeko etapa bakar bat falta zitzaidalda, tripetatik txarto, 60 kilo pisatzen nuela eta 4.000 metroko altueran pedalka egunak egin ostean, ahuleziak jota bertan gelditu behar izan nuen. Egoerari ez niola buelta ematen ikusita, furgoneta baten atera ninduten! **Eta ikusitako edo bitzako egoera gogorrena zein izan zen?**

Dudarik gabe, bukaera. Baina Kazakhstan eta Uzbekistango desertoak ere ez ziren makalak izan. Emozionalki une batzuetan uste duzu dena zure aurka dagoela, eguraldia, lo egiteko tokirik ezin aurkitu ibiltzea... baina, orokorrean, ez dut egoera oso *larririk* ikusi. Aurkitutako jendearen egoera okerrean Albanian, Europan, zegoela iruditu zitzaidan. Orokorrean, jendea oinarrizkoarekin bizi da ekialdean, baina beti dira laguntzeko prest.

Eta onena?

Jendearen harrera. Batez ere, herrialde musulmanetan. Eta momentuan-momentuan haraino nire kabuz iritsi izanaren sententzia.

Kulturalki txokea izan da?

Toki bakoitzean hamar hitz ikusita moldatzen zara. Baina ohartu naiz nirekin zati batean bidaiatu duen neskarendako musulmanen lurraldea gogorragoa izan dela. Nik, Iranen, adibidez, ez dut arazorik izan.



JOSU LARREA

Larrea eta Iglesias mus finalean

Euskal Herriko Mus txapelketa jokatu zuten antzuolarrak zapatuan Anoetan. Ezinezkoa izan zen baina aurrera egitea eta lehen kanporaketan kanpoan geratu ziren Josu Larrea eta Jabi Iglesias. Hala ere, esperientzia oso polita izan dela nabarmendu dute: "Ongi-etorria eta hamaiketako ere eman ziguten. Eguraldia txarra bazen ere, sekulako giroa egon zen".

Eskolarteko pilota finalak jokatuko dira zapatuan

Antzuolako pilotalekuan bailarako pilotari gazteak izango dira gaur eta bihar protagonistak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Gipuzkoako eskolarteko pilota finalak jokatuko dira Antzuolako pilotalekuan bihar, zapatua, 16:00etan hasita. "Gipuzkoako azken fasea bertan jokatuko da, nahiz eta Antzuolako ordezkariak finalerdietan kanporatuak izan ziren", argitu dute Olalde pilota elkarteko kideek.

Hala ere, izango da pilotakadez disfrutatzeke aukera bailarako pilotari gazteen partiduekin. "Alebin, infantil eta kadete mailetan partidu interesgarriak ikustea espero dugu".

Jarraian, jokatuko diren partiduen egitaraua. Alebinak: Txinkorta B (Bidegoian) - ZHE2 (Zumaia); infantilak: Arrasate 2 - Arrasate 1; eta kadete mailan: Eibar-Elgoibar - Oñati 1.

Baina gaur, martxoaren 31, egubakoitza, pilota partidu gehiagorekin gozatzeko aukera izango da, 19:30ean. Lau t'erdiko Udaberri txapelketaren baitan, Xabier Jauregik –lehen mailako kadete antzuolarra eta Aloña Mendi klubeko ordezkaria– Jumaiko Ostolazaren aurka jokatuko du partidua.

Euskarazko magia nahi adina trukorekin ikusteko aukera

Asier Kidam, Imanol Ituño, Tor eta Txoborro magoak euskarazko magia ikuskizuna prestatzen ari dira. Torresoroan batzen dira, goizetan, ikuskizuna prestatzeko. Asmoa da, baina, familia osoarendako magia ikuskizun aparta eskaintzea, Torresoroan bertan. Emanaldiaren data zehaztu gabe dago; baina ez dute inoloharkabe utziko.

OHARRAK

Uzarragako igoera

16:00etan hasiko da bihar Uzarragako igoera.

Ahotik Bihotzera

Domekan 13:00etan triki-poteoa; 18:30ean Torresoroan ipuin maratoia.

Batzar orokorra

Landatxopek urteko batzar orokorra egingo du 17:00etan Olanan etxean, bihar, zapatua.



EH Bilduko eta Gu Geu Elgetako udal ordezkariak Gueñes-Itsaso tentsio lerroaren trazatua aztertzen. L.Z.

Adostasuna herritarren interesak defendatzeko

Azken osoko bilkuran Gueñes-Itsaso tentsio lerro elektrikoaren ingurukoak izan ziren aztergai nagusi. Ez dela beharrezkoa iritzi diote EH Bilduko ordezkariak; bai, ordea, Gu Geu Elgetakoek. Adostu dute elgetarren interesak ahalik eta ondoen defendatzea

Larraitx Zeberio ELGETA

Goi-tentsioko lerro elektriko berriarekin lotutako bi mozio onartu zituen Elgetako udalbatzak martitzenean egindako osoko bilkuran. EH Bilduko udal taldeak aurkeztutakoa lehenengo eta EH Bilduko ordezkarien babesa jaso zuena, eta Gu Geu Elgeta udal taldeak aurkeztuta-

ko mozio alternatiboa ondoren. Kasu horretan, aho batez onartu zuten, zenbait termino negoziatu ostean.

EH Bilduk proiektuarekiko desadostasun irmoa adierazi du. Sinistuta daude ez dagoela horrelako lerro elektriko berri baten beharrik, badagoelako aurretik Gueñesko eta Itsasoko

azpiestazioak lotzen dituen 400 kilovoltetako beste lerro elektriko bat. Nabarmendu dituzte, gainera, proiektuak osasun, ingurumen, jendarte eta ekonomia ikuspuntutik eragiten dituen kalteak. Gu Geu Elgeta udal taldeak, ordea, uste du proiektua badela beharrezkoa eta prozesuaren fase honetan, gainera,

kontra egiteak ez duela eraginik izango, proiektua bera dagoeneko onartuta dagoelako. Helegiteak aurkezteko unea dela uste du oposizioak, eta, horrekin batera, Udalaren eta kaltetutako herritarren interesak ahalik eta ondoen defendatzeko unea.

Azken puntu horretan egin zuten bat bi talde politikoetako ordezkariak. Iraitx Lazkano alkateak nabarmendu zuen Udal Gobernu taldeak hainbat urrats egin dituela zentzu horretan, eta horretan jarraitzeko asmoa dagoela. "Batetik, informazio bulego bat jarri dugu martxan. Udal webgunearen zein sare sozialen bitartez ere eman dugu daukagun informazioaren berri. Bestetik, interesa izan duten herritar guztiak egin ditugu bilerak —nik pertsonalki— eta beraien lurren inguruan nahi

izan duten edozein informazio eskaini zaie. Red Electrica de Españarekin ere bilerak egin ditugu helegiteak jarri aurretik ikusteko beste zein bide jorra daitezkeen". Alkateak jakinarazi du gaiarekiko jarraipen zorrotza egiten ari direla eta helegite teknikoak prestatzen ari direla. Horiek aurkezteko epearen luzapena eskatu zuen Udalak.

Altsasuko gertakariak

Urriaren Altsasun izandako gertaeren inguruko mozioa bat ere aho batez onartu zuen Elgetako udalbatzak martitzenean. Terrorismo delitu batengatik auziperatutako gazteei elkartasuna adierazi eta prozesu hori Auzitegi Nazionalean beharrean Iruñeko auzitegian egin behar ko litzatekeela adierazi du aho batez udalbatzak.

Lurperatze zerbitzua garestiago

Hilerriko lurperatze zerbitzuaren tasa eguneratzeko erabakia ere hartu du udalbatzak. Erabakiak behin betiko onarpena lortutakoan 358,80 euro ordaindu beharko da zerbitzu hori —orain arteko prezioa 206 euro zen—. "Modu batean ematen zen zerbitzu hori orain arte eta hainbat konturengatik beste enpresa batekin egin beharra izango dugu aurrerantz. Kostua nabarmen handiago da", esan du Iraitx Lazkano alkateak. "Lehentasunezkoa ikusten genuen aldaketa ematea bestela Elgetako Udala kostatzen zaiona baino ia erdia gehiago ordaintzen egongo zen lurperatzeagatik". Lurperatze tasari dagokio eguneraketak. "Zintzilik daukaguna da hilerrian egon daitezkeen bestelako zerbitzuei ere tasa bat ipintzea, eta pixka bat ordenatzea. Adibidez, hilobitak ateratzea".

Mikel Urdangarin eta Lauroba taldea apirilean Spaloian

Hurrengo hiru asteetan zortzi egunez zabalduko dute antzokia, eta sarrerak salgai daude 'spaloia.eus' atarian

L.Z. ELGETA

Zuzeneko bi musika emanaldi iragarri ditu kafe antzokiko Xabier Ulaziak apirilera. Lauroba taldeak apirilaren 22an egingo du kontzertua. Talde donostiarrak IV izeneko diskoa aurkeztuko du. Iraupen luzeko laugarren diskoa du, eta auto-ekoizpen bidez ikusi du argia. Sarrera da 8 euro, aurrez erositakoa 6 euro. Mikel Urdangarin ere Spaloian izango da apirilean. Margolaria izeneko disko berria aurkeztuko du, apirilaren 28an. Banda formatuan dator orain-

goan zornotzarra. Rafa Rueda, Koldo Uriarte, Angel Celada, Jon Cañaveras eta Nika Bitchiasvili ditu bidelagun. Kontzertu horretarako sarrerak ere salgai daude *spaloia.eus* atarian. Prezioa 12 euro da; aurrez, 9 euro.

Antzokiaren martxari dago-kionez, Ulaziak apirilaren 23ra arteko irekiera egutegia jakinarazi du. Hurrengo hiru asteetan zortzi egunetan zabalduko du antzokia, eta Aste Santuko egunetan itxita egongo da. Ikusteko dago maiztetzetik aurrera zer gertatzen den.

Elgetan ere konexio ultra azkarra hedatzeko ekimena

Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin, operatzaileak laster hasiko dira herrian dagoen eskaera aztertzen

L.Z. ELGETA

Gipuzkoako Foru Aldundiak programa berezia abiarazi du Internet konexio ultra azkarra lurralde osora hedatzeko. 2.500 biztanletik beherako herriendako da, eta tartean da Elgeta. Arduradunek azaldu dute herritarrek ez dutela instalazioa egiteko ezer ordaindu beharko. "Aldundiak inbertsioaren %95 ordainduko du, eta gainerakoa operatzaileen esku geratuko da", adierazi dute.

Hiru fasetan egingo dute programa, eta lehen faserako za-

baldutako laguntza ildo 1.480.000 eurokoa da. Herrigunetik 500 metro baino gertuago daude eraikinei edo ustiatzei eragingo die. Bigarren fasean kilometro bat baino gertuago dauden txanda izango da, eta hirugarrenean bi kilometrorra daudenena. Lehenengo eta behin Aldundia jarriko da harremanetan dagoen herritarrekin babestutako kanpaina bat dela azaltzeko. Ondoren, operatzaileen txanda izango da. Aztertu gura dute konexio azkarra instalatzeko eskaera dagoen edo ez herrian.

OHARRAK

Odol-ateratzeak

Astelehenean, apirilak 3, izango dira hurrengo odol-ateratzeak Elgetan. Sendagile taldea udaletxean izango da 18:00etatik 20:00etara.

Azterketa teknikoak

Nekazaritza ibilgailuei azterketa teknikoak egiteko aukera izango da apirilaren 10ean, astelehena, Pagatza industrialdean, 12:00etan.

Errekreazioa

Boluntarioak behar dira, oraindik ere, Intxortako borrokaldien errekreaziorako. Faxisten tropak osatzeko behar da jendea. Udaletxean eska daitezke argibideak.

Korrikarekin bat egiteko hainbat aukera eskura

Apirilaren 7an egingo du Korrika Txikia eskolak. Txokolate-jana eta txotxongilo ikuskizuna ere iragarrita daude. Bezperan, Uemak hizkuntza-joeren gaineko tailerra egingo du Elgetan. Herritar guztiak daude parte hartzera gonbidatuta

Larraitz Zeberio ELGETA

Atzo abiatu zen Korrika Otxandiotik, eta lekukoa apirilaren 9an iritsiko da Iruñera. Korrika, aurtan, ez da Elgetatik pasako, baina elgetarrek hainbat aukera izango dituzte lasterketarekin bat egiteko: lehenengoa bihar, zapatua, Goibeko euskaltzaileen topagunearen eskutik. 25 bat lagunek eman dute izena antolatutako irteeran parte hartzeko. Goibekok Eslaba herrian hartuko du lekukoa 14:50ean, eta Korrika egin ostean taldea Zangozan antolatuta dauden ekin-tzetara gerturatuko da.

Arnasguneen inguruko gogoeta

Euskararen arnasguneei buruzko erakusketa bat eta tailer bat iragarri dituzte Udalak eta Uemak elkarlanean. Erakusketak *Euskararen arnasguneak*. *Non-dik gatoz eta nora goaz?* du izena, eta astelehenerik eguenera bitartean izango da ikusgai Herri Eskolan. Buztin gelan izango da eguenerik astelehenera.

Tailerra ere Herri Eskolan egingo dute, eguenean, 16:30etik 18:30era. *Sendotu arnasguneak* du izena, eta haurren eta helduen parte hartzea eskatzen du. Etxeko hizkuntza-joerak eta hizkuntzaren erabilaren eragina duten faktoreak identifikatu, eta horrekin batera hutsuneak nola landu aztertuko dute bertan. Herritar guztiak daude parte hartzera gonbidatuta —gurasoak, aitona-amonak, hezitzaileak, zaintzaileak...—. Ez dago ez adin tarterik ez izen-ematerik.

Elgetarrak eta Korrika 20

Herri Eskolak apirilaren 7rako iragarri du Korrika Txikia. Ikasle eta irakasle taldea 15:00etan abiatuko da ikastetxetik herrian zehar prestatutako ibilbidea egiteko. Maala guraso elkartek ere bat egingo du ospakizunarekin, eta txokolate-jana eskainiko du 16:00etan. Udalak anto-



Korrikako material salmenta, hilaren 10ean, Elgetan. L.Z.

latuta euskal mitologiako pertsonaiak oinarri dituen *Azken eguzkilorea* izeneko txotxongilo emanaldia egingo du Patata Tropicakala antzerki laborategiak, Mendizaleen plazan. Korrikarekin bat egiteko, bestalde, bi au-

tobus daude antolatuta. Bata apirilaren 8an Oñatira joateko. Udalak antolatu du eta doan da. Bigarrena eskualde mailan antolatu dute Iruñeko amaiera jaialdira joateko. Bietarako eman behar da izena aurrez.

Korrikarekin lotutako ekintzak

Zapatua, apirilak 1

- 10:00 Goibeko elkartearen irteera Eslabara Kilometroa egitera.

Astelehena, apirilak 3

- 09:00 Uemaren erakusketa Herri Eskolan hilaren 6ra arte.

Eguena, apirilak 6

- 16:30 Uemaren tailerra familiendako Herri Eskolan.

Barikua, apirilak 7

- 15:00 Korrika Txikia eta txokolate-jana.
- 17:30 *Azken Eguzkilorea* ikuskizuna Mendizaleen plazan. Horrekin batera Uemaren erakusketa ikusgai buztin gelan.

Zapatua, apirilak 8

- 10:30 Autobusa Arrasaten edo Oñatin Korrikan parte hartzeko. Doan. Izen-ematea hilaren 6ra arte udaletxean edo liburutegian.

Domeka, apirilak 9

- 9:30 Autobusa Bergararik Iruñera Korrikaren amaierako jaira. Prezioa: 10 euro. Izen-ematea hilaren 5era arte udaletxean.



Herriko hiru neska-mutiko liburutegian. L.Z.

Ipuin kontalari saio bereziak eta lehiaketa berria apirilean

Liburuaren Eguna badatorrela ohartarazteko ekintza sorta aurkeztu du Udal Liburutegiko arduradunak

Goiena komunitatea

Elgetako udal liburutegia

"Apirilaren 2ko Haur Liburuaren Eguna ospatzeko ipuinen orduko saio berezia izango dugu ostiral honetan. Ohiko bi saioak beharrean saio bakarra izango dugu eta bertan elkartuko gara adin guztietako haurrak, 17:25etik 18:00etara. Ez hutsik egin sorpresaren bat edo beste ere izango dugu-eta! Bestalde datozen asteetarako ekintza ugari antolatu ditugu. Hurbildu liburutegira eta gozatu eskaintzez!", adierazi du Udal Liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak.

Ekintza sorta

Apirilaren 23a Liburuaren Eguna da. Biharamunean, astelehena, plazara aterako ditu liburuak Ezpeletak eta Beatriz Egizabalen eta Zesar Marcosen *Kutxaka* ipuin kontalari saioa iragarri du. Bisita gidatu bereziak ere egingo ditu Herri Eskolako ikasleendako. Azkenik, *Artista liburuak* izeneko ekimenaren berri eman du Ezpeletak. Sormena lantzeko eta liburu originalak sortzeko ekimena dela adierazi du. Apirila amaitu aurretik aurkeztu behar dira lanak. Oinarriak ikusgai daude liburutegian.



ELGETAN BERBETAN

Berbalagunak Atxorrotxen

Domekan irteera bateratu egin zuten Debagoieneko 41 mintzalagunek, eta tartean izan ziren Elgetako zortzi lagun. Eskoriatzatik oinez abiatu ziren, eta patxadaz egin zuten Atxorrotxerainoko bidea. Bertan, Nafarroako erresumaren gotorleku izandakoaren gaineko azalpenak jaso zituzten eta bueltan hamarretakoa eta trikitilariak zituzten zain Eskoriatzan.

Itsaso-Gueñes lineari alegazioak, aho batez

Aireko goi-tentsioko linearen trazatua moldatu egin behar dela uste du Udal Gobernuak eta proiektua ez dela beharrezkoa, aldiz, oposizioak; hala ere, udalbatzak aho batez onartu du proiektuari helegiteak jartzea, herritarrei "ahalik eta kalte gutxien" eragiteko

Jokin Bereziartua BERGARA

400 kilowattertainoko energia garraiatzeko Gueñes-Itsaso goi-tentsioko linea elektrikoa albiste da berriro ere. Proiektua martxan jartzeko urratsak egin ari da Red Eléctrica Española, eta, Elena Lete alkatearen arabera, errealitate bihurtuko da 2018an: "Interes publikoaren izaera lortzeko tramitean dago obra, eta, luzatu digutenez, hamar hilabetetan gutxi gorabehera izaera hori hartuko luke; ordurako ere esleipen garaia ere bukatuta egongo litzateke. Hori jakinda, urtebetean edo hamalau hilabetetan gauzatu hasiko dela uste dugu".

Horregatik, "oso garrantzitsua" da, Udal Gobernuaren ustez, proiektuari alegazioak jartzea, "ahalik sakonen eta ondoen" osatuta: "Helegite horiekin bergararrei ez ezik, ingurumen zein nekazaritza arloan ahalik eta kalte gutxien izatea nahi dugu", dio alkateak. Astelehenean egingako osoko bilkuran udalbatzak aho batez onartu zuen linea elektrikoari alegazioak jartzea, baina proiektuaren beraren inguruan iritzi ezberdinak dituzte Gobernuak eta oposizioak.

"Proiektua ez da beharrezkoa"

EH Bilduk mozio bidez eskatu zuen Udala azpiegitura horren aurka agertzea, baina, Gobernuaren aurkako botoekin, ez zuen aurrera egin; EAJk eta PSE-EEk mozio alternatiboa aurkeztu zuten sarearen trazaketan zenbait moldaketa eskatzeko. EH Bilduk, berriz, ez du linea defendatzeko arrazoirik ikusten: "Autobide elektriko horren beharra ez dago justifikatua, gaur egungo sareak asetzen du dagoen kontsumoa. Horrez gain, sor ditzakeen kalteak oso larriak dira ingurumenean, paisaian eta herritarren osasunean. Alegazioekin ados gaude eta gure eskuetan dagoena egingo dugu bergararrek alega-



Gueñes-Itsaso lineari alegazioak jartzeko bozketaren unea; aho batez onartu zen. J.B.

zioak jar ditzaten, baina proiektuaren alde egoteko ikusten dugun interes bakarra da elektrizitatea Frantziari saltzea", uste du Agurte Berrusok.

Irabaziko Aiert Lizarralde bat egin zuen gai horretan EH

Bildurekin: "2011n *stand by* egoeran geratu zen mehatxua, baina orain indarra hartzen dabil; sekulako interesak daude linea horretan, eta ez dira herritarren interesak. Helburua Frantziarekin elkartrukea da".

Laguntza eskaera hiru obratarako

Osoko bilkuran hartu ziren erabaki garrantzitsuen artean, Eusko Jaurlaritzari hiru obra egiteko diru laguntzak eskatzea eta laguntza horiek jasoz gero lanok gauzatzeko konpromisoa hartzea berretsi zuen udalbatzak aho batez. Aurrekontuko partida ezberdinak hornituko lirateke Eusko Jaurlaritzaren partetik diru laguntzak jasoz gero. Lehen obra da San Martin plazarako urbanizazio proiektua idaztea. Bigarrena da Errekaldeko lorategian obra zati bat egitea. Ezin da ahaztu duela zazpi urte Citerea enpresak egindako ikerketa baten ondorioztatzen dela, besteak beste, Errekalde lorategia XIX. mende bukaeran diseinatutako Gipuzkoako lorategi bikainenetakoa dela. Orduan proiektu mardul bat garatu zen baina oso garestia zelako zatitu egin behar izan zen; erortzeko egoeran dagoen horma zatia egonkortzea da lehen zatia eta obrak laster hasiko dira. Obra horretako bigarren zatian, Errekalde jauregirako irisgarritasuna bermatuko dute. Hirugarren lan ildoak, amaitzeko, Zubietako zubia errehabilitatzea da. 2015eko diru laguntza bati esker proiektua idatzi zen eta orain, finantzaketa jasoko balitz, zubia berritzeko lanak egingo lirateke.

Bilkurako erabakian zehazten denez, diru laguntza jaso eta zortzi hilabeteko epean proiektua idatzita egon beharko litzateke eta obrek 2019ko abenduaren 31rako bukatuta beharko lukete.



NIRE USTEZ

MAIALEN MADARIAGA

Zirku-luan

Bandorik gabeko guda behar luke izan, herri oso baten erronka. Sua bizirik mantentzea beste zereginik ez duen akelarrea. Eta gu, bandorik gabeko bandidoak ginateke, osten diguten su garririk txikiena ere berriz geureganatzen. Ondo baitakigu, sua, beroa bezain galkorra dela. Eta horregatik ari garela, urteetan su honen bueltan dantzan, eta Korrika.

Euskarak behar luke gure sua izan. Guztiok behar genuke akelarre honen jabe egin, eta korrika elkarrekin aritu. Jakinik aukera guztiak posible direla honen bueltan: bere alde korrika egin, edo korrika bakarrik egin. Beragandik korrika ihesi doazenei sua maitatzen erakutsi. Gar honen testigu egin kide berriak, eta omendu su gainean korrika urteak daramatzaten fakirrak. Zirku-lu honen bueltan aritzera guztiok gara ongi etorriak, funanbulistak, sorginak, ilusionistak eta fakir handiak. Osatu dezagun zirku-lu eder bat, kanpotik begira ari diren ikusleek txalotu, errespetatu gaitzaten. Beraz, irakurle, ba al duzu arrazoirik aurtengo Korrikan parte ez hartzeko? Sasien gainetik eta lainoen azpitik, korrika egingo dugu!



SERGIO AZKARATE

Umeak bedeinkatzea tradizio

Aspaldiko ohiturari eutsiz, Angiozarko Marindao auzoko Elixamendi ermitan umeak bedeinkatu zituzten joan den domekan. Bertako irudiko Ama Birjina haurtoari bularra ematen ageri da, eta horregatik da tradizioa meza egin eta haundun dauden emakumeak zein ume txikiak bedeinkatzea. Hainbat lagun elkartu ziren, eta trikiti doinurik eta luntxiak ez zen falta izan.

Mintzanet aurkeztuko dugu apirilaren 3an Irizarren, 18:30ean

Goiena komunitatea

Jardun / BERGARA

Bada euskara praktikatzeko beste modu bat! Mintzanet ekimenaren aurkezpena apirilaren 3an Irizar jauregian egingo da (18:30). Parte hartu dezake euskara praktikatu nahi duen orok, baita euskara hitz egiten ondo jakin eta bere borondatez beste norbaiti lagundu nahi dionak. Animatu!

Koldo Eleizalderako lanak apirilaren 5era arte aurkez daitezke

Udaleko euskara zerbitzuak antolatutako Koldo Eleizalde lehiaketarako izen-ematea apirilaren 5ean amaituko da. Bergaran jaiotakoek, bertan bizi direnek edo bertan lan egin edo ikasten dutenek har dezakete parte; lehiaketetako oinarrien gaineko informazioa, honako helbide honetan: www.bergarakoeuskara.net/ koldo-eleizalde-lehiaketa.

Moda urbanoa kalera aterako dute maiatzean

Bedelkarrek antolatuta, maiatzaren 6an Street Style Gaua izeneko azoka berezia egingo dute Errotalde parkean. Modako produktu eta material berrerabilgarriak izango dira protagonista, eta, ekintza berezi bezala, jantzi lehiaketa egingo dute

M.T./E.A. BERGARA

Bedelkar elkarteak Street Style Gaua antolatu du, lehenengoz, maiatzaren 6rako. Errotalde parkean izango da azoka hori, eta bertan, nola ez, moda izango da protagonista, baita produktu berrerabilgarriak ere. Bada, azoka horren baitan, jantzi lehiaketa berezi bat antolatu dute.

"Parte-hartzaileek neutro jantzita etorri beharko dute; hau da, kamiseta zuri batekin eta praka bakeroekin. Zozketa bat egingo da, jakiteko zein dendatan hartuko dituzten arropak eta osagarriak, *look* bat sortzeko. Ondoren, pasarelan erakutsiko dute", dio

elkarteko lehendakariorde Ainhoa Garitanok.

Horretarako, 30 minutu izango dituzte lehiaketako parte-hartzaileek, eta ezingo dute saltokietako kideen aholkurik jaso. Ondoren, herritarrek erabakiko dute, boto bidez, zein den, guztien artean, *look* irabazlea.

Azoka girotua

Lehiaketa hori izango da azokako ekintza garrantzitsuena, baina, horrez gain, herriko musika talde ezberdinek osatutako kontzertu bat ere egongo da. "Bergarako musika talde batzuekin kontzertua egin gura dugu, eta taberna ere

jarriko dugu", azaldu du Garitanok.

Herriko 15 komertzioek hartuko dute parte, eta nork bere postua izango du azokan. Hain zuzen ere, postu horietan erosketak egiteko bonuak banatuko dizkiete, bai lehiaketako irabazleari, baita botoa ematen duen herritar irabazleari ere.

Izen-ematea

Lehiaketan parte hartzeko izen-ematea apirilaren 3an zabalduko da, eta, horretarako, 616 72 75 92 telefonora deitu edota *whatsapp*-a bidali beharko da, izen-abizenak eta jaiotza-data emanez.

FundAMeri laguntzeko txartel eta kamisetak salgai

Bergara eta Antzuolako IGAM taldekoek beste ekimen solidario batekin lanean dihardute. Ekainaren 17rako, muskulu atrofia espinal gaixotasuna daukan Leire Martin Pineda neska gazte bergararrari laguntzeko jaialdi berezi bat antolatu dute. Leire Martin eta bere familia gaixotasun arraro hau daukaten pertsonen FundAME elkarteko kide

dira, eta elkarte horretara bideratuko dute jasotako dirua. Egun, ez dago tratamendurik gaixotasun honentzat, baina, ikerketa zientifikoaren emaitzei esker, hemendik gutxira sendabidea izango duela espero dute.

Txartelak saltzen hasiak dira dagoeneko IGAMekoak. Bihartik aurrera, Depor tabernan kamiseta bereziak izango dira eskuragarri, eta Erramu Zapatuan, kalean ere salduko dituzte. Prezioa: umeendako kamisatak 10 €, helduenak 12 €.

Irumendi elkartearen 50. urteurrenaren gaineko hitzaldia

Hurrengo zapatuan, apirilak 8, Erramu Zapatua ospatuko da Bergaran. Egun honen bueltan antolatutako egitarauaren barruan nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotutako hitzorduak ez dira faltako. Datorren eguean, hilak 6, Irumendi elkartearen 50. urteurrena ospatzeko hitzaldi bat antolatu dute UNEDen. Unibertsitateko areto

nagusian izango da berbaldi hori, 18:30ean hasita. Hitzaldiaren izenburua; *Irumendi elkarte: Gorlako larretik kalitatezko okela sortzen 50 urtean* da. Hala, elkartearen ezagutaraztea eta bertako jardunaren errepaso egitea du helburu hitzordu honek.

60ko hamarkadan du jatorria elkarteak, nahiz eta egungo egiturarekin 1994a ezkereratu diren. Esne-behiekin hasi ziren lanean, baina, berregituraketatik hona, okeletarako behiak dituzte ogibide.

Renove Planaz gozatu!

ECHO
Maquinaria Forestal y Jardineria

Merkatuko sasi-garbitzeko makina aurreratuenen lor ezazu!

Sasi-garbitzeko zure makina zaharra ekarri eta

150 € emango dizkizugu

RM 520 ES berria erosten baduzu



comercial BRUNET

Telleria 2, Labegarieta, BERGARA. 943 76 31 52. www.comercialbrunet.com



RM 520 ES

Zilindro-bolumena:

50,20 cm³

Pisua: 12 kilo



1.080 €
BEZa barne



Eta oparia Hiru puntako diskoa



Azken 40 urteotan moduan, Errege Seminarioan jarraituko du UNED-Bergarak, herriaren bihotzean.

Iragana egokitu, etorkizunerako

UNED Bergarak Errege Seminario barruan hainbat obra egingo ditu bere jarduera akademikoaren beharrak asetzeko; jarduera hori eten gabe, aurreikusten dute 20 hilabete eta 1,9 milioi euroko inbertsioa beharko dutela lan guztiak amaitzeko

Jokin Bereziartua BERGARA

2016an 40 urte egin zituen UNED Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak Bergaran. Errege Seminarioan egon da 40 urteotan eta Zuzendaritza Patronatuak –Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxabankek eta Bergarako Udalak osatzen duen– bertan jarraituko duela erabaki ostean, eraikina unibertsitatearen jarduera akademikoaren beharretara egokitzeko obrak egingo dira laster.

Lanak, UNED-Bergarako zuzendari Iñaki Esparzak adierazi duenez, apirilean hasteko moduan egongo lirarteke. Baina obren hasierarako egun zehatza jakiteko lan horiek gauzatzeaz arduratuko den enpresa zein izango den jakin beharra dago lehenago: "Enpresarekin bilera tekniko batzuk egin beharko ditugu obrak hasi aurretik". Proiektuan hiru fase aurreikusten dira eta lehen fasea izango da astunena: "Lehen fasea udan gauzatzea espero dugu, gure jar-

duera akademikoa eteten denean. Izan ere, gure jarduera lehentsiko dugu beti". Gaur egun 1.800 ikasle ofizial inguru ditu UNED-Bergarak eta beste 1.000 inguru dituzte titulazio propioetan. "Azken urteetan beherakada bat izan dugun arren, UNED-Bergaran 3.000 bat pertsona mugituko dira ikasturte honetan. Orain gutxi izan ditugu lehen lauhileko azterketak; presentzialak dira eta 2.000 lagun pasatu dira guretik. Kopuru hauekin jarraituz gero eta gure Plan Estrategikoetan jasotako helburuak betetzen baditugu beste 40 urterako baldintzak ezarriko ditugu, eta beste batzuek jarrai dezatela gure lanarekin".

Erreforma integrala

2010ean eraikinaren egokitzapen orokorra egin zen eta orain tokatzen dena da erabilerarako interbentzio batzuk egitea. Gainera, orain arte erabili ez den espazio handi bat irabaziko litzateke eta beste zenbait alda-

keta aipagarri ere egongo dira. Laburbilduz, erabilerarako espazioak orain arte baino askoz hobeto aprobetxatuko dira, izan ere, azken 40 urteotan ezer gutxi aldatu da gai horretan. "2010ean egin ez zen konponketa integral bat egingo dugu datozen hilabeteetan", argitu du Esparzak.

Agur eskailera historikoari

Eraiki zenetik Errege Seminarioak izan duen eskailera aldatu beharra dago goitik behera, segurtasun arauengatik. "Pena da, arkitektoentzat ere penagarria izan zen aldatu behar izateko erabakia hartzea; oso eskailera dotorea da, inperiala. Baina ez da egokitzen gaur egungo segurtasun neurrietara. Es-


GAUR EGUN 1.800 BAT IKASLE OFIZIAL ETA BESTE 1.000 INGURU DITUZTE TITULAZIO PROPIOETAN



Segurtasun arauak behartuta, betiko eskailera goitik behera berriro beharko da.



Ikasgelak ere egokitu egingo dira.



Aretoa nagusia apur bat handituko da.



Aitzariak berritzeko beharra ere badago. ARGAZKIAK: JOKIN BEREZIARTUA

kailerek jasan beharreko bolumenaren arabera kalkulu bat egin zuten eta ez du gaitasunik bolumen horri erantzuteko. Horregatik, segurtasun lege guztiak beteko dituen eskailera berria jarri beharko dugu", dio Esparzak. Garai baten aztertu zen kanpotik eskailera berri bat egokitzea, baina teknikoki ia ezinezkoa zen. Eskailera berriak hiru pasabide izan beharrean bi izango ditu, gaur egungoaren zabalera berberarekin.

Barne antolamendu berria

Bestalde, areto nagusia apur bat handituko dute, atzealdean lekua dagoelako. Azterketa presentzialerako behar izaten dute gela handi bat izatea. Obrak amaitu ostean, proiektu gidariak zehazten duenez, honako hau izango da UNED-Bergara berriaren

barne antolamendua: semi-soitoan, liburutegia; beheko solairuan, dagoeneko egokitua dagoen San Martin plazako sarrera, harrera, idazkaritza eta liburutegia; lehen solairuan, zuzendaritza, koordinatzaileak eta irakasle gela; bigarren solairuan azterketarako gela –areto nagusia dena egun–, bideokonferentzietarako zein tutoretzetarako gelak; hirugarren solairuan, hainbat ikasgela txiki eta, bukatzeko, estalki-behean ikasgela gehiago eta galdara-gela.

Kontuan hartu behar da Errege Seminarioak 3.180 metro koadroko azalera duela eta horietatik 2.350 metro koadro daudela erabilgarri. Eraikin barruko erreforma esanguratsu horretarako aurrekontu osoa 1,9 milioi euro da, BEZa barne.

"Jarduera akademikoa lehenetsiko dugu beti"

IÑAKI ESPARZA UNED-EKO ZUZENDARIA

Errege Seminarioan behin betiko geratuko direla ziurtatu ostean, UNEDeko zuzendari Iñaki Esparza gogotsu dago obrak hasi eta 2018-2019 ikasturtea baldintza berrietan abiarazi ahal izateko. Lanak unibertsitatearen jarduna eraikin berean mantenduz egingo direnez, 20 hilabete iraungo dutela aurreikusten da.

Zeintzuk dira UNEDen beharrak asetzeko eraikinean egin beharreko obra nagusiak?

Plan gidarian jasotzen denez, obra nagusien helburua da eraikin barruko espazio guztia aprobetxatzea. Horretarako, egin beharreko lehen lana da auditoriumarekin banaketa bertikal eta oso garbia egitea. Eta espazioak hobeto aprobetxatzeko lanez gain, ahalik eta ikasgela gehien sortu gura ditugu; izan ere, ikasgela txikiak erabiltzen ditugu. Gainera, ikasgela horiek erabilera anitzekoak izango lirarteke, altzari aldetik-eta malgutasun handikoak. Gela horietan teknologia berriak ezartzea eta azpiegiturak zaharberritzea ere sartzen da lanen barruan. Lan

horiekin guztiekin gure beharrak asebeteko lirarteke.

Obra handia izango da?

Duela zenbait urte egindakoekin badu zerikusirik?

2010ean egin ziren lanak oso inportanteak izan ziren.

Eraikinaren goialdean interbentzio handi bat egin zen, teilatu azpia egoera larrian

zegoelako; hor joango dira ikasgela berrietako asko. Duela zazpi urte ere, eraikin osorako leihoak eta berogailu sistema aurreratu genituen. Eta falta dena da eraikin barruan erabateko berrikuntza bat egitea, eraldatze bat. Izan ere, espazio gehienek duela 40 urteko erabilera antzekoa izan dute gaur egunera arte; horregatik uste dugu espazio horiek egokitu beharra dutela. Horretarako izango dira lanak.

Lanak noiz hasi eta bukatuko direla aurreikusten duzue?

Obrak berehala hasiko dira, esleitze fasearen bukaera gaude eta. Egun gutxiko kontua izango da publiko egitea proiektua esleitu zaion enpresaren izena; oraindik ezin dugu enpresaren izena zein den iragarri. Enpresa zein den jakin ostean zehaztu ahalko genuke obraren hasiera eguna, baina lan astunena udan egitea posible ikusten dugu. Aurreikuspenen arabera, 20 hilabetetan egin daiteke. Hortaz, eta dena ondo bidean, 2018-2019 ikasturtea baldintza berrietan abiatu ahal izango genuke, hor ibiliko gara.

Nola gauzatuko dira lanak?

Hiru fase aurreikusten ditugu. Lehen fasea izango da astunena, besteak beste, solairu berri bat egin behar da-eta espazio berri batzuk sortzeko. Horrez gain, lehen fasean, berritu egingo da eskailera. Dena ondo bidean, lan horiek uda honetan egingo dira eta gainontzekoa nahiko obra arina denez gure jarduerarekin ondo koordinatu ahalko da.

Lanak eta zuen jarduera koordinatu daitezke orduan? Noraino baldintzatuko dute obrek UNEDen jarduera?

Lanak moteldu egingo dira, logikoki. Eraikina itxi eta egin beharreko lan guztiak jarraian egingo balira, sei hilabete inguru beharko lirarteke bakarrik. Baina gure jarduna ez dugu etengo eta horrek eragingo du lanak erritmo geldoagoan egin behar izatea. Batzuetan, posible izango da biak aldi berean egitea, baina, beste batzuetan, gure jarduera akademikoa lehenetsi beharko dugu. Opor garaiak, esaterako, aprobetxatu egingo ditugu lanak ahalik eta gehien aurreratzeko.



J.B.

Igoerara bidean beste pauso bat eman nahian

Bergara Kirol Elkarteko gizonezkoen futbol talde nagusiari bost partidu besterik ez zaio geratzen denboraldi honetan, eta, gaur-gaurkoz, lider dira mahoneroak. Bihar, zapatua, Lagun Onaken aurka jokatu dute orain arte gotorleku izan den Agorrosinen

Maite Txintxurreta BERGARA

Bergara Kirol Elkarteko gizonezkoen talde nagusiak mailaz igotzeko borrokan jarraitzen du, eta, hortaz, asteburu honetan ere partidu garrantzitsua dauka, Agorrosinen, gainera. Bihar, zapatua, izango da neurketa hori, 17:00etan hasita, eta Azpeitiko Lagun Onak taldearen bisita jasoko dute.

Bost partidu besterik ez zaie falta denboraldia bukatzeko, eta, gaur-gaurkoz, lider da. Liga bukatzean hala jarraituz gero, zuzenean eskuratuko lukete igoea. Hortaz, orain, euren postu hori defendatzeko lan egin beharko dute Mikel Juaristiren mutilek, bigarren den Urolari begirik kendu gabe.

55 puntu dauzka egun Bergarak, eta Urolak, berriz, 52. Hirugarrena Soraluze da, 44 punturekin.

Hain zuzen, Soraluzen jokatu dute azken partidua mahoneroek, haien etxean, eta, 0-2 emaitza-



Asis Peña jokalaria. IMANOL SORIANO

rekin -golak: Asis Peña eta Markel Ilzarbe-, pozik itzuli ziren etxera. Agorrosin gotorlekua izaten ari da denboraldi honetan mahoneroentzat. Izan ere, orain arte partidu bakarra galdu dute etxean.

Gimnasia erritmiko txapelketa izango da bihar Labegaraietan

Ariznoa Erritmika Taldeak antolatuta, Gipuzkoako eskolarteko gimnasia erritmiko txapelketa jokatu dute bihar goizean, zapatua, Labegaraietan.

Hala, 10:30etik 13:00etara bitartean eskolarteko B mailako bigarren fasea jokatu dute; gimnastak Euskadiko txapelketarako pasea lortzeko lehiatuko dira.

Txapelketa horretan, Ariznoa taldeak bi alebin talde eta infantil talde bat izango ditu eta bakarkako gimnasta bat infantil mailan.

Arratsaldean, berriz, 17:00etatik 18:00etara bitartean, hainbat herritako gimnasta benjaminen erakustaldia izango da.

Liderraren etxean hil edo biziko partidua Soraluze BKEk

Maila mantentzeko lehiari bete-betea sartuta dago eskubaloi-ko Soraluze BKE. Asteburuan azken unera arte gogor borrokatu behar izan zuten Elgoibarren aurka, eta garaipena eskuratu zuten. Bi partidu geratzen zaizkie denboraldia bukatzeko, eta 9. postuan daude -12 dira-.

Oraingoan ere guztia eman beharko dute Edu Orgazen mutilek. Domekan (11:30) Ordizia liderraren etxean jokatu dute. "Igoera fasea jokatu dute, eta izan daiteke, beraz, erlaxatu samar egotea", zioen Orgazek. Hala ere, nabarmendu duen moduan, "kontuan hartzekoa da denboraldi osoan oso puntu gutxi galdu dituztela".

Zaleen laguntza, beharrezkoa

Bergara Kirol Elkarteko zuzendaritzak eskerrak eman nahi izan dizkie joan den asteburuan Soraluzera mahoneroak animatzaera joan ziren guztiei. "Izugarria izan zen Ezoziko harmaillak bergararrez gainezka ikustea", euren esanetan. "Beste behin, lehen mailako afizioa dugula argi geratu da, eskerririk asko", gaineratu dute.

Era berean, klubak Bergarako herritarrei dei egin die asteburu honetan ere Agorrosinera gerturatu daitezke.

Zaleen bultzadaz gain, baina, klubetik bertatik ere jaso dituzte babes mezuak Preferente mailako mahoneroek. Hala, emakumezkoen talde nagusikoek -kade eta infantil mailetakoz zentzuzko jokalarirekin batera- gizonezkoak animatzeko bideo berezi bat grabatu dute, *Bost besterik ez* mezuarekin, gogorazita bost partidu baino ez zaizkiela geratzen.

Futboleko kromoen salmenta, promozio berezi eta guzti

Azken txanpan sartu da Bergara Kirol Elkarteko futbol saileko kromoen salmenta. Kromook erosi ahal izateko azken egunak dira; hori dela eta, promozio berezi bat jarri dute martxan: bi pakete baten prezioan.

Domeka, apirilaren 2a, izango da kromook erosteko azken eguna. Egunotan, Tximeleta, Goxoak eta Sorgintxo gozoki dendetan, Bule, Depor eta Arkupe tabernetan, Osintxuko dendan eta Agorrosingo futbol zelaiko kantinan izango dira salgai.

Apirilaren 2a pasata 10 kromo baino gutxiago falta zaienek kromo horiek erosteko aukera izango dute zuzendaritzako ki-deekin harremanetan jarrita.

Musika izango da protagonista egunotan

Bergarako Musika eta Dantza Eskolak hitzorduz betetako egitaraua prestatu du, beste behin ere, *Apirilean musika!* ekimenaren baitan: ikastaroak, emanaldiak, musika kalean, elkartrukeak... Asteon hasi da eta apirilaren bukaerara arte iraungo du

Maite Txintxurreta BERGARA

Egunotan tailer ugari izango dira Musika Eskolan. Hala, ikasleek ez dute ohiko eskolarik izango, baina ikastaro bereziak joateko aukera izango dute.

Hala, esaterako, Gazte Banda-koek asteen Amaia Bernalekin koreografiak ikasi dituzte, eta beste saio bat izango dute zikloaren bukaeran. Era berean, bihar, zapatua, eta etzi, domeka, Irene Hernandok abesbatzei zuzendutako antzerki eta koreografia tailerra emango du (09:30ean egun bietan). Astelehenetan eta martitzenean, umeek musika tresna "arraroak" ezagutu ditzaten tailerra izango da.

Nabarmentzekoak

Aipatutakoez gain, beste hainbat emanaldi izango dira apirilaren. Hilaren 4an, hasiberrien abesbatzak *lipdub*-a egingo du Musika Eskolan, nobedade modura.

Egun berean, 19:00etan, puntako biolontxelo kontzertua izango da Aroztegin. Lehenengoz erabiliko dute areto hori *Apirilean musika!* ekimenerako. Bertan izango dira Juan Ignacio Emme, Maialen Egiazabal eta Ana Egiazabal. Emme Euskadiko Orkestrako biolontxelo bakarlaria da. Antolatzaileek diote "luxu handia" izango dela.

Egitarauak dakarren beste nobedade bat apirilaren 6an izango den *Arratsalde bat operan!* ekintza da. BBCk produzitutako *Carmen* opera proiektatuko dute Zabalotegi aretoan.

Hilaren 7an, musika tailerreko umeek ipuin musikatuak kontatuko dute, gitarra ikasleekin (18:00). *Txit oilo txikia eta katuk* istorioa kontatuko dute.

Erramu Zapatuan trikitilariak, txistularik eta dantzariak ibiliko dira kalerik kale. Horrez gain, 11:30ean Santa Marinako organoa ezagutzeko aukera izango da Josean Pascualen eskutik.



Musika eskolako eta Udaleko ordezkariek egitarauaren aurkezpenean. M.T.

Datozen hitzorduak

Martxoak 31, egubakoitza

- 19:00 Kantu ikasleen emanaldia Mariaren Lagundiko elizan.

Apirilak 1, zapatua

- 11:00 Suzuki ikasleen kontzertua Zabalotegi aretoan.
- 12:00 Irungo eta Bergarako biolontxelo ikasleak Zabalotegin.

Apirilak 2, domeka

- 18:30 *Ahotsen soinua kalean!*. Seminarioko karpan.

Apirilak 3, astelehena

- 18:30 Trikitia eta perkusio ikasleen kontzertua Musika Eskolan.
- 18:30 Ikasle helduen kontzertua Zabalotegi aretoan.
- 18:30 Biolin taldeak ospitaleko elizan.
- 19:00 BMEko Orkestrako haize taldea Aroztegi aretoan.

Apirilak 4, martitzena

- 18:30 Pelikuletako musika gitarra eta piano ikasleekin Zabalotegin
- 19:00 Biolontxelo: J. I.Emme, M. Egiazabal, A. Egiazabal. Aroztegin.

Apirilak 5, eguaztena

- 18:30 Piano ikasleak Zabalotegin, tronpa eta klarinetekoak BMEn eta biolin, biola eta hari taldekoak ospitaleko elizan.
- 19:00 Txistu taldearen emanaldia Aroztegi aretoan.

Apirilak 6, eguena

- 18:30 *Musika kalera!*
- 19:00 *Goazen denok dantzara!* Bergarako kaleetan.
- 19:30 *Carmen* operaren proiektzioa Zabalotegi aretoan.



Ttun-ttun brigadekoak miresten dituztenen kareekin. T.T.B.

Halabalooza, jaialdi 'friki' bezain handia kartzela zaharrea

Musika eta txantxa izango dira bihar gauean egingo duten kontzertu sortako protagonista nagusiak

M.T. BERGARA

Txapa Irratiko *Halabalooza* irratia ezin bereziagoa prestatu du zapatu honetarako. Denetariko musika estiloetako taldeak jasotzen ditu kartelak: pop, trap edota "Bergararekin lotura estua duten" Ttun-Ttun Brigade errioxarren *euzko elektropop*-a, besteak beste.

22:00etan hasita, honako talde hauek igoko dira taula gainera: Zazkel, Franco, Gorpuzkingz, Magnetico Grupo Robot, Ttun-Ttun Brigade, Dr. Krzyck eta Anunaki. Jaialdian *photocall*-a ere izango da, eta "look onenarekin" joateko dei egin dute.

Zazkel bilbotarrak aurten BBK Live jaialdi ospetsuan izango dira, Banden Lehia irabazi ostean. Franco ere bilbotarrak dira, eta Ebrovision bezalako jaialdietan jo izan dute. Gainera, laugarren lana kaleratu berri dute, eta kantuok Bergaran

joko dituzte lehenengoz. Magnetico Grupo Robot bermeotarrekin ere hiru lan kaleratu dituzte dagoeneko. Gorpuzkingz, berriz, Euskal Herriko lehen trap taldea da. Dr. Krzyck *jugoslaviarra* eta Anunaki DJ lanetan arituko dira, eta azken horrek proiektzioak erabiliko ditu.

Ttun-Ttun Brigaderen lan berria Atzo, eguena, Ttun-Ttun Brigadek hiru abestidun lan berria kaleratu zuen, *Vol. 3*, eta Bandcamp plataforman entzungai dago. Bergaran joko dituzte kantuok zuzenean lehenengoz. Errioxarren aurreko lanetako bezala (*Vol.1* eta *Vol.2*), Euskal Herriko "zortzi probintzietako" gaiak jorratzen dituzte lan honetako kantuek.

Album berria kaleratzeaz gain, bihar, zapatua, lan horretako *Giriak Zarautzen* kantuaren bideoak estreinatuko dute.

Puntako bertsolariak izango dira gaur kartzela zaharrea

Kopla Barik bertso eskolak antolatuta, lehen lerroko bertsolariak izango dira gaur, egubakoitza, kartzela zaharrea: Igor Elortza, Jon Maia, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga. Gai jartzaile lanetan, aldiz, Ibon Leibarrek jardungo du. Saioa 22:30ean hasiko da, baina atek ordu erdi lehenago, 22:00etan, irekiko dituzte. Sarrera: 5 euro.

Dantzaren Eguna ospatzeko, Camden Town-ekoak kalera

Dantzaren Nazioarteko Eguna harira, Camden Town dantza akademiako ikasle eta irakasleak kalera aterako dira bihar, zapatua, erakustaldi berezi bat egingo dute emanaldia, eta euria egingo balu, berriz, seminarioko karpan. Denetariko dantza estiloak erakutsiko dituzte: funka, salsa, areto dantzak...



Bizikletak eta oinezkoak Kale Karrian beheara asteazken arratsaldean. IKER OÑATE

Elkarri traba egin barik ibiltzeko oinarriak

Herriko erdigunean oinez edo bizikletan doazen arteko elkarbizitza errazten lagunduko duen dekalogoia egin du Oñatiko Udalak. Hiru ikastetxeekin eta Txirrinkarekin batera adostu ditu hamar puntuak, lehentasuna oinezkoari emanda

Oihana Elortza OÑATI

Oinez eta bizikletan ibiltzen diren arteko elkarbizitzaren alde, dekalogoia egin dute elkarlanean Oñatiko Udalak, herriko hiru ikastetxeek eta Txirrinkak. "Bizikleten ordenantza ez dago prest, baina gaia sozializatzeko dekalogoia atera dugu", dio Mugikortasun zinegotziak, Irati Etxeberriak.

Herrigunean lehentasuna oinezkoen izan dezaten hartu ditu Udalak azken erabakiak. Bizikletak ere ibil daitezke, baina, batez ere, horiek, bizikletan ibiltzen direnek, kontuan hartu beharreko puntuak jaso dituzte eskuorri horretan, elkarri traba ez egiteko. Lehenengo puntuak, esaterako, garbi jasotzen du bizikleta ibilgailu bat dela eta oinezkoen alderdian lehentasuna oinezkoen izango dutela, beti. Eta bigarrenak dio hiri barruko ibilbideetan, oinezkoen bideak saihestu eta gorri markatutako bideak erabil ditzaketela bizikletan doazenean, laneko joan-etorriak

edo erosketak egiteko, adibidez. "Espaloietan bizikletan ez ibiltzea eta abiadura zaintzea ere jasotzen da dekalogo honetan. Askotan, ziztu bizian ibiltzen dira bizikletak erdiguneko kaleetatik, eta hori ere neurtu egin behar dute", dio Etxeberriak.

Dekalogoak behin eta berriz gogorazten du oinezkoen alderdian oinezkoen dutela lehentasuna. Hala, abiadura euren erritmora jaitsi behar da, eta, egoerak eskatuz gero, bizikleta eskuetan eraman behar da, segurtasun arrazoiengatik.

Bizikletan ibiltzerakoan aurikularrik eta mugikorrik ez erabiltzea ere jasotzen da puntuetako baten. Baita maniobra zarakarik ez egitea eta txikiren bat

**HERRIKO ETXE
GUZTIETAN BANATUKO
DU UDALAK
DEKALOGO HORI
DATORREN ASTEAN**

egin behar denean aurrez eskuera adieraztea.

Elkarrekin

Duela hilabete pare bat, urte hasieran, hasi zen Udala eskuorri hori prestatzen. Puntu batzuk jaso zituen, baina, ahalik eta osatuena izateko, herriko beste eragile batzuekin jarri ziren harremanetan. "Hiru ikastetxeekin eta Txirrinkakoekin egin genuen berba. Ekarpen bat baino gehiago jaso genituen, eta, proposamenak guztion artean landu ondoren, hamar puntu horiek adostu genituen", dio Mugikortasun zinegotziak.

Erdiguneko kaleak oinezkoendako egokitu direnetik areagotu egin dira bizikletan edo patinetan doazenean keak, eta hori konpontzeko egin dute dekalogoia. Dagoeneko prest dago eta herriko etxe guztietara bidaliko du Udalak datorren astean. "Elkarbizitzaren aldeko apustua egin gura dugu", adierazi du Irati Etxeberriak.

Herrian eta landa eremuan argi gehiago behar dela uste du EAJk

Berdintasun Sailak egindako puntu ilunen mapa berraztertzea eskatu du, eta argi intentsitatea handitzea

O.E. OÑATI

Herri barruko hainbat gunetan eta landa eremuko paseo lekuetan argi gehiago behar dela uste du EAJko udal taldeak, "toki isil, ilun eta bakartiak direlako". Zentzu horretan, 2017ko aurrekontuetan "EAJk egindako proposamena onartuz, Udala Gobernuak jada plazako frontoi inguruko jolas-gunean argiteria hobetzeko konpromisoa hartuta" duela adierazi dute jeltzaleek.

Landa auzoetan argiteria hobetzeko plan orokorra egitea ere eskatu du EAJk, pasealekuak, adibidez, "ez daudelako behar bezala argizatuta. Horrek oinezkoen segurtasunean eragiteaz gain, auzoetarako irisgarritasuna kaltetu eta oztopatzen du". Bestalde, herritarrek egindako eskaerari erantzunez, Zuazolan, Asentzio/Maalan eta Aiastuin komun publikoak jartzeko eskaera ere gehitu du EAJk.

zuhaiztian, osasun zentroko aparkalekura igotzeko eskailetan eta plazako frontoi inguruko jolasgunean, "toki isil, ilun eta bakartiak direlako". Zentzu horretan, 2017ko aurrekontuetan "EAJk egindako proposamena onartuz, Udala Gobernuak jada plazako frontoi inguruko jolas-gunean argiteria hobetzeko konpromisoa hartuta" duela adierazi dute jeltzaleek.

Landa auzoetan argiteria hobetzeko plan orokorra egitea ere eskatu du EAJk, pasealekuak, adibidez, "ez daudelako behar bezala argizatuta. Horrek oinezkoen segurtasunean eragiteaz gain, auzoetarako irisgarritasuna kaltetu eta oztopatzen du". Bestalde, herritarrek egindako eskaerari erantzunez, Zuazolan, Asentzio/Maalan eta Aiastuin komun publikoak jartzeko eskaera ere gehitu du EAJk.

Errefuxiatuentzat elikagai eta produktu bilketa

Errefuxiatuei laguntza humanitarioa bidaltzeko kanpaina jarri du martxan Hotz Oñatik. Lagundu nahi duenak herriko supermerkatuetan eta farmazietan du elikagaiak zein higieneko produktuak uzteko aukera, martxoaren 30etik apirilaren 1era. Grezian dauden errefuxiatuei bidaliko diete bildutakoa, Zaporeak taldearen bidez.

Baserriko ibilgailuen azterketak egingo dituzte astelehenean

Nekazaritzako ibilgailuen aldiro azterketa teknikoak egingo dituzte astelehenean, apirilak 3. Bi ordu eta toki adostu dituzte azterketak egiteko: 09:00etan Urriagaingo aparkalekuan eta 12:00etan Oñati tailerlean. Ez da aurretik txandarik hartu behar. Dokumentazioa eramatea beharrezkoa da. 40,50 euro da ordaindu beharreko prezioa.

Haurrek eta gazteek egindako ekarpenak erantzungo dituzte

Herriko haurrek eta gazteek *Aurrikontuak Arazerixan* egitasmoan egindako proposamenak aztertu ditu Udala Gobernuak eta horiei emandako erantzunak jakinaraziko zaizkie gaur, egubakoitza. 17:00etan ludotekan eta 18:30ean gaztelekuan egingo dituzte bilerak udal ordezkariak eta haur eta gaztetxoak. Orain artekoaren kontaketa ere egingo dute.

Arantzazura joateko autobusek udako ordutegia izango dute

Domekatik aurrera udako ordutegia izango dute Oñatitik Arantzazura joan-etorria egiten duten autobusek: 07:30ean lehena Oñatitik eta 19:00etan azkena Arantzazutik. Oñatiko edozein autobus geltokitan har daiteke autobusa, Arrikruz-Oñatiko Koben aparkalekuan eta santutegi aurrean barne. Aste Santuko jaiegunetan ere egongo da zerbitzua.

Herritarren laguntza eskertu du 'Azpilleta'-k

Joseba Arregi 'Azpilleta'-k 25 urte bete ditu preso aste honetan eta "etxeratzeko garaia" dela aldarrikatzeko ekitaldia egingo dute bihar Foruen plazan. Berak idatzitako gutuna irakurriko dute eta auzotarrek grabatu duten bideoa ikusiko da

Oihana Elortza OÑATI

Martxoaren 29an, orain dela 25 urte, atxilotu zuten Arantzazu auzoko Azpilleta base-rikio Joseba Arregi, Bidarten (Lapurdi), ETaren logistika arduraduna izatea leporatuta. Bere urtebetetzea ere aste honetan izan da, 71 urte bete ditu hilaren 27an. Azken 25 urteak Frantziako eta Espainiako espetxeetan igaro ditu eta "etxeratzeko garaia" dela aldarrikatzeko ekitaldia egingo dute bihar, zapatua. 13:00etan izango da, Foruen plazan; eguraldi txarra egiten badu, gaztelekuan.

Bizipenak

Ekitaldia hunkigarria izango da, auzotarrek Arregirekin bizitako istorioak eta pasadi-zoak kontatuko dituzte eta. Duela hilabete inguru egin zuten Arantzazuko auzotarrek horretarako hitzordua auzo etxean. Bakoitzak, umetan edo gaztetan, harekin izandako bizipenak kontatu zituen kamera aurrean, eta lan horren emaitza, bideo hori, ikusi eta entzun ahal izango da. Bestetik, *Azpilleta*-k berak idatzitako gutun bat irakurriko dute bere lagunek. Gaixo dauden presoak aipatuz hasten da Joseba Arregi idatzitako gutun hori, beraiekin ez ahazteko dei egiten du. Aldi berean, bera bezala preso dauden beste bi herrikideak ere gogora ekartzen ditu, Xabin Usandizaga eta Xabier Ugarte (20 urte egingo dituzte preso aurten). Bi horiek eta "herritik kanpo daudenak" herrian egiten diren ekimenetan ez ahazteko eskatzen du eta espetxean daramatzan urteetan "mila istorio eta borroka" izan dituztela. "Hor kanpoan dena aldatu da eta hemen ez", dio. Gutunaren amaieran, herritarrengandik jasotakoa aipatzen du Arregik:



Albitxuri Zabal baserriko Jesus Mari Arregi, Josebarekin bizitako pasarte bat kontaktzen. M.A.

UGARTEK EGOERA JURIDIKOA AZALDUKO DU ETA OLANOK PRESOEN EGOERA OROKORRA

"Oñatiko herritarrek, modu batera edo bestera, laguntza eta sostengu itzela eman didate. Hautetsietatik hasi, Mirentxintarrak, kirol eta pilotazaleak, bisitara etorri direnak, Aloñako mendizaleak, Urbia-ko artzainak...".

Larraitz Ugarte abokatuak Joseba Arregiren egoera juridikoa azalduko du ekitaldian eta Juan Mari Olanok preso-egoera orokorra zein den ekarriko du gogora.

Alacanten

Joseba Arregi Alacanteko (Villena) espetxean dago gaur egun, etxetik 780 kilometrorra. Kirola, margolanak eta buztinezko irudiak egiten ditu, burua okupatuta izateko, dituen baldintzetara moldatu behar bada eta materiala eskuratzea kostatzen zaion arren.



Joseba Arregi. M.A.



NIRE USTEZ

JON SAGARAZU

Aingeruen sexua dela eta...

Kondairak dio otomandarren armada Bizantzioko hiria erasotzen ari zenean, harresien babespean hiritarrak eztabaida bortitzean zebiltzala, elkarren aurka, aingeruen sexua zela eta: aingeruek zakila edo alua ote zuten, bada?

Azken asteotan giza transexualitatearen auzia sutu da gure gizartean, kondaira honetakoa baino askoz serio eta larriagoa. Baina gaur ere baditugu antzinako bezalako bizantziarrak, denon eremu publikoa beren borroka-zelai bihurtuz, beren gorroto eta fobiekin gizarte-hausnarketa pozoitu nahi dutenak, iritziaren bando batetik nahiz bestetik! Irrrika, azakeriaz edo burlaka, autobusekin edo karteladekin, isekari biraoaz erantzunez, elkar zanpatzeko grinez eta inoren arrazoirik aditu gabe!

Transexualitatea ez da azaleko eztabaida bizantziarra! Ez da simplekeriaz edo bortizkeriaz konpon daitekeen tirabira! Auzi hau iritzi guztien elkarriketa publiko eta arrazoituan bideratu dezakegu soilik, sakonki, denon artean eta denok elkarri gizartean zor diogun begirunean.

Hogei eragilek baino gehiagok eskuratu dute kilometroa

Herri bazkarirako txartelak salgai daude eta apirilaren 9an Iruñera autobusean joateko izen-ematea, zabalik

O.E. OÑATI

Apirilaren 8an iritsiko da Korrika Oñatira eta egun horretan herri bazkaria egingo da Antixena gaztetxean. 15:00etan izango da eta txartelak dagoeneko salgai daude Boga, Ona eta Izarraitz tabernetan. Prezioak dira hamar euro langileendako eta zortzi euro ikasle eta langabeendako. Bazkalostean, erromeria egongo da Trikimailu taldearekin. Bestalde, Korrikaren amaiera ekitaldira joateko autobusa antolatuko du Oñatiko Korrika

batzordeak. Apirilaren 9an aterako da, 08:45ean, Elorregitik. Joan-etorriko txartelak hamar euro balio du eta bazkariko txartelak eros daitezkeen toki beretan eman behar du izena interesa duenak.

Herriko 20 eragilek baino gehiagok eskuratu dute kilometroa eta aste honetan hartu dituzte petoak. Korrika etorri bezperan, egubakoitzean, apirilak 7, Korrika Txikia egingo dute herriko hiru ikastetxeek elkarrekin herri barruan, 15:00etan.

Olabarrietako pilota txapelketan izena eman daiteke

Olabarrieta auzoko jaien barruan pilota txapelketa egongo da aurten ere eta zabalik dago izena emateko epea. Auzoko elkartean edo Ongi eta Arrano tabernetan eman behar da izena apirilaren 3a aurretik; 20 euro da ordaindu beharrekoa. Finala maiatzaren 1ean jokatu da. Bikotean federatu bakarra onartuko da.

'El código Atenea' antzezlan gaur kultura etxean

Eguzki Zubiaren eskutik, *El código Atenea*-k Greziako Olinpoko hamabi jainkoak abiapuntu hartuta gaur egun emakumeek bizi duten egoera azalduko du komedia eran. Elkar Heziko DBHko 4. mailako ikasleek antolatuko dute antzezlan gaur, egubakoitza, egingo dute, 19:00etan, kultura etxean.



Asier de la Iglesia, erasoan, saskiratzea egiteko ahaleginean. IMANOL SORIANO

Txanponaren bi aldeak saskibaloiantzat

Gauzak ez doaz gura bezala saskibaloiko lehen taldearentzat; asteburuko porrotarekin (92-68), atzerapausoa eman du Euskadiko bigarren mailari eusteko jardunean. Bigarren taldeak, berriz, bide onetik ekin dio 'play-off'-ari

Iker Oñate OÑATI

Buruja jaso ezinda dabil saskibalo saileko lehen taldea. Porrot mingarria jaso zuen asteburuan, Hotel Gran Bilbao Berriotxo taldearen aurka; bilbotarrak ere sailkapeneko azken postuetan dira. Gauzak horrela, mailari eutsi nahi badiote, puntuak eskuratzeko buru-belarri jardun behar dute azken bost jardunaldietan Aitor Ugarteren mutilek. CB Cosecha 1986 talde gasteiztarraren aurka jokatu dute asteburuan.

Berebiziko garrantzia zuen bilbotarren aurkako partiduak, eta jokalariek bazekiten hori. "Norgehiagoka garrantzitsua zen domekakoa, irabazi beharrekoa. Garaipena erdietsi izan bagenu, gertuago ikusiko genuen salbazioa", aitortu du Ugarterek. Hala ere, ligako parte hartzaileek oraindik ez dakite zenbat taldek galduko duten maila, beste txapelketetako emaitzek zeresana izango baitute horretan. Hiru talde jaitsiko balira, oña-

tiarrek garaipen batera lukete salbazioa; lau jaitsiko balira, bestalde, gutxienez hiru garaipen lortu behar lituzkete mailari eusteko. Hamabigarren postuan dira -hamalau talde daude-.

Defentsa lanean gogor dihardute oñatiarrek, baina, saskiratzeak lortzeko orduan, komeriak izaten dira. "Defentsako lanari dagokionez, partidu serioak jokatzen ditugu; erasoan dugu arazoa, irregularrak gara alor horretan", dio entrenatzaileak.

Bigarren taldea 'play-off'-ean

Bestetik, denboraldi itxaropen tsua egiten ari da hirugarren maila probintzian diharduen taldeak, eta, bolada onari eutsiz, garaipen garrantzitsua erdietsi

**GARAIPEN
GARRANTZITSUA
ERDIETSI ZUEN
BIGARREN TALDEAK,
ASTEBURUAN**

zuten zapatuan, Katu Kale talde eibartarraren aurka: 72-58. *Play-off*-ean da Aloña Mendi KEko bigarren senior taldea, eta joaneko partiduan eskuraturiko 14 puntuko aldea baliagarri izango zaio itzulerako norgehiagokari aurre egiteko.

Hala ere, tentuz jardun behar dute asteburuan Eibarren. "Esperientzia handiko jokalariek ditu Katu Kalek; saskiratze asko erdiesten ditu etxean jokatzen dituen norgehiagoketan", azaldu du Jon Ander Ugarterek, entrenatzaileak. Talde gaztea dute oñatiarrek, eta horrek eskaintzen dien freskotasuna baliatzen saiatuko dira.

Bestalde, era guztietako emaitzak izan zituzten gainerako taldeek. Jokaturiko bi norgehiagokak irabazi zituzten junior mailako mutilek: Errobide Iruenen (49-33) eta Petritegi Mundarero La Salleren (47-57) aurka. Kadete eta infantil mailletako mutilak, bestetik, porrotarekin itzuli ziren Oñatira.

Urko Arregi, Gipuzkoako Eskolarteko finalerako prest

Gipuzkoako Eskolarteko finalean jardungo du Urko Arregi bertsolariak domekan, apirilaren 2an, Azpeitian

Iker Oñate OÑATI

Eskolarteko txapelketarako txartela erdietsi du Arregik, bigarren; aurreko urtean ere bere egin zuen finalean aritzeko txartela. Gipuzkoako Bertso Eskolen egunean, domekan, egingo dute txapelketaren finala, Soreasu antzokian. Autobusa antolatuta dute Azpeitira joateko.

Arregik gogoan ditu ibilbidean zehar alboan izan dituenak: "Txinparta Bertso Eskolako lagunei eskaini nahi diet lorpena, beraiek ere badutelako zerikusirik honetan guztian".

Finaleko zortzikotea ikusirik, Arregik badaki zail izango duela txapela eskuratzea; eta argi du bere egin beharra. "Nirea egitera irtengo naiz, jakin baitakit, nirea egin bitartean, txapelketa irabazteko aukerak hor dirauela". Faboritorik ez dagoe la esan du.

Arregiz aparte, Txinparta Bertso Eskolako beste sei kidek esku hartu dute txapelketan: Bittor Zubiagirre, Aritz Irigoien, Aitor Tatieggi, Gontzal Belategi, Haritz Olaeta eta Xabier Agirrek. "Lan ona egin dute", dio Arregik.



AMAIA TXINTXURRETA

Musika eskolako kontzertuak

Ohiturari jarraiki, udaberriko kontzertuak eskaini dituzte astean zehar musika eskolako ikasleek, Santa Ana antzokian. Martxoaren 25 eta 29 bitartean, lau emanaldiz gozatu ahal izan dute oñatiarrek; aurreko urtean, hiruro kontzertu izan ziren. 300 ikaslek jardun dute neguan ikasitakoa jendaurrean aurkezten; eta harrera ona izan du egitasmoak.

Haurrentzako antzezlanaren egongo da domekan Santa Anan

Gu (ez gaude denok) haurrentzako antzezlanaren egongo da domekan, apirilaren 2an, Santa Ana antzokian. 5 urtetik gorakoek zuzenduriko ikuskizunak giza-terriak klima aldaketan izan duen zeresana erakutsi nahi die ikusleei. Antzezlanaren ikusi nahi duenak 3,5 eurotan ditu sarrerak eskuragarri; aurrez salgai jarri dituzte *bibe.me* atarian.

'Ezinen koblakari' diskoa atera du Josu Zubiak

Ezinen koblakari bataiatu batenekin bueltatuko da Josu Zubia agertokietara. Mutrikun grabatu du diskoa eta kolaborazioa sortu baten emaitza izan da. "Kolaborazioak dira lan berriaren oinarri. Inguruko letra egileek egin dituzte abesti gehienak", dio Zubiak. Maiatzaren erdialdean aurkeztuko du disko berria Oñatiko Gaztelekuan.



Igor Olalde, iazko lasterketan, Erdiko kalean, helmugara iristeko metro gutxiren faltan. IMANOL SORIANO

Eguraldi txarrari aurpegi ona, badator hirugarrena

MENDI LASTERKETAK Domekan egingo dute Mondraitzeko lagunek Arrasate-Udalatz probaren hirugarren edizioa. Eguraldi iragarpena ez da ona, baina horrek ez ditu korrikalariak kikilduko, ezta lasterketa animatzen egongo diren herritarrek ere

Xabier Urzelai ARRASATE

Gustuko aldapan nekerik ez, dio esaerak, eta domekan (10:00, Arrasateko plazan) atsotitzak esangura betea izango du, eguraldi makurrari aurre egitearekin batera korrikalariak desnibel handiagoa gainditu beharko dutelako, mila metro gehiago -1.300 metroko desnibel positiboa izango dute-.

Anporretan luzatuko dute

Ibilbidea ia urterokoa izango da, Udalatzera igo eta Besaiden egingo dute itzulia. Baina, hasierako kilometroak luzatu egin dituzte, Udalara iritsi aurretik. Izan ere, Monterondik eta San Kristobaldik pasa ostean, Anporreta inguruan egin beharreko tarte luzeagoa izango da domekan.

Faboritoen zerrenda

Irteera puntuan 350 korrikalari batuko dira. Gizonezkoetan Iban Letamendi eta Jokin Garai oñatiarrak, Aitor Ajuria, Aritz Kortabarría arrasatearra edota Ekaitz Kortazar daude faboritoen multzoan; eta emakumezkoetan Oihana Azkorbebeitia izango da garaipenaren borrokan faborito nagusia.

Ligako oilarrak batuko dira Mojategin eta Ibarren

FUTBOLA Lider dagoen Anaitasuna eta bosgarren dagoen Real Union izango dira bisitari

X.U. ARRASATE

Aurrealdeko postuak gehiago estutzeko aukera aparta dute ibarreko ordezkariak asteburuan.

Zapatuan, laugarren dagoen Mondrak (46) lider dagoen Anaitasuna (54) hartuko du Mojategin (16:30), eta domekan hirugarren dagoen Aretxabaletak (51) bosgarren dagoen Real Unionen (45) bisita izango du. Aretxabaletak lehenengo itzulian falta izan zitzaion erregularitasuna lortu du, eta Mondrak atzerapausoa egin du aurrekoen borroka horretan, etxetik kanpora galdutako azken bi partiduen ondorioz. Zubiaren mutilek, baina, azarotik ez dute etxean partidurik galdu.

Aloña Mendik beste final bat

Joan den asteko garaipen garrantzitsuaren ostean (2-1), Oñatiko taldeak hil edo biziko bes-

te partidu bat izango du, ostera ere Azkoagainen (Domeka, 16:30). Izan ere, Urzelaiaren mutilek (25) postu bat gorago dagoen Hondarribia (29) izango dute aurrean. Ezinbestekoa da garaipena, Hondarribia ere atzealdekoen saltsan sarrarazteko.

Bergarak ere etxean

Beheragoko kategorietan ere partidu garrantzitsuak egongo dira jokoan. Lider jarraitzen duen Bergarak Lagun Onak hartuko du bihar Agorrosinen (17:00), eta Antzuolak ere lehenengo postua defendatzeko partidua jokatu du Donostian bihar (19:30, Vasconiaren kontra).

Emakumezkoen mailan, igoera fasean dabilen Arizmendik Mutriku hartuko du bihar (11:00), eta Bergarak eta Mondrak derbia jokatu dute kopa barruan (Domekan, 17:00).

Arrasate eta Oñati, etxean

ESKUBALOIA

Euskadiko Txapelketa amaitzeko bi jardunaldiren faltan, bigarren dagoen Izarraitz Muñoz Aloña Mendik laugarren dagoen Corazonistas hartuko du Zubikoan bihar (18:00). Ford Mugarri Arrasatek hirugarren postura egin du salto, eta horiek Tolosa hartuko dute bihar Iturripen (18:00).



GOIENA

Korrikalarien "agendan" sartu den lasterketa gaztea

Martitzenean aurkeztu zuten Mondraitzeko lasterketa: "Pozik gaude, oraindik ere proba gazte samarra izan arren, mendi korrikalarien agendan sartzea lortu dugulako". Bestalde, emakumezko korrikalari kopurua hazten doa, eta hori ere datu positibotzat jo zuten. Parte-hartzaileen erdia inguru bertakoak, Debagoienekoak izango dira.



Antolatzaileak, aste barruan egindako agerraldian. M.TXINTXURRETA

ARETO FUTBOLA UDAk etxean lor dezake mailaz igotzea

Euskadiko Txapelketan lider jarraitzen du UDA Aretxabaletak, nahiz eta joan den astean Eskoriatzaren kontra galdu (3-0). Bihar eguerdian (Ibarra, 12:00) atzealdeko postuetan dagoen Atxurreri irabazita, matematikoki mailaz igotzea lortuko lukete, baldin eta laugarren sailkatuak irabazten ez badu.

ZIKLISMOA Uzarragako Igoera jokatu dute zapatuan Antzuolan

Peña Ayastuik antolatuta, zapatuan 16:00etan hasita jokatu dute Uzarragako Igoerako 43. Igoera. Debagoieneko Txirrindularitza Taldeetako hainbat ordezkari izango dira irteera puntuan, eta Antzuola, Bergara eta Oñati artean hainbat joan-etorri egin eta gero, 18:00 aldera Uzarraga igoko dute.

"Ardura guztia nire gain hartzea zama izan da"

ALEX TXIKON GOI MENDIZALEA

MENDIA Neguko giro gogorrek bultzatuta, Everestera igo barik eman behar izan zuen bizkaitarrak buelta erdi: "Bizirik bueltatzea helburuetako bat betetzea da"

Xabier Urzelai ANTZUOLA

Ez daki geldirik egoten. Alex Txikonek (Lemoa, 1981) ez du Everesten energia guztia erre, eta, muturreko egoeran egindako espedizioa izan bada ere, segituan errekuperatu da, fisikoki ez du-eta ondoriorik sufritu –oso fin dago, hori bai—. Hala, arintasun hori aprobetxatu gura du, indarra apur bat landu eta gero, udan erronka berriei heltzeko, herri kirolei eta apustuei begira.

Ez da ohikoa espedizio batetik itzuli eta horren azkar aitortzea datorren urtean oster bere ahalegina egiteko asmoa duzula.

Bai; nahiko garbi daukat hara bueltatu gura dudala. Lan ona egin dugula uste dut eta laugarren kanpalekutik aurrera egin ez izanaren arantza barruan geratu zait.

Oraingoan, sufrimenduan koska bat gora egin duzue?

Sufrimendu ezberdinak daude. Esaterako, 2013an Gasherbrum I-en hiru lagun han geratu ziren, eta hori oso gogorra izan zen. Oraingoan, eguzki ordu batzuetaz gozatu ahal izan dugu, baina muturreko egoerak ere bizi izan ditugu, hotz galanta eta haize ufada oso zakarrak. **Azken uean erabaki zenuen Ali Sapdara soka-laguna espedizioa ez eramatea. Horrek lider bakar bilakatu zintuen, horrek dakarren guztiarekin.**

[Espedizioa ardura barik prestatzen zebilela ikusita erabaki zuen Txikonek Sapdara kanpoan uztea]. Bai, zama handia izan da hori niretako, xerpen laguntzarekin antolatuta dugu espedizioa, eta erabaki guztiak nik hartu behar nituen; azkeneko, hori nekagarria da. Horrekin batera, muturreko egoeretan erantzukizun handia sentitzen nuen, aurrera egitera konbentzitu nituelako, eta euren bizitzan nire eskuetan jarri zutelako. "Eta hauei zerbait



Alex Txikon, eguaztenez, Antzuolan. XABIER URZELAI

"HERRI KIROLAK BALIAGARRIAK DIRA MENDIRA BEGIRA ENTRENATZEKO, INDARRA HARTZEKO"

gertatzen baazaie, zer?". Behe kanpalekura denok onik iritsi arte ez nuen arnasarik hartzen. **Horrenbestez, Sapdara kanpo uzteak eragina izan du horretan.** Baina beti egoten dira halako ezbeharrek, taldeari eragiten dioten azken ordukoak. Futbolera eramaten badugu, hamaiaka jokalarik jokatzen dute, baina hor ere lesionatuak eta kaleratuak egoten dira, eta ez-behar horietara azkar moldatu beharra dago. Mendi espedizioetan sarritan izaten dira halakoak, eta prest egon behar duzu horiek gainditzeko. Kanpoan geratu den norbait, min hartu duen norbait edo gaixo dagoena...

Oñatin Nanga Parbateko espedizioaren gainean berbetan izan ginen azkenekoz, eta diozu oraingoarekin alderatuta hura "gozokia" izan zela.

Everest mendiaren ezaugarriek asko gogortu dute espedizioa. Oraingoan, talde handiagoa joan gara, baina bigarren kanpalekura joateko konpromiso handiko eskalada egin beharra dago, eta altuera handiagoko ibili gara. Everestek ia 9.000 metro ditu (8.848), eta hainbatetan izan gara laugarren kanpalekuan, 8.000 metrora. Iazkoarekin alderatuz gero, esanenezake espedizio honetan hiru bider igo dugula Nanga Parbat. **Laugarren kanpalekutik jaisten "benetako beldurra" pasa zenuela diozu.**

[Jaitsieran kolpe bat hartu eta 100 metroko erorketa izan zuen]. Askotan pasatzen dugu beldurra. Askori kosta egiten zaie hori horrela esatea, baina nik ez dut arazorik, beldurra da mendizale baten soka-lagunik onena. **Eta orain, herri kirol apustua.**

Bai, datorren urterako prestakuntzaren parte da, bederatzi hilabete ditut aurretik. Askok gustatzen zaizkit herri kirolak, eta entrenamendu modura oso baliagarriak dira. 2010a ezker ez dut apusturik egin, eta gogotsu nago.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREG.

Mondra-Anaitasuna
Zapatua. 16:30. Moiategi.
Aretxabaleta-Real Uni.
Domeka. 16:30. Ibarra.
Aloña Mendi-Hondarri.
Domeka. 16:30. Azkoag.

ERREGIONAL PREFERE.

Mondra-Illintxa
Zapatua. 18:30. Moiategi.
Aretxabaleta-Getariako
Zapatua. 16:30. Ibarra.
Bergara-Lagun Onak
Zapatua. 17:00. Agorros.

ERREGIONALA, IGOERA

Vasconia-Antzuola
Zapatua. 19:30. Donostia.
Antigua-Bergara
Zapatua. 18:00. Rezola.

EMAKUMEZKO, IGOERA

Arizmendi-Mutriku
Zapatua. 11:00. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAP.

Mallabia-Eskoriatza
Domeka. 18:00. Zaldibar.
Aretx.UDA-Atxurte
Zapatua. 12:00. Ibarra.

GIPUZKOAKO TXAP.

Jaixki-Mondrate
Egubakoitza. 21:35. Lezo.
EMAKUMEZKOAK
Eskoriatza (asedena).

SASKIBALOIA

EBA

Santurtzi-MU
Domeka. 12:00. Santurtzi

EUSKADIKO BIG. MAILA

Cosecha1986-Natra O.
Domeka. 17:30. Gasteiz.

GIP. SENIOR MAILA

MU-Cafes Aitona
Domeka. 18:00. Iturripe.

GIP. BIGARREN MAILA

Goierri-SoraluceBKL
Zapatua. 16:00. Urretxu.

SENIOR EMAKUMEZKO.

STL Bilintx-Eskoriatza
Gaur. 20:00. Donostia.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAP.

Izarraitz M.-Corazonis.
Zapatua. 18:00. Zubikoa.
Ford Mugarri-Tolosa
Zapatua. 18:00. Iturripe.

EUSKADIKO EMAKUME.

Aloña Mendi-Askartza
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAP.

Ordizia-Soraluce BKE
Domeka. 11:30. Ordizia.

ZIKLISMOA

GAZTE MAILA

Uzarragako Igoera
Zapatua. 16:00. Antzuola.

MENDI LASTERKETA

ARRASATE-UDALATX

Domeka, 10:00etan hasita Arrasateko plazan.

PILOTA

Gipuzkoako Eskolarteko finalak. Zapatua, 16:00etan hasita Antzuolan.

AURKEZPENA

Aloña Mendiko pilota sailaren aurkezpena
Zapatua. 11:15. Oñatiko Zumeltzegi dorrean.

GIMNASIA ERRITMIK.

Eskola Arteko B mailako Gimnasia Txapelketa, eta benjaminen topaketa. Zapatuan, Bergaran. Goizeko saioa 10:40etik hasita, arratsaldekoa 17:10ean

Iazko prezio berberak Rezusta Bilboko finalean ikusteko

PILOTA Irribarriarekin batera apirilaren 9an neurtuko ditu indarrak Bengoetxearen eta Larunbereren kontra

Xabier Urzelai BERGARA

Eguaztenez jarri zituzten Aspeko eta Asegarceko ordezkariak salgai finalerako sarrerak. Eta iazko finaleko prezio berberak mantendu dituzte hilaren 9ko hitzordurako.

Garestienak 140 eurotan

Bilboko frontoian jokatuko dute finala –zazpigarren urtez jarraian, alde handiarekin pilotaleku handiena delako–, eta kantxako butaken artean, kokaleku onena dutenak 140 eurotan salduko dituzte –lehenengo 60ak– eta gainontzekoak 100 eurotan. Bigarren solairukoak 80 eurotan eongo dira eta hirugarren solairukoak 70 eurotan. Errebotekoak merkeagoak izango dira (65 eta 55 euro) eta salneurri merkeena 3. solairuko errebotekoek izango dute, 45 eurotan.



Rezusta eta Irribarria besarkatzen. ETB

Bigarren finala Rezustak

Iazko finalean Irujoren lesioak utzitako zapo gaxia gainditu gurako du Beñat Rezusta bergararrak, eta ondoan izango duen Irribarriarendako berria izango da eskuz binakako finalean egotea.

"Ez dakidan gaiei buruz egiten ditut nik filmak"

AITOR GAMETXO ZINEGILEA

Hamargarren Huhezinema jaialdiko sari banaketa egingo dute, gaur, egubakoitza, Arkupe kultur etxean, 20:00etan; luntxa eta Mery Mayren kontzertua izango dira gero

A. Aranburuzabala ARETXABALETAKO

Gaur amaituko da MUko Huhezi fakultateak antolatzen duen Huhezinema euskal film laburren jaialdia. Filmak eskaintzeaz gainera, askotarikoak egin dituzte; horien artean, iazko Goiena saria irabazi zuen Aitor Gametxorekin (Lekeitio, 1989) amaitu barik duen *Ilunabarra* filmaren gaineko solasaldia.

Bukatu barik baduzu ere, orain artekoak erakutsi zenituen atzo.

Garrantzitsua iruditzen zait lan-prozesua azaltzea eta ikuslearen feedbacka jasotzea. Horrek eragina izango du film laburra- ren emaitzan. Itxitako gidoi bat baino gehiago, prozesua bera grabatzea gustatzen zait, bidean agertzen direnei tokia eginez. Hori da dudan lan egiteko modua, asko gozatzen dut. Gustatzen zait esatea ez dakidan gaiei buruz egiten ditudala filmak.

Nondik dator *Ilunabarra*?

Martxoan estreinatu dudana *Cicha Symfonia* film luzearen jarraipena da. Iaz udan Polonian eta hango gor komunitatearekin grabatu nuen, irudiekin bakarrik, soinua barik. Aurrerapauso bat emateko asmoarekin planteatu nuen ea posible izango zen itsuekin eta soinua banda hutsarekin zerbitu kontaktatzea, eta gero, bi alderdi horiek batuta zert gertatuko litzatekeen ikustea. *Ilunabarra*, beraz, metafora bat da; argiak eta iluntasunak bat egiten duten momentua.

Zer kontaktatzen duzu, bada?

Sormenezko dokumentala da, esperimentala; ikustearen eta entzutearen esperientziari garrantzia emanez, nola kontaktatzen den ere garrantzitsua da. Hiria- ren, hizkuntzaren eta komunikazioaren artean triangelu bat sortzea da asmoa. Horren barruan planteatzen dut zelan esperimentatzen duen gor eta itsu batek hiri bat, eta ze erlazio sortzen diren irudiaren eta soinua- ren artean.



Aitor Gametxo zinegilea eta aurtengo Huhezinema jaialdiko epaimahaikidea. A. G.

"ARGIAK ETA ILUNTASUNAK BAT EGITEN DUTEN UNEAREN METAFORA DA 'ILUNABARRA'"

Zabalik dago, baina, oraindik gidioa.

Bai, hala da; iazko sariarekin, hainbat irudi eta elkarrizketa grabatu nituen, eta, hortik abiatuta, gehiago grabatzen jarraituko dut. Oso eskertuta nago Goiena sariak materiala alokatze-ko emandako aukerarekin. Lana bukatzeko data zehatzik ez dut; beraz, elkarrizketak egiten jarraituko dut.

Huhezinema moduko lehiaketak, bada, garrantzitsuak dira.

Duda barik, eta bereziki gorai- patzekoa iruditzen zait ikasleek sustatu eta antolatutako zinemaldia dela. Ikasten ari zarenean eskertzekoa da horrelako aukerak izatea. Eta nola ez, sortzailentzat ere tranpolin bat da.

Hesiaren bestaldean izan zara aurtentzen, epaimahaikide. Zer moduz moldatu zara?

Esperientzia oso interesgarria izan da; lehenengo aldiz izan

naiz alde horretan. Polita izan da lan ezberdinak ikusi eta epaimahaikide bakoitzak nola aztertu dituen partekatzea, eta adostasun batera heltzea, gero. Ariane Kamio *Gara*-ko kazetariak, Paulo Urkijo zinegileak eta hirurok osatu dugu epaimahaia. **Zelako lanak ikusi dituzue?**

Oso lan interesgarriak daude; ezin, baina, irabazlearen izenak aipatu gaurko sari-banaketaren aurretik. Pertsonalki, asko gustatu zaizkit Goiena sarirako dauden lau hautagaiak: animaziozko bi lan daude, genero horretakoek izaten duten eskulan kutsuarekin; badago irudi alde- tik oso ondo landuta dagoen fikziozko bat lan eder bat ere; eta laugarrena, teknikoki ez da oso pieza borobila, baina freskotasan handia du eta oso barregarria eta ariketa libre irudi- zuzenak.

Eskarmentua duzu zinemagintzan zelako lanak egin dituzu?

Arlo esperimentaletik jotzen dute; film laburrak dira gehienak, baina badut Ultzamako bailaran grabatu nuen luze bat ere. Horrez gainera, Tabakalera- ren zinema esperimentalari buruzko tailerrak ematen ditut.



Gasteizko Oihaneder jauregian aurkeztu zuten ekimena, aurreko astean. E. T.

Euskaraz irakurtzeko ekimena: 'Irakurri, gozatu, oparitu'

Euskaltzaleen Topaguneak antolatu du liburu dende- kin, euskaltzaleen elkarteekin eta udal liburutegiekin batera

A. A. ARRASATE

Irakurzaletasuna bultzatzea helburu duen egitasmoak herritar- rarak euskarazko liburuak irakurtzera animatu gura ditu, irakurtzearen alde atsegina azpimarratuz eta liburutegi pu- blikoen zerbitzuen erabilera sustatuz.

Egitasmoak parte hartzea sar- ritzen du, liburuak erosteko abantaila ekonomikoak emanez, eta liburuari opari bihurtzera gonbidatzen du.

Maiatzaren 31 bitartean

Izenak adierazten duen moduan, hiru pauso eman behar dira egitasmoan parte hartzeko. Has- teko, herriko liburutegian liburu bat maileguan hartu eta irakurri egin behar da –euskaraz- ko edozein liburu izan daiteke–. Irakurri eta liburutegira itzulitakoan, fitxa bat bete beharko du egitasmoan parte hartu gura

duenak, liburuari buruzko iri- tzia emanda. Trukean liburu- zainak erosketatxeke emango dio hitzartutako liburu bat eros- teko. Azken pausoa liburuari opa- ritzea da; lagun edo senide bati edo nor bere buruari. Ekaina- ren 10a da erosketatxekeak era- biltzeko azken eguna.

Liburutegian jasotako eroske- ta-txartelak euskarazko beste edozein liburu %35 merkeago erosteko aukera ematen du. Ho- rrez gainera, liburutegi bakoit- zean, 30 euroko balioa duen txeke baten zozketa egingo dute.

Liburu gomendioen zerrenda

Iaz –hamargarren edizioan–, hainbat berrikuntza egin zitzioten egitasmoari; horien artean, Patxi Zubizarreta idazleari 50 liburu gomendatuen zerrenda osatzeko eskatu zioten. Zerren- da baliagarria dela erakutsita, aurtentzen ere eskainiko dute.

'The Armed Man' obra taularatuko du bihar Bergarako Orfeoak

Gerraren eta bakearen gaineko hausnarketa sakona izan nahi du, biharko, zapatua, Udala- n Pilotalekuan (20:30) Orfeoak antolatu duen emanaldiak. Sarre- rak hamar eurotan eskura dai- tezke Pikupekin Artekalean duen bulegoan, leihatilan bihar –19:00etatik aurrera– eta *on line* ere bai: *Pikupe.com* eta *Kutxa- bank.es* atarietan.

Karl Jenkinsek konposatutako obra da bihar eskainiko dutena. "Bakearen aldeko meza moduan dago planteatuta eta hamabi pieza interpretatuko ditugu", azaldu du Karlos Etxanizek, Orfeoiko presidentea. Orfeoiaz gainera, Orfeoi Gazteak, Intxor- ta 1937 Kultur Elkarteak eta Candem Town dantza akademiak hartuko dute parte. Era berean, emanaldi horretarako antolatu- tako zortzi musikariz osatutako ganbera-orkestra ere taularen gainean izango da.

Aktoreak protagonista 'Kulturizketak' saioan

Asier Hormaza eta Sara Cozar aktoreak izan dira, oraingoan, Goiena telebistak ostegunero emititzen duen 'Kulturizketak' saioan. Bien esperientzia eta ibilbidea ikusteko aukera apirilaren 6an izango da, osteguna, 21:30ean

Ane Vitoria ARRASATE

Aspaldi elkar ezagutzen dute Asier Hormazak eta Sara Cozarrek, eta hori agerian geratu zen bi aktoreek Goienaren *Kulturizketak* saioan izan zuten solasaldian. Lasai asko izan ziren hizketan ordu erdiz, eta, saioa amaituta zegoela jakin zutenean, hitz egiten jarraitzeko gogoz gelditu zirela onartu zuten. Bien ibilbide profesionalak nahiko onak izan direla azpimarratu zuten, eta horren isla dira azkenaldian murgilduta dauden proiektuak: antzezlanetan, zineman, interpretazio eskolak ematen-eta buru-belarri dabilta biak. Gainera, *Operación Concha* film koralean bat egingo dute, nahiz eta grabaketetan ez diren elkarrekin egongo. Hala ere, estreinaldian batuko direla onartu zuten irribarrez. Solasaldi naturala izan zen bi aktore horien artekoa.

Aktorearen ogibidea

Beraien lehenengo antzezlan, bizipen eta oroitzapenei buruz mintzatzeko hasieran. Baita beraien ogibidean zehar izandako pertsonaia edota lan kuttunez ere. Argi dute ez dutela preferentziarik, baina, era berean, hasieran interpretaturiko pertsonaiak bereziak direla aitortu zuten. Hala ere, aktore ogibidearen zailtasunez ere mintzatu ziren luzaroan. Nahiz eta beraien ibilbide profesionala ezaguna den, oraindik beraien burua aktoretzat izendatzea kosta egiten zaiela aitortu zuten biek. Batez ere, fama kontuari dagokionez. Hormazaren esanetan: "Ez dut sekula lan egin ezaguna izateko. Hori ez da gure lana, baizik eta kulturaren alde lan egitea, bai zinean, bai antzerkian eta bai telebistan. Kultura langileak gara eta hori da gure eginkizuna eta gure helburua, hain zuzen". Askotan,



Asier Hormaza eta Sara Cozar *Kulturizketak* saioko platoon. JAGOBA DOMINGO

"JENDEAK EZ DU PENTSATZEN AKTOREEK GURE LAN PROZESUAN NEGAR EGIN DUGUNIK"

kanpotik ikusita, ogibide exotikoa dutela esaten diete; hala ere, pasatako momentu txarrez ere mintzatu ziren. "Jendeak ez du pentsatzen aktoreek gure lan prozesuan negar egin dugunik, beti alai gaudela uste dute. Eta hori ez da horrela izaten; egia da momentu oso dibertigarriak bizi ditugula eta lan oso polita daukagula, baina, era berean, oso agerian gaude", aipatu zuen Cozarrek.

Fikziozko euskal produkzioak

Betidanik elkarrekin lan egin duten irudipena duela aitortu zuen Hormazak: "Euskal Herrian aktoreen artean gertatzen den zerbait dela uste dut, horretan bereziak gara". Horren arrazoia, euren ustez, lankideen artean eskainitako laguntza da. Izan ere, bi aktore horien ustetan, Madril bezalako hiriburu batean,

aktoreen arteko lehiakortasun handia dago eta presente izan ohi da lan egiteko garaian. Hemen, aldiz, aktoreak elkarri laguntzeko prest azaltzen direla uste dute. Euskal Herriko fikziozko produkzioaren inguruan ere hitz egin zuten solasaldian. Aspaldian horren aldeko apustu egiteari utzi zitzaioela uste dute, eta hori arazo bat dela diote. "Euskal Telebistak hemengo produktuak ekoiztu eta hemengo langileak bultzatu beharko lituzke, eta, zentzu horretan, azken urteotan oso eskas ibili dira", dio Hormazak. Bien ustetan, hori izan daiteke geroz eta produkzio gutxiago egiten ari delako.

Paper ezberdinen antzezpena

Paper ezberdinak antzezteko gai dira bi aktoreak eta hori beraien ibilbidean zehar ikusi da. Hala ere, urteek aurrera egin ahala zailagoa bilakatzen dela uste dute. Askotan aktoreek adin tarte bat dutenean, ezin dutelako ez pertsonaia gazte, ez nagusi baten interpretazioa egin. Solasaldian, honi buruz luzaroan ere mintzatu ziren euren gogoe-tak azalduz.

Goiena Klubaren txokoa

Korrika Goiena Klubean!



Adi! Datorren asteko PUNTUAN, Korrikako 10 arropa-sorten irabazleak nortzuk diren esango dugu. Zorte on parte hartu duzuen guztioi!



Irabazi bi lagunendako otordua

MAULANDA JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA *Jatetxea*
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

puntua
100

Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...

Apirilaren Tetik 30era eskaintza berezia: 10 euro.

Bazkietu zaituz!
Deitu: **943 25 05 05.**
goienakluba.com

Bidali mezua
688 69 00 07


Eta bazkietzen zareten lehendabiziko **100ak, 100 euroko** erosketa txartel baten zozketan sartuko zarete.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



ESKER ONA

Juana Ibabe Otxoa



2017ko martxoaren 20an hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko momentu hauetan familiaren ondoan egon eta babesa eman diguzuen guztiei.

—

Apirilaren 1ean, zapatua, agustindarren elizan, 19:30ean, ondrak izango dira. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2017ko martxoaren 31n.

ESKER ONA



Kontxi Heriz Aranzabal



2017ko martxoaren 23an hil zen, 71 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztoi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—

Haren aldeko meza domekan izango da, apirilaren 2an, 11:00etan, Garagartzako San Migel elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Arrasaten, 2017ko martxoaren 31n.

ESKER ONA

Paulino Martinez Estevez

(Raquel Gallegoren alarguna)



2017ko martxoaren 25ean hil zen, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

—

Gure bihotzean egongo zara beti.

Bergara, 2017ko martxoaren 31n.

URTEURRENA



Victoria Belaustegi Urionabarrenetxea



2016ko martxoaren 31n hil zen, 73 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 2an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

—

Harro gaude, zure izana gugan dagoelako eta zu zeruko izarrik distiratsuena zarelako. Maite zaitugu, amama.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2017ko martxoaren 31n.

OROIGARRIA

Ane Miren Yarza Barcena



2013ko apirilaren 1ean hil zen.

Zure maitasunak, alaitasunak, bizitzeko gogo eta indarrak hauspotzen du gure bihotzeko garra.

Etxekoak.
Arrasaten, 2017ko martxoaren 31n.

OROIGARRIA

Txaro Bolinaga Arza



Zure umore eta kemenaz zoriontsu izan gara. Txikipandiko lagunok beti gurekin eramango zaitugu.

Mila, Rosa, Erregiñe, Marta, Jaione eta Mailu.
Oñatin, 2017ko martxoaren 31n.

OROIGARRIA

Txaro Bolinaga Arza



Txaro, zurekin batera beste ikasgai batzuk ikasten ari ginela, zeure adibidearekin, gizakiak nola bizi behar duen irakatsi diguzu. Azkenera arte eduki duzun adorea, berriz, ikaragarria!

Oñatiko HHI-EPAko lagunak.
Oñatin, 2017ko martxoaren 31n.

OROIGARRIA

Txaro Bolinaga Arza



2017ko martxoaren 28an hil zen, 59 urte zituela.

Agur Txaro, beti gurekin izango zara.

Urzabalgo sendiak.
Oñatin, 2017ko martxoaren 31n.

OROIGARRIA

Txaro Bolinaga Arza

—Goian bego—



Eskerrik asko, bihotz-bihotzez, ikastolaren alde egin duzun guztiagatik.



Txantxiku Ikastola

Txantxiku ikastola.
Oñatin, 2017ko martxoaren 31n.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 31	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Zapatua, 1	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Domeka, 2	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Astelehena, 3	FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 1 / 943 79 22 26
Martitzena, 4	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Eguaztena, 5	AMEZUA: Santa Marina 32 / 943 79 09 74
Eguena, 6	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 31	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Zapatua, 1	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Domeka, 2	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Astelehena, 3	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Martitzena, 4	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguaztena, 5	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguena, 6	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
ORATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 31	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 1	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 2	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 3	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Martitzena, 4	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguaztena, 5	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 6	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2017ko abuztuaren 15era arte:
FERNANDEZ: Maisu Aranbarri	943 79 22 26

BERGARA GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2017 osoan:
URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4	943 76 11 74

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

HILDAKOAK

Kontxi Heriz Aranzabal. Arrasaten, martxoaren 23an. 71 urte.
Cesarea Morillo Morillo. Arrasaten, martxoaren 23an. 88 urte.
Luis Rodriguez Alonso. Arrasaten, martxoaren 23an. 76 urte.
Asier San Jose Madinabeitia. Arrasaten, martxoaren 23an. 44 urte.
Elena Elustodo Elorza. Bergaran, martxoaren 23an. 84 urte.
Maria Luz Morales Jimenez. Arrasaten, martxoaren 25ean. 92 urte.
Andres Maria Irizar Aranburu. Oñatin, martxoaren 25ean. 78 urte.
Paulino Martinez Estevez. Bergaran, martxoaren 25ean. 85 urte.
Felisa Agirrezabal Ondarra. Bergaran, martxoaren 25ean. 97 urte.
Juan Luis Elizaran Elustondo. Arrasaten, martxoaren 26an. 87 urte.
Jose Maria Lazkano Lazkano. Arrasaten, martxoaren 26an. 79 urte.
Raquel Lopez Rodriguez. Eskoriatzan, martxoaren 26an. 81 urte.
Fernando Maitras Garcia. Arrasaten, martxoaren 28an. 81 urte.
Txaro Bolinaga Arza. Oñatin, martxoaren 28an. 59 urte.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK

**1. Zuhaitz landatzea Gorlan**

Kirolak eta naturak bat egin zuten joan den domekan Gorlan. Batetik, 43. Gorrako igoera jokatu zen; bestetik, Natura Eguna Iturriberrin –Gorrako kantina inguruan–. Umeen jolasetara asko eta asko animatu ziren eta oso jendetsua izan da baita zuhaitz landaketa ere. Urkiak, pagoak eta haginak landatu zituzten.

2. Arrasateko industria ondarea ezagutzen

Iraganeko Oinatzak elkarteko Arantza Otaduirekin Arrasateko harrisi aretoan elkartu ziren hainbat lagun eta handik abiatuta bi orduko ibilbidea egin zuten herriko industria ondarea ezagutzeko; besteak beste, Iturriotz kalean, Seber Altube plazan eta Biteri plazan egin zituzten geldialdiak eta Etxe Txikietan amaitu zuten bisita gidatua.

3. Mintzalagunak Atxorrotxen

Debagoieneko Mintzalagunak Atxorrotxera joateko plana egin zuten joan den asteburuan; 41 lagun elkartu ziren. Han, garai baten zegoen gazteluaren gaineko azalpenak jaso zituzten Eskoriatzako Ibarraundi museoko Arrate Landaren eta Saioa Alzuaren bitartez. Garai batean, Nafarroako Erreinuako gazteluaren azalpenak entzun zituzten, besteak beste.

**4. Okilak entzutera eta ikustera**

Añarbeko basoko ibilaldia egin zuten joan den zapatuan hainbat oñatiarrek, Natur Eskolak antolatuta. Eguraldi bikaina egin zuten eta okilak entzun eta basurde familia bat ikusi zuten irteera hartan. Aterpetxe batean lo egin eta hurrengo egunean, domekan, Albaola museora joan ziren, Pasaiara, XVI. mendeko *San Joan* baleontziaren erreplika ikustera.

5. Saskibaloia eta areto futbola

Eskoriatzako areto futbol taldeak irabazi zuen UDAko taldearen kontrako derbia. Saskibaloiko taldeko nesken animoek izango zuten, agian, zerikusia garaipen hartan, eta, partiduen ondoren, saskibaloiko eta areto futboleko jokalariek eskoriatzarrek elkarrekin ospatu zuten norgehiagokaren emaitza.

#DIOTENEZ

TRIKITI DOINUAK

Trikitiari bultzada eman gura diote **Antzuolan** eta dagoeneko hasi dira pentsatzen zer egin horretarako. **Idea** batzuk ere badituzte. **San** Isidro egunaren bueltan egin gura dituzte ekitaldiak. **Erromeriak** eta trikiti emanaldiak egongo dira, bai, baina **baita** hitzaldiak ere. Maiatzaren 15a da San Isidro eguna, **astelehena** da aurten, eta asmoa da aste horretan egitea pentsatuta dituzten **ekitaldiak**.

LEIRE MARTIN

Leire **Martin** Pineda neskatila bergararraren aldeko eguna ari dira prestatzen **IGAM** taldeko kideak. Muskulu atrofia espinala du Leirek, eta **gaixotasun** hori ezagutarazteko eta berari **laguntzeko** eguna izango da. Ekainaren 17an egingo da egun hori **Bergaran**. Herriko txoko ezberdinetan puzgarriak, musika eta bestelako **ekintzak** egongo dira. Egun horretan horixe izango

da Bergaran egingo den ekintza **nagusia**, ez da beste ezer antolatuko ez Kultura Saitetik ez Kirol Saitetik, esaterako.

Kamisetak eta **txartelak** atera dituzte dagoeneko eta asteburu honetan, domekan, 17:00etan, **Bergarak** eta **Mondrak** jokatu duten **derbian** kamiseta horiek jantzita aterako dira Agorrosingo futbol zelaira etxeko **jokalaria**. Ekimen hori beste talde batzuetara **zabald**u gura dute.

ERRALDOIA

Beñat **Rezustak** binakako pilota txapelketako **finala** jokatu du Iker Irribarriarekin batera, Oinatz Bengoetxea eta Mikel Larunbe bikotearen kontra. Donostiako **Atano** pilotalekuan izango da partidua, apirilaren 9an, eta Bergaran **pantaila** erraldoia jarriko dute partidua zuzenean jarraitzeko. Duela urtebete jokatu zuten finalean bezala, **28 metro** koadroko pantaila jarriko dute Udal

Pilotalekuan, herritarrek partidua giro onean jarraitzeko.

GARITANO

Asier Garitano **bergararra** Donostiara etorriko da asteburuan, **Leganesek** Realaren kontra dauka-eta partidua. Bada, bere lagunak kasu egitera joango dira **Donostiara**. Ostatu hartuko duten hotelera joan eta berarekin egoteko **asmoa** dute. **Pozik** egin dute plana.

ZORION AGURRAK



ANTZUOLA
Inar Cabo Mundiñano
Apirilaren 5ean, 11 urte. Zorionak, Inar! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat etxekoen eta, bereziki, Ekhiren partetik.



BERGARA
Oier Gabilondo Berezibar
Apirilaren 5ean, 4 urte. Zorionak gure makinistari. Ze handi in zan, maitia! Muxu potolo bat, familia guztiaeren partetik.



ANTZUOLA
Maddi Alonso Berezibar
Apirilaren 5ean, 7 urte. Zorionak, Maddi! Ondo pasatu zure egunean eta muxu asko Xabiren, aitaoren eta amatxoren partetik.



BERGARA
Anouk Muruamendiarez Arealillo
Apirilaren 4an, 8 urte. Zorionak, maitia. Urkoren eta etxekoen partetik, ondo pasatu zure eguna.



BERGARA
Maria Maiztegi Arruti
Apirilaren 4an, 5 urte. Zorionak eta bi muxu potolo familixakuen eta, bereziki, Juneren partetik. Ondo pasatu zure eguna, *guapisima!*



ARRASATE
Unax Gonzalez Garcia
Apirilaren 3an, 10 urte. Zorionak, Unax! Jarraitu gure bizitzak alaitzen, beti bezala, lagunekin jator eta seme ezin hobea izaten. Zutaz oso harro gaude, txapelduna.



ARRASATE
Sara Zabalo
Apirilaren 3an, 3 urte. Zorionak, maitia!



ARRASATE
Urko Muñoz Morales
Apirilaren 3an, 6 urte. Zorionak, Urko! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta musu potolo bat, zure familiako guztien partetik!



ARRASATE
June Urionabarrenetxea Porcel
Apirilaren 3an, 8 urte. Zorionak, *guapa!* Ondo-ondo pasatu, musika eta dantzak faltako ez diren egunean, artista!



ARETXABALETA
Lander Urkia
Apirilaren 2an, 5 urte. Zorionak eta egun polita pasatu! Familiaren eta, batez ere, Oierren eta Beltzen partetik!



BERGARA
June Osa Jimenez
Apirilaren 2an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Besarkada handi bat eta muxu asko!



ARRASATE
Mainer Barbero Chaves
Apirilaren 2an, 12 urte. Zorionak, Mainer! Familia guztiak egun polita pasatzea opa dizugu. Muxu potoloak!



ANTZUOLA
Noa Iturbe Gabiria
Apirilaren 1ean, 3 urte. Zorionak, printzesa, Maddiren eta etxeko guztien partetik. Egun ona pasatu. Muxu potolo bat!



ONATI
Maddi Biain Ugarte
Apirilaren 1ean, urtebete. Zorionak, Maddi. Disfrutatu eguna familixarekin eta lagun danakin. Patxo handia, bereziki aittaren, amaren eta Alixeren partetik!



BASAURI
Imanol Astigarraga Bellido
Apirilaren 1ean, 4 urte. Zorionak, familiakoekin partetik, eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean.



ONATI
Mattin Goitia Osinaga
Apirilaren 1ean, 2 urte. Zorionak, maitia! Ze azkar pasatu dian bi urte honeik! Segi oin arteko moduan gu danok zoriontsu itten... Patxo potolo bat danon partetik!



ONATI
Illare Zabala Arbaolaza
Martxoaren 31n, 4 urte. Zorionak, Illare! Muxu handi bat etxeko danon partetik eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean.



ARETXABALETA
Intza Atxaga Arrese
Martxoaren 31n, 7 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure eguna, etxeko danen, amamaren eta Usoaren partetik. Segi halako sorgin!



BERGARA
Olatz Arregi Eguren
Martxoaren 31n, 12 urte. Zorionak, Olatz! Oso ondo pasatu eguna eta primeran ospatu! Patxo handi-handi bat, etxeko guztien partetik!



ARETXABALETA
Jokin Bernal
Martxoaren 31n, 3 urte. Zorionak, *kaiño!* Gure bizitzako gauzarik politena zara. Askote maite zaitugu.



ARRASATE
Naroa Balerdi Berezibar
Martxoaren 31n, 11 urte. Zorionak, *crack!* Jarraitu gure txapelduna izaten. Maite zaitugu!



ARETXABALETA
Izeia Garai
Martxoaren 31n, 10 urte. Zorionak, *pitusa!* Egund eder eta zoriontsu bat pasa dezazula. 10 muxu handi, etxekoen partetik.



ONATI
Eneko Azkargorta
Martxoaren 31n, 7 urte. Zorionak, Eneko! Muxu handi bat Nahiaeren eta Daneleren partetik. Ondo pasatu zure eguna.



ARRASATE
Inabar Nalda Gonzalez
Martxoaren 30ean, 7 urte. Zorionak, txapelduna! Ondo pasatu eta muxu erraldoi bat, etxekoen partetik! Askote maite zaitugu!



BERGARA
June Contreras Arakistain
Martxoaren 30ean, 7 urte. Junetxo, zelako handia egiten ari zaren... Patxo handi bat familiakoekin eta, batez ere, Eleneren partetik. Maite zaitugu.



ARETXABALETA
Izaro Armendariz Urrutia
Martxoaren 30ean, 10 urte. Zorionak, Izaro! Topera disfrutatu zure eguna. Muxu potolo eta handi bat, etxekoen partetik.



BERGARA
Irati Andueza Mozos
Martxoaren 30ean, 5 urte. Zorionak, Irati! Egund polita pasatu eta muxu potolo bat, laguneren eta etxeko danon partetik!



ARRASATE
Egoitz Fernandez Davila
Martxoaren 30ean, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako, pitxi! Zure *kolegi*, izeko, amama, ama, aita eta Alain. Patxo asko!



ONATI
Markel Bengoa Igartua
Martxoaren 30ean, 4 urte. Zorionak, Markel! Patxo potolo-potoluak, maitte zaitugun danon partetik. Ondo-ondo ospatu zure egune!



ONATI
Danel Guridi Olalde
Martxoaren 29an, 6 urte. Zorionak, Danel! Bete ondo birikixak putz itteko 6 kandelari! Muxu handi bat, etxeko danon partetik. Ondo ospatu zure eguna.



ARRASATE
Ekiñe Galdos Martín
Martxoaren 29an, 7 urte. Zorionak, printzesa. Zorionak beti! Patxo pila, familia osoaren partetik. Maite zaitugu.



ONATI
Aimar Elorza San Miguel
Martxoaren 28an, 9 urte. Zorionak, Aimar! Ondo pasatu zure urtebetetzian. Besarkada eta muxu handi bat, etxeko danon partetik.



ARRASATE
Ekain Alvarez Fuentes
Martxoaren 28an, 5 urte. Zorionak, maitia! Patxo handi bat, etxeko guztien partetik.



BERGARA
Aitor Aguirre
Martxoaren 28an, urtebete. Zorionak, Aitor!



ESKORIATZA
Joseba Herrera Gallego
Martxoaren 28an, 19 urte. Zorionak familia osoaren eta batez ere gurasoren, arrebaeren eta zure neskaren partetik. Maite zaitugu.



ARRASATE
Ixone Garitaonandia Uriarte
Martxoaren 27an, 13 urte. Zorionak, *guapa!* Mila muxu, maite zaitugun denon partetik. Ondo pasatu!



ARRASATE
Ixone Zuriarrain
Martxoaren 26an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure egunian! Patxo handi-handi bat, etxeko danon partetik!



ESKORIATZA
Paule Otxandategi Lasagabaster
Martxoaren 22an, 3 urte. Zorionak, Paule! Ondo pasatu zure eguna! Patxo handi bat!



ARETXABALETA
Alejandro Correa Osorio
Martxoaren 29an, 5 urte. Jaiak bedetxe eta zaindu zaitzala. Bizitza eta alaitasuna ematen dizugu maite zaitugun guztiok. Zure ama.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 31

ARAMAIO Korrika Jaialdia eta Korrika Txikia

Korrika Txikia 14:30ean egingo dute eta jaialdia 18:30ean. Azken horretan, herriko hainbat taldek parte hartuko dute.
Aipatutako orduetan.

ELGETA Ipuinen Ordua

Haur Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira egingo dute saio berezia.
Liburutegian, 16:40ean.

OÑATI Urteko batzar orokorra

Pake Leku elkartekoen batzarra.
Santa Anan, 17:30ean.

ARRASATE Emakume artisten erakusketa ikusteko azken eguna

Gaur da Artean 2 erakusketako lanak ikusteko azken eguna.
Kulturaten, 17:30ean.

BERGARA Ipuin kontaketa saioa

Umeendako saioa egingo du Amaia Nekane.
Umeen liburutegian, 18:00etan.

ARETXABALETA Korrikaren inguruan

18:30ean denda zabalduko dute udaletxe zaharrean; 19:30ean kantu-poteoa; eta, 22:00etan, *Erradikalak gara* bertso emanaldia Ane Labakarekin eta Beatriz Egizabalekin.
Aipatutako lekuetan eta orduetan.

OÑATI 'El código Atenea' antzezlan

Elkar Hezi ikastetxeko DBH laugarren mailako Kultura Klasikoko ikasleek antolatuko dute. Eguzki Zubia izango da antzezlea.
Kultura etxean, 19:00etan.

BERGARA Musika eskolako kontzertua

Kantu ikasleen emanaldia.
Mariaren Lagundian, 19:00etan.

BERGARA Bertso saioa

Maialen Lujanbio, Jon Maia, Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsoan. Sarrerak, bost euro,
Gaztetxean, 22:00etan.

ZAPATUA 1

ARETXABALETA Korrika: Orkatzategira igoera

Goian, 11:30ean, txalapartariak egongo dira. 19:00etan, pintxo-poteoa.
Urkuluko aparkalekuan, 09:00etan.

ESKORIATZA Korrika:

Atxorrotxera igoera

Hiru ibilbide daude aukeran: 5,1 kilometro oinez, 11,2 korrika eta 14 bizikletan. Guztiak batera irtengo dira Ederlanetik.
Aipatutako lekuan, 10:00etan.

OÑATI Ludoteka ibiltaria

3-10 urte bitarteko haurrendako ekintzak egingo dituzte.
Portu kaleko plazatxoan, 10:30ean.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

Azken saioa egingo dute San Andres auzoan.
Aipatutako lekuan, 10:30ean.

BERGARA Suzuki ikasleen kontzertua

Apirilean musika egitarauko lehen emanaldia.
Zabalotegin, 11:00etan.

BERGARA Biolontxelo ikasleen kontzertua

Bergarako eta Irungo ikasleak.
Apirilean musika egitarauko emanaldia.
Zabalotegin, 12:00etan.

OÑATI 'Etixeratzeko garaia da' aldarrikapen ekitaldia

Joseba Arregi *Azpilleta*-ren egoera salatzen du ekitaldia egingo dute.
Foruen plazan, 13:00etan.

ANTZUOLA Uzarragako igoera

Gazte mailakoendako ziklismo lasterketa. 81 kilometro egin beharko dituzte.
Antzuolan, 16:00etan.

ANTZUOLA Landatxoeko batzar orokorra

2016ko balorazioa egin eta 2017rako proposamenak eta ekintzak aurkeztuko dituzte. Ostean, luntxa egongo da.
Landatxopen, 17:00etan.

ARETXABALETA 'Drag-e' antzezlan

Logela Multimedia antzerki taldearen lana, umeendako. Sarrerak, hiru euro.
Aretxabaleta 17:00etan

BERGARA Fit-bike saioa

Bizikleta jardunaldietako ekintza.
Agorrosinen, 17:30ean.

OÑATI 'Karitateko alabei esker onez' liburuaren aurkezpena

Inazio Irizarrek berak aurkeztuko du liburua.
San Martin egoitzan, 18:00etan.

OÑATI Ekiza, zuzenean

Willis Drummond taldeko abeslariak bakarkako emanaldia egingo du, diskoa aurkezteko.
Gaztetxean, 19:30ean.

BERGARA Halabalooza Fest!

Zazkel, Franco, Gorpuzkingz, Magnetico Grupo Robot eta Ttun Ttun Brigade taldeak. Sarrerak, bost euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ARETXABALETA Screemers And Sinners taldea

Kontzertua egingo dute.
Ezkutu tabernan, 22:30ean.

ARETXABALETA Garraxi taldea

Bergarako taldearen kontzertua.
Orly tabernan, 23:00etan.

DOMEKA 2

BERGARA Mendi bizikleta irteera

Bizikleta jardunaldien barruan, Palmerakuak taldekoekin. Urkulara joan-etorria egingo dute, menditik.
Agorrosinen, 10:00etan.

OÑATI Karitateko alabei omenezko ekitaldia

Elizkizun berezia egingo dute 11:00etan. Ostean, herriko hainbat taldek parte hartuko duten jaialdia izango da, 11:45ean.
Aipatutako orduetan, parrokan.

ANTZUOLA 'Ahotik bihotzera' ekimena

13:00etatik 14:30era ipuin eta bertso-poteoa, herriko tabernetan



IMANOL SORIANO

BERGARA 'The armed man' ikuskizuna

Bergarako Orfeoaren eta Orfeoi Gaztearen kontzertua. Intxorta 1937 kultura elkartearen kolaborazioa izan dute bi taldeek. Karl Jenkins konpositore galestarraren izen bereko lanean oinarritu dira.
Bihar, zapatua, udal pilotalekuan, 20:00etan.

zehir. 18:30ean, ipuin eta bertso maratonia Torresoroan.
Aipatutako orduetan eta lekuetan.

OÑATI 'GU (ez gaude bakarrik)' haurrendako antzezlan

Borobil taldearekin. Sarrerak, 3,50 euro.
Santa Anan, 17:00etan.

OÑATI 'Ahotsen soinua kalean'

Abesbatzen eta Orfeoi Gaztearen kontzertua, *Apirilean musika* jaialdian.
Irala kalean, 18:30ean.

ASTELEHENA 3

OÑATI Udako kirol kanpaina

Gaur zabalduko da behin betiko izen-emate epea, egubakoitzera arte. Zozketan egokitutako orduan egin behar da inskripzioa kiroldegiko bulegoan.
Zubikoako bulegoan.

ESKORIATZA 'Zuk zeuk sortu'

Umeendako ekintza. Marrazki bana egingo dute, eta, ostean, marrazki guztiekin ipuin bat sortuko dute.
Ludotekan, 16:45ean.

BERGARA Angiozarko ludoteka

Jolas kooperatiboak egingo dituzte.
Aipatutako lekuan, 16:30ean.

BERGARA Trikiti eta perkusio ikasleen kontzertua

Apirilean musika jaialdiko emanaldia.
Zabalotegin, 18:30ean.

BERGARA Orkestrako haize taldearen kontzertua

Apirilean musika jaialdiko kontzertua.
Aroztegin, 19:00etan.

OÑATI 'Booktuberboom'

EAEko Liburutegi Zerbitzuek eta Galtzagorri Elkarteak sortutako ekimenaren aurkezpena. Ikus-entzunezkoen bidez irakurtzeko zaletasuna bultzatu gura du.
Liburutegian, 20:20ean.

MARTITZENA 4

BERGARA Osintxuko ludoteka

Kometak egingo dituzte.
Aipatutako lekuan, 17:00etan.

BERGARA Oxirondoko ludoteka

Kometak egingo dituzte.
Aipatutako lekuan, 17:00etan.

ARETXABALETA Biolin, pandero eta akordeoi emanaldia

Leizarra musika eskolako ikasleen kontzertua.
Arkupen, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Bizitza aktiboa, osasuna eta herrigintza' hitzaldia

EH Bilduko legebiltzarkide Rebea Uberaren berbaldia. Herriar guztiak gonbidatu dituzte.
Herriko Plazan, 18:30ean.

BERGARA 'Biolontxelo profesionaltasuna konpartituz'

Apirilean musika jaialdiko ekintza.
Aroztegin, 19:00etan.

OÑATI Literatura solasaldia
Richard McGuireren *Aqui* liburuaz hausnartuko dute parte-hartzaileek Ruben Arias koordinatzailearekin batera.
Liburutegian, 18:30ean.

EGUAZTENA 5

ARETXABALETA Valleko kondea
Valleko kondea, modernitatea eta tradizioa; garai aldaketa baten isla delako erakusketa zabalduko dute. Argazkiek XIX. eta XX. mendeetako eguneroko bizitza erakusten dute.
Arkopen, 11:00etan.

ARETXABALETA Musika eskolakoen dantza emanaldia
Leizarra musika eskolako ikasleen saioa.
Arkopen, 17:00etan.

OÑATI 'Nik ere baditut ikasketak. Nola homologatu?'
Atzerriko ikasketen homologazio eta nola baliozkotu, egin beharreko tramiteak ezagutu, ordainduko beharreko tasa eta bete beharreko formularioak ezagutu eta beste azalduko dituzte.
Euskaldunberri gelan, 18:30ean.

OÑATI 'Gazteak kalean' hitzaldia
Tolosako bost gazteri 2 eta 5,5 urte bitarteko espetxe zigorrak eskatzen dizkiete. Isunetan 50.000 euroko eskaera dituzte. Hori guztiori zelan izan den azaltzen hainbat hitzaldi ematen dihardute, dokumental batekin.
Antixenan, 18:30ean.

OÑATI Literatura solasaldia
Richard McGuireren *Aqui* liburuaz hausnartuko dute, Ruben Arias koordinatzailearekin.
Liburutegian, 18:30ean.

BERGARA Piano ikasleen kontzertua
Apirilean musika jaialdiko emanaldia.
Zabalotegin, 18:30ean.

BERGARA Txistu taldekoen kontzertua
Apirilean musika jaialdiko emanaldia.
Aroztegin, 19:00etan.

ARRASATE 'Euskaldunak eta itsasoa, Debagoienetik Ternuara' hitzaldia
Jose Antonio Azpiatzaren berbaldia, izen bereko liburua aintzat hartuta.
Aroztegin, 18:30ean.

EGUENA 6

ESKORIATZA 'Udaberriko kontzertua'
Musika eskolako ikasleen erakustaldia.
Ibarraundin, 18:00etan.

ESKORIATZA Literatura solasaldia
El gran cuaderno liburuaren gaineko hausnarketa egingo dute, Ruben Ariasekin.
Kultura etxean, 18:00etan.

BERGARA 'Musika kalera'
Apirilean musika jaialdiko kontzertua.
Bergarako kaleetan, 18:30ean.

BERGARA 'Irumendi elkartea: Gorlako larretik kalitatezko okela sortzen 50 urtean' hitzaldia
Abeltzaintzari buruzko berbaldia.
UNEDen, 18:30ean.

ESKORIATZA Hitzaldia: 'Herrigintzaz eta irrigintzaz'
Eskoriatzako kaleetan euskaraz zenbat egiten den neurtu dute Ixotu Euskara taldekoek. Emaizak aurkeztuko dituzte, eta, ostean, Joxe Mari Agirretzek eta Olatz Altunak, eta datorren egunean, herrigintzaz eta irrigintzaz egingo dute berba.
Zaldibarren, 19:00etan.

ARRASATE 'Ez lemaio: Arrasateren erreketeta'
Juan Kruz Igerabide egileak aurkeztuko du liburua.
Kulturaten, 19:00etan.

BERGARA 'Carmen' opera
Apirilean musika jaialdiko ekintza.
Zabalotegin, 19:30ean.

ARRASATE Cabezafuego kontzertua
Kooltur Ostegunak ekimenezko kontzertua. Sarrerak, bost euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

El guardian invisible
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Savva, corazon guerrero
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

La bella y la bestia
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

ARETXABALETA

ARKUPE

Moonlight
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.
Cuervito calcetín
Domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO

Ghost in the shell
Zapatua eta domeka: 17:00.
Astelehena: 20:30.
Land of mine
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
El viajante
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.
Benito Sanson y los taxis rojos
Zapatua: 17:00.

ANTZOKIA

Ghost in the shell
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Benito Sanson y los taxis rojos
Domeka: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

La bella y la bestia
Egubakoitzetik astelehenera eta eguaztena: 17:30, 20:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.
Martitzena: 17:30.
Los pitufos
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30.
Astelehenera: 18:00.
Ghost in the Shell
Egubakoitzetik domekara: 18:15, 20:15, 22:30.
Mañana empieza todo
Egubakoitzetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.
Es por tu bien
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30.
Astelehenera

egunera: 20:00.
El bar
Egubakoitzetik eguenera: 18:25, 22:30.
Astelehenera: 17:15, 22:30.
Locas de alegría
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 22:30.
El guardian invisible
Egubakoitzetik eguenera: 18:15.
Mesa 19
Egubakoitzetik eguenera: 16:30, 20:45, 22:30.

BOULEVARD

Los pitufos 3D
Egubakoitzetik eguenera: 16:00.
Los pitufos
Egubakoitzetik eguenera: 18:10, 20:15.
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:10, 21:20.
Astelehenera

egunera: 17:00, 19:10.
Ghost in the shell
Egubakoitzetik eguenera: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.
Eguena: 16:45.
Mañana empieza todo
Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 18:30, 21:00.
La bella y la bestia 3D
Egubakoitzetik eguenera: 15:45.

La bella y la bestia
Egubakoitzetik eguenera: 16:45, 18:30, 19:30, 21:25, 22:15.
El bar
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:10, 22:20.
Astelehenera eguenera: 15:50, 18:00, 20:10, 22:20.
Kong: la isla de la calavera

Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:30.
Es por tu bien
Egubakoitzetik domekara: 18:40, 20:40, 22:40.
Astelehenera eguenera: 16:40, 18:40, 20:40, 22:40.
La cura del bienestar
Egubakoitzetik eguenera: 22:00.
Ballerina
Egubakoitzetik domekara: 16:00.

Redención
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.
Astelehenera eguenera: 21:20.
El guardian invisible
Egubakoitzetik eguenera: 19:30, 22:10.
Batman
Egubakoitzetik domekara: 16:40.
Logan
Egubakoitzetik eguenera: 22:25.

KRITIKA

El bar ★★★★★

Zuz.: Álex de la Iglesia. Aktoreak: Blanca Suarez, Mario Casas, Secun de la Rosa.

Neurri arazoak

ANTONIO ZABALA

Alex de la Iglesiaren filmak frenetikoa izaten dira. Ez diote ikusleari atsedunik ematen eta kasu askotan gehiegizkoak dira. Zuzendariak neurria galtzen du, ez ditu istorioaren erritmoak kontrolatzen. Normalean, istorioak izaten dituzte. Garatzen doazen neurrian, gorakadak eta lasaitasun momentuak. Apurka emozio intentsitateak gorantz egin behar du, azkenean lortu nahi duen emaitzara heltzeko. Orokorrean, De la Iglesiaren filmak ondo hasten dira, eszena ikusgarriak filmatzen badaki eta agertzen diren pertsonaia bitxiak grazia izaten dute. Baina egoerak gehiegi luzatzen ditu, eta, hasieran, ikusgarria eta originala dena gogaikarri bihurtzen da. Filma pertsonaia aurkezten duen plano-sekuentzia indartsu batekin hasten da.



HOBBYCONSOLAS

Horiek tabernan sartzen direnetik beheko solairura jaitsi arteko sekuentziak ez du funtsik. *El bar* pelikulan, hasiera hasieratik, ezer berezirik gertatu aurretik, pertsonaia bere onetik irtenda daude. Mantentzen duten portaera ez dago justifikatua eta ez dute sakontasunik. Ostean bai, beheko solairuan

daudenean, bizi irauteko sortzen diren norgehiagokak eta mesfidantzak askoz hobeto daude.

Bigarren zatia ondo dago, baina, tamalez, azkeneko hamar minutuetan zuzendariak egoera muturreraino eramanez nahi du, eta, beste batzuetan pasa izan zaien moduan, neurria galtzen du.



AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

**Oporrak buruan,
ametsen munduan**

Udaberria. Eguzki printzak. *Oporrak* kartela agertu zait, buru barruan zintzilik. Eta uda usainarekin batera, hamaika galdera eta aukera. Aste Santurako baino gehiago, aurrera begira.

Emir Kusturicaren herria. Ez da berria. Baina nire arreta erakarri du. Coca Colari eta multinazionalen produktuei boikota egiten dielako.

"Globalizazioaren kontra" eraiki zuelako herri hori Serbiako zinemagile eta musikariak. Zinema, musika eta artea dituelako ardatz. Tailerrak, kontzertuak. Asmatutako toki bat delako, errealitate bihurtutako amets bat. Drvengrad, egurrezko herria.

Küstendorf bezala ere ezaguna da: kostaldeko herria. Nahiz eta mendi artean egon, Belgradetik 400 kilometrora. Baperezko tren batean iritsi gaitezke hara, sigi-saga. Kusturicaren *Bizitza miraria da* (2004) filmean agertzen diren parajeetatik barrena. Filmerako lokalizazio bila zebilela aurkitu baitzuen gero bere bizitoki bihurtuko zena. Egurrezko etxetxoak eraiki zituen, antzokia, hotela...

Ez da izango ez hain idilikoa eta ezta merkea ere. Baina amets egiteko aukera eman dit. Hobe planak presaka eta korrika ez egitea... Korrika egiteko, badaude aukera hobeak: atzo hasi zen Korrika!

BUKATZEKO

Arrantza-sareetatik eratorritako prakak

Getariako, Hondarribiko eta Bermeoko kofradiek erabiltzen ez dituzten arrantza-sareak batu, sareak hari bilakatu, hariekin telak egin eta telekin jantzi teknikoak sortzeko Redcycle proiektua egin dute Ternuak eta Gipuzkoako Baxurako Arrantza Ekoizleen Elkarteak

Ubane Madera DEBAGOIENA

2016an, abandonatutako 12 tona sare jaso ziren, eta, sare horiek erabiliz, Ternuak 2017ko udazkeneko eta neguko bildumarako dendetan egongo diren bi praka sortu ditu. Hori da Redcycle ize-narekin bataiatutako proiektuaren fruitua: ehun berri bat sortu eta hura baliatuta, "jantzi birziklatuak eta birziklagarriak egin, lurra errespetatzen dutenak".

Eslovenia, Bartzelona...

Hori lortzeko honako prozesu hau garatu dute:

1- Ternuak esku hartzen du Bermeoko, Getariako eta Hondarribiko kofradietan sareak biltzen.

2- Sareak Esloveniara bidaltzen dira; han, Italiako Aquafil enpresak hondakin horiek prestatu, txikitu eta garbitu egiten ditu, material hori birsortze-plantara eramanez aurretik.

3- Birsortze-plantan, hondakina zena lehengai bihurtzen dute, eta Econyl izeneko haria lortzen dute horrela. Amaierako haria arrantza-sareen eta beste gai birziklatu batzuen arteko nahasketak da -esaterako, moketak-.

4- Hari hori ehun ekoizleei bidaltzen diete; kasu honetan,



Upright prakak. TERNUA



Ride On prakak. TERNUA



Euskadiko kofradietan batutako sareak kamioian. TERNUA

Bartzelonako IBQ enpresara, eta han ehunak sortzen dira.

5- Ehunak Arrasatera eroan, eta jantziak diseinatzeko eta garatzeko prozesuari ekiten diote.

"Itsasoa garbi"

"Itsasoa arrainez beteta egon dadila nahi dugu, arrantzaleek arrantzan egin ahal izan dezaten, baina, batez ere, itsasoa garbi egotea dugu xede, osasuntsu egon dadila, arrantzaleen eta gu guztion gozamenarako", azpimarratu du Edu Uribesalgok, Arrasateko Ternua Group enpresako sortzaileak eta bertako I+G-ko zuzendariak.

Opegui Gipuzkoako Baxurako Arrantza Ekoizleen Elkarteak du bidelagun Ternuak 2015ean lantzen hasi ziren Redcycle proiektuan. "Gure ontzien, gure arrantza-ontzien etorkizunerako ari gara lanean. Itsasoaren mende gaude, eta, beraz, ekosistema garbiak behar ditugu, denboran zehar iraunkorrak direnak", azpimarratu du Opeguiko ordezkari Xabier Zalduak.

Halaber, proiektuari babes eman dio Eusko Jaurlaritzak; Leandro Azkuek, Arrantza eta Akuikultura zuzendariak, azpimarratu du bi ekarpen egin nahi dizkietela belaunaldi berriari: "Itsasoan sare abandonaturik ez utzi, eta itsasoko hondakinak jasotzen lagundu".

Ildo horretan, datu batzuk: 2016an 12 tona sare batu ziren; Ternuak 9 tona poliamida erabilgarri lortu ditu. Bestela esanda, poliamida birjinaren kopuru hori lortzeko, 18 tona petrolio kontsumitu beharko ziren, eta 40 tona CO2 sortu. Beste datu bat: kalkulatu denez, itsas hondotan 640.000 tona sare daude.



Batxilergo berria
eta eraldatzailea

arizmendi
ikastola

BIGARREN HEZKUNTZA BATXILERGOA

INFORMAZIO-BILERAK

APIRILAK 4	18:00	GAZTELUPEn	(euskaraz)	Arrasate
APIRILAK 5	18:00	ALMENen	(elebidunez)	Eskoriatza
APIRILAK 6	18:00	GAZTELUPEn	(gazteleraz)	Arrasate



informa zaituz

943 77 20 25

www.arizmendi.eus